



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



Zuzenbide Fakultatea
Facultad de Derecho

BIKTIMAREN BABESAREN GARRANTZIA GENERO INDARKERIAREN IKUSPUNTUTIK

GRADU AMAIERAKO LANA

NAN: 72844751W

Egilea: Gardoki Azkarai, Mainer

Gradua: Kriminologia

Zuzendaria: Ayesta Aldanondo, Iban

Deialdia: 2

Urtea: 2020

AURKIBIDEA

| | |
|--|----------|
| 1. SARRERA | 3 |
| 2. MARKO TEORIKOA | 4 |
| 2.1 Kontzeptuak | 4 |
| 2.1.1 Kriminologia..... | 4 |
| 2.1.2 Biolentzia | 5 |
| 2.1.3 Delitua..... | 7 |
| 2.1.4 Zigor Kodea..... | 11 |
| 2.1.5 Biktimologia | 12 |
| 2.1.6 Biktima | 12 |
| 2.1.7 Biktimizazioa..... | 12 |
| 2.2 Biktimologia eta biktima..... | 13 |
| 2.2.1 Biktima eta biktimologia historian zehar | 13 |
| 2.2.2 Biktimologia motak | 16 |
| 2.2.3 Biktima motak | 18 |
| 2.2.4 Biktima izateko faktoreak | 20 |
| 2.2.5 Biktimaren babesaren garrantzia..... | 22 |
| 2.3 Biktimizazioa eta desbiktimizazioa | 23 |
| 2.3.1 Biktimizazio etapak edo tipoak..... | 23 |
| 2.3.2 Biktimaren rolaren gaitztea..... | 25 |
| 2.3.3 Prebentzio biktimala | 27 |
| 2.4 Biktima-Biktimologia eta gizartea..... | 28 |
| 2.4.1 Biktimologiak gizarteari eta gizarteak biktimologiari ematen dizkion ezagutzak 28 | |
| 2.4.2 Biktima izatearen ondorioak..... | 33 |
| 2.5 Politika sozialaren neurriak | 34 |
| 2.6 Biktima prozesuan | 38 |
| 2.4.1. Biktima eta zuzenbide penala | 38 |
| 2.4.2. Doako laguntza juridikoa | 38 |
| 2.4.3. Biktimaren eskubideak..... | 40 |
| 2.4.4. Biktimen legeak eta estatutuak | 43 |
| 2.5. Genero indarkeria | 45 |
| 2.5.1. Genero indarkeriaren kontzeptuari hurbilpena eta motak | 45 |
| 2.5.2. Genero indarkeriaren kontzeptu juridiko eta errealitate soziala | 47 |
| 2.5.3. Genero indarkeriaren biktima | 49 |

| | | |
|-----------|---|-----------|
| 2.5.4. | Genero indarkeria eta biktimologia historian | 52 |
| 2.5.5. | Genero indarkeriaren prebentzioa | 55 |
| 2.5.6. | Genero indarkeriaren babesaren garrantzia | 57 |
| 2.5.7. | Genero indarkeriaren babesaren garrantzia | 64 |
| 3. | MARKO ENPIRIKOA | 66 |
| 3.1. | Sarrera | 66 |
| 3.2. | Estatistikak | 66 |
| 3.3. | Genero indarkeria sufritzen duten emakumeen egoera bitartean eta “post delito” .. | 69 |
| 4. | Ondorioak..... | 73 |
| 5. | Dekalogoak | 75 |
| 6. | Eranskinak | 78 |
| 7. | Erreferentzia bibliografikoak | 82 |
| 8. | Txosten exekutiboa..... | 85 |

1. SARRERA

Gure gizartean egunero delitu asko ematen direlaren ezagutza dugu. Delitu guztietan ematen diren faktoreen azterketan, delitugileari buruz eta delitugileak zigor kodearekin topo egiterakoan izango duen zigorraz hitz egiten da gizartean, pertsona horren pertsonalitatearen inguruan delitua burutzerako orduan, etab. Denboran luzean zehar delitugilea zuzenean zigortu behar zelaren ideia zabaldua zegoen, baina, urteak aurrera joan ahala delitugileari “bigarren aukera” bat eman zaio. Izan ere, delitugileak delitu hori burutzean arrazoiak aztertzen dira, pertsonaren pertsonalitatea, egoera ekonomiko, sozial eta inguruabarrak. Hala ere delituaren azterketa honetan, non geratzen da biktima?, Zer da biktima?, Zer behar du? Nola babestu behar da?.

Delituaren ondorioak jasaten dituen pertsonak orain dela urte gutxi batzuk aztertzen hasi izan dira, biktimologia eta elkarte eta kolektibo ezberdinen eskakizunaz. Delitugileari ematen zaizkion baliabideak biktimetan ahaztu egiten da, horretarako biktimaren paperaren edo rolaren gainditzeari buruzko adierazpena egitea ezinbestekoa da. Biktimologiaren sorkuntzarekin eta beste korrante batzuen laguntzarekin biktima nola joan den aldatzen ikus daiteke. Biktimaren paperaren, ondorioei eta rolari buruz mintzatzen da. Biktimizazio kontzeptu, biktimizazio motak eta desbiktimizazioari garrantzia ematen zaio. Aurreko guztia gainditzeko asmoarekin desbiktimizazioa helburu nagusi bezala bideratu. Hala ere, gainditzeko beharrezkotasun ezarekin prebentzio biktimala hornitu ondorioen eraginak inhibituz.

Gizartean emandako delitu guztien artean genero indarkeria sufritu duten emakume biktimen garrantzia azpimarratuko dut. Fenomeno deliktibo bezala zer ondorio dakarren aztertu eta biktima hauek ondorio horiei modu egokienean aurre egiteko aukerak eman. Estatistiketan zentratuta, prozedimenduaren babesgabetasunaren ondorioz eman diren hildakoak islatuko ditut eta honen inguruan hausnarketa bat burutu.

Biktimaren garrantziaren helburu nagusiak:

- Biktimaren rola eta papera gainditu behararen beharrezkotasuna
- Ondorio negatiboei aurre egiteko gaitasuna eduki
- Gaitasun eta baliabide ezberdinen hornikuntza
- Ezinbesteko elementua: babesa

Beraz, nire lanaren helburu nagusia gizarteari biktima hauek sufritzen duten eta bizi izan duten egoera (post delitu) erakutsi nahi diot. Pertsona hauen babesari garrantzia eman eta delitugilearen babesa alde batera utzi aurrekoa gailenduz. Prozedimendu egokien beharra eskatu, orain arte dauden prozedimenduak kritikatu. Organismo ezberdinen estruktura desegokiak, egokiengatik aldatzearen beharra, biktimek prozedimenduaren hasieran, bitartean eta bukaeran, laguntza egokia izan dezaten, betiere eskubide guztiak bermatuz. Bereziki, biktimak pairatu izandako sufrimenduaren bukatu eta gehiago ez luzatzen saiatu.

Guzti hau, genero indarkeria sufritu duten emakume batzuekin elkarrizketak burutzen saiatuko naiz, fenomeno garrantzitsu eta arriskutsu honek eman ahal dizkidan zailtasunekin, hauen egoera aztertu ahal izateko. Babes edo babesgabetasun egoera islatzeko intentzioarekin. Eta gainera, lanean jarraitzeko eta egoera horiek hobetzeko deia bultzatuz.

2. MARKO TEORIKOA

2.1 Kontzeptuak

Gaiaren inguruan hitz egin aurretik, biktima eta biktimologiaren inguruan barneratzeko kontzeptu batzuen inguruan informazioa jaso behar da. Jarraian, kriminologia, biolentzia, delitua, zigor kodea, biktimologia, biktima eta biktimizazio arloak jorratuko dira.

2.1.1 Kriminologia

Kriminologia delituaren zientzia dela esan dezakegu, hortaz aparte, bere kausak aztertu eta delituaren errepresioa bilatzen du. Hitza, latin eta grekotik dator; hau da, “criminis” eta “logos”, zerikusia dutenak delituaren eta delitugilearen ikerketarekin.

Solís Villegas, J. M., León Coello, N. O. eta Almeida Barzola, F. – ek (d.g.), Von Litz-ek kriminologiaren inguruan eman zuen ideia hartzen dute. Kriminologia objetiboki delituaren zientzia izango da; izan ere, subjektiboki, etiologia kriminala. Autore hauen arabera, alde subjektibo zein objektiboa hartu behar da kontuan delituaren kausalitatea frogatzeko.

W. A. Bongera autoreak, kriminalitate fenomenoaren aztertzen duen zientzia bezala ulertzen du kriminologia. Orduan, nola ulertu beharko genuke kriminologia, zientzia teoriko edo puru bezala? Kontuan hartzen baldin bada kriminologiak helburu bezala arazoak konpontzea eta faktore eta kausei alternatibak ematea duela helburu, zientzia teoriko aplikatu bat bezala definitu beharko genuke. Hala ere, ez da teorikoa bakarrik izango bereziki praktikoa izango da (Solís Villegas, J. M., León Coello, N. O. eta Almeida Barzola, F. – ek, d.g.).

Definizioak kontuan harturik, Kriminologia zientzia multidisziplinaria dela esan daiteke; Antropologia, Soziologia, Psikologia eta Biologia Kriminala barneratzen dituelako.

Solís Villegas, J. M., León Coello, N. O. eta Almeida Barzola, F. – ek (d.g.), Alvaro Orlando Perez Pinzon-en Kriminologia Hiztegiaren definizioa hartzen dute eta honen arabera, kriminologia krimenaren eta kriminalaren zientzia da, helburu bezala kausak aztertzea izango duena. Ikuspuntu antropologiko, fisiologiko eta psikologiko batetik kriminalak ikertuko dira. Krimenean agertu ahal diren influentzia guztiak agertaraztea izango da: faktore kosmikoak (klima, orografia, hidrografia, geologia, altuera, etab.), sozialak (hezkuntza, lanbidea, ohiturak, egoera sozialak, etab.) eta faktore indibidualak.

Zentzu hertsian, faktore zirkunstantzialak, pertsonalak edo ambientalak ikertzen dira, azken finean jarrera kriminalean eragina izan dezaketelako.

2.1.2 Biolentzia

Biolentzia, Blair Trujillo, E. autorearen arabera (2009:11), indarkeriak dimentsio politikoak bere gain hartzen baditu, “indarkeriaren erabilera legitimo edo ilegala” bezala definituko dute. Estatuaren kontzeptualizazio Weberianoak (indarkeriaren erabilera, biolentzia eta boterea) hainbat soziologo eta politologoetan indarkeriaren inguruko hausnarketa ekarri du.

XVIII eta XIX. mendeak hausnarketaren eta biolentziaren inguruko pentsamenduen garaiak izan ziren. Bertan Rousseau, Marx edo Engels aurki ditzakegu. Biolentzia guda egoerekin zerikusia duenean, interpretazioak egitea erraza da. Aldiz, indarkeria dimentsio sozialak bere gain hartzen badu, biolentziaren analisia konplexuago izaten da

eta honen inguruko kausak, manifestazioak, jatorriak eta “soluzioak” aurkitzea askoz zailagoa da.

Analisi garrantzitsuek, indarkeria “mundua bezain zaharra” dela erakusten digu baita zalantzaten ere (komunikabideetan ematen dena eta iritzi publikoa): gizarte garaikideak biolentzia gehien dutenak dira. Jean Claude Chesnais-en Histoire liburua kontuan hartzen da indarkeriaren inguruko kontzeptualizazio bat emateko.

Indarkeria txoke oro, indarkeriaren zerikusia duen oro, ezberdintasun oro, hierarkia oro izango da; hau da, edozer gauzaren pixka bat. Urte batetik bestera zentzua zabaltzen da eta delitu internazional txikiak sartzen ditu, krimen baxuak, hitzen trukea, gatazka sozialak eta beste zenbait desadostasun hutsal. Egoera hau ematen da, analisiak askotarikoak eta gutxitan zehaztuak direlako. Biolentziaren ideia oraindik ahula da, zehaztugabea, malgua eta bereziki borondateari hedagarria (Blair Trujillo, E., 2009:12).

Beste autore batek indarkeriaren zentzu originalera hurbiltzen den beste definizio bate ematen du:

La violencia en sentido estricto, la única violencia medible e incontestable es la violencia física. Es el ataque directo, corporal contra las personas. Ella reviste un triple carácter: brutal, exterior y doloroso. Lo que la define es el uso material de la fuerza, la rudeza voluntariamente cometida en detrimento de alguien (Jean Claude Chenais, Blair Trujillo-k aipatua 2009:12).

Semelin-ek hiru kategoria proposatzen ditu indarkeria forma ezberdinak azaltzeko, baina honek ez ditu mekanismoak eta funtzioak azaltzen. Hauek dira: a) odolaren indarkeria ezberdintzea (hildakoena), indarkeria estrukturaletik. b) eguneroko indarkeria, gure bizitzan integratua, c) ikuskizun indarkeria, begitara erakartzen duena, berriz, gaitzespena (Semelin, Blair Trujillo-k aipatua, 2009:14).

Gure gizartean indarkeria gehiago edo gutxiago dagoela pentsatzeak ez gaitu inora eramaten. Hala ere, zenbait indarkeria forma, gizartearen industrializazio eta modernizazioarekin, bukatu dira –dolua, exekuzio publikoak, etab. Jean-marie Domenach autoreak, biolentzia bezala ezagutzen dena, hiru aspektuen arabera ikasi dira: a) aspektu psikologikoa: aspektu irrazionala eta maiztasun kriminaleko indarkeriaren leherketa; b) aspektu morala: ondasun eta askatasunari atentatua, eta c) aspektu politikoa: botereaz baliatzeko indarkeriaren erabilera.

Indarkeria estatu autoritarioetara lotuta dago. Indarkeria irekia duten gizarteetan indarkeria pribatizatu da, ondorioz, Estatuaren eta gizartearen erlazioari lotuta dago (Daniel Pecaut, Blair Trujillo-k, 2009:11).

2.1.3 Delitua

Delituaren kontzeptuari dagokionez, delituak egoera ezberdinak hartzen ditu kontuan baino denek helburu edo ondorio berdinak jasoko dituzte, egoera bakoitzari moldatuz. Horretarako hasteko delituaren oinarritzko jatorriaren azalpen batzuk eman behar dira.

Delituaren teoria, Machicado, J. ren arabera (2010), sistema kategoriko, klasifikatorio eta sekuentziala da. Gainera, hierarkikoki, delitua agertzearen beharrezko elementu ezberdinak lantzen dira.

Delitua, gizartean ezartzen diren irizpideen arabera baloratzen den gizakiaren jarduera da. Kontzeptuak XVIII, XIX eta XX. mendean garatu ziren. Hurrengo izango da sailkapena (Machicado, J., 2010:3):

Alde batetik kontzeptu formalak edo nominalak izango ditugu. Delitua gizakiaren jarduera bat izango da zeinak legeari kontra egingo dion. Legeak zein jarduerak diren delituak ezarriko ditu, hala ere, legea ezabatzen baldin bada delitua desagertzen da. Delitua artifiziala da.

Bestetik kontzeptu substantzialak edo materialak izango ditugu. Legeak elementu batzuk hartzen ditu kontuan, gizakiaren jarduera delitu kontsideratzeko. Kontzeptu hauentzako, gizakiaren jarduera antijuridikoa, erruduna eta zigorgarria da. Metodo analitikoa jarraitzen du.

Jarraitzeko, delituaren kontzeptu atal ezberdinetatik ikusi edo azaldu daiteke. Eredu ezberdinaren arabera delituaren kontzeptua ezberdina izan daiteke; jarraian, kontzeptu juridiko, dogmatiko, soziologiko eta estrukturaletik aztertuko da.

Delituaren kontzeptu juridikoaren arabera, lege guztiek estruktura bat jarraituko dute, oinarri batekin hasiko direnak; hau da, egin behar ez dena edo egin behar dena markatzen duena. Jarraiki ondorio juridiko batzuk izango ditu (Machicado, J, 2010).

Oinarrira egokitzen den jarduera, adibidez: “indarrarekin gauza batez baliatzen den pertsona...”, ondorio juridikoak jasoko ditu eta zigor askatasun gabetzailearekin zigortuko zaio urte 1 eta 5 urte artean.

Delitua beraz, ikusmolde juridiko batetik, legeak ezartzen duen oinarri juridikoarekin bat egiten duen edozein giza jarduera izango da. Oinarrira moldatzen dela esaten da urratzen ez duelako, kontzeptu juridikoak esaten duenarekin bat egiten duelako baizik; adibidez, lapurrak oinarri juridikoak esaten duena betetzen du: “indarrarekin gauza batez baliatzen den pertsona...” (Machicado, J., 2010:3-4).

Machicado, J.-ren esanetan (2010), delituaren kontzeptu juridikoa Juan Domingo Romagnosik, Fiovanni Carmignanik eta Francisco Carrarak garatu zuten. Romagnosirentzako delitua, ongizateari eraso bat izango da eta zigorgabe geratzen baldin bada gizartea suntsituko luke. Aurrekoa gertatu ez ahal izateko, gizarteak eta Zuzenbideak zigorgabetasun hori ezabatu beharko du.

Carrara-rentzako delitua, Estatuak gizarte babesa mantentzeko sortutako lege baten urrapena izango da. Gizakiaren jarduera estremo bat, positiboa edo negatiboa, moralki zigorgarria eta politikoki kaltegarria. Autore honentzako delitua izate juridiko bat da (legearen sorkuntza) eta ez fenomeno sozial bat (gertakizuna). Izate juridiko bat dela esan dezakegu gizakiaren jardueraren eta legearen arteko kontradikzio bat delako. Beraz, akzioa bezala definitu beharrean urrapena izango balitz bezala definitzen da, honek delituaren antijuridikotasuna suposatzen duena.

“Kanpoko jarduera”-ri buruz hitz egiten dugunean, gizakiak burutzen dituen jarduerari buruz ari gara, hau da, ez dira barneko jarduerak edo pentsamenduak zigortzen. Norbait hil nahi izateak pentsatzeak ez da delitua izango betiere azaleratzen ez baldin badu. “Jarduera positiboari” buruz ari garenean, jarduera boluntarioei buruz ari gara, aldiz “jarduera negatiboari” buruz ari garenean, legeak ezartzen duena ez betetzearekin ari gara.

Gizakiak delitua libreki burutzea edo ez burutzearen erabakiari buruz ari hitz egiten dugunean “moralki zigorgarria” denari buruz ari gara. Gizakiak jarduera ezberdinak aukera ditzake (“ohiturak”, “jarrera”), partikularrak edo ez izango direnak (Machicado, J., 2010).

Azkenik, “politikoki kaltegarria” dela aipatzen dugunean, gizaki baten eskubide subjektiboak urratzen direla kontuan hartu behar da, hala ere, kasu hauetan gizartea ere kaltetua ateratzen da.

Delituaren kontzeptu dogmatikoari dagokionez, Machicado, J, (2010) bere testuan azalerazten duen bezala, delituaren kontzeptu dogmatikoa Karl Binding, Ernst Von Beling, Max Ernest Mayer eta Edmundo Mezgerrek eraman zuten aurrera. Delitua, egintza baten egite edo ez-egite bat izango da tipikoki antijuridiko eta erruduna. Kontzeptu dogmatikoak delituaren elementuak zerrendatzen ditu.

Delituaren kontzeptu dogmatikoak, Karl Binding-en Arauen Teorian du oinarria. Honen arabera, delitugileak arau juridikoaren supostu hipotetikoa urratzen du eta ez legea. Araua “ez duzu hilko” izango da. Betebeharrek, ona eta txarra dena jakitera bideratzen dute. Beranduago, Edmund Mezger-rek, Erns Von Beling-en teoriaren laguntzarekin hurrengo esaten zuen: delituak arau juridiko penalaren supostu hipotetikoa urratzen duenean, arau-hauste hori, legeak delituaren inguruan idatzi duenarekin bat egin behar du; izan ere, arau-haustea tipo penalak esaten duenarekin bat egin behar du.

“Kontzeptu dogmatikoak” delituaren elementuak zerrendatzen ditu. Delitua egite edo ez-egite boluntario bat izango da, bertatik kanpo geratzen dira, borondatez gidatutakoak, indar jasanezinekoak, jarduera adierazgarriak edo patologiarekin zerikusia duten jarduerak (logura, hipnotismoa, somnanbulismoa). Kasu hauetan ez da jarduerarik existitzen, beraz ez da deliturik egongo (Machicado, J., 2010).

“Delitua jarduera tipiko” bat zeina tipo penalarekin egokitzen den. Egokitzerik ez baldin badago, ez da deliturik egongo eta tiporik ez baldin badago, jarduera ez da delitua izango. Horregatik, debekatuta edo behartuta ez dagoen beste guztia, onartuta dago.

Delitua tipikoki jarduera antijuridikoa dela esateak, delitua arau juridikoaren aurkaritzan dagoela esan nahi du. Jarduerak babestutako ondasun juridikoak lesionatu edo arriskuan jarri behar ditu. Kasu batzuetan, tipikoki jarduera antijuridikoa ez izatea gerta daiteke (Machicado, J., 2010):

- Beharrezkotasun kasuak (legitima defensa, gose ebasketa). Legitima defentsaren kasuan, erasotuak erasotzailea hil dezake, hau ez da hilketa bat izango,

babesteko gizaki baten jarduera boluntarioa baizik. Gose ebasketan, pertsona baten egoera dela eta (gosez hil), janaria ebasten du.

- Kargu baten eskubidea edo egikaritzea
- Lege baten egikaritzea edo betetzea

Delitua, tipikoki jarduera antujuridikoa eta erruduna da. Erruduntasuna pertsona bati ezartzeko hurrengo elementuak bete behar dira (Machicado, J., 2010):

- Egozgarritasuna
- Dolua eta erruduntasuna
- Beste portaera baten galdagarritasuna

Jarduera errugabetasun bihurtuko da errugabetasun kausak ematen baldin badira (Machicado, J., 2010):

- Ezusteko kasua
- Betebehar baten betetzea edo beharrezkotasun egoera bat (legitima defentsa)

Tipikoki jarduera antijuridikoari erruduntasunaren elementuren bat faltatzen bazaio edo errugabetasunaren kausaren bat ematekotan, ez da deliturik egongo.

Delituaren azkeneko elementua *zigorgarria* izango da. Tipikoki jarduera antijuridikoa eta erruduna, izaera kriminala izango duen zigor bat jaso behar du. Kasu batzuetan, tipikoki jarduera antijuridiko eta errudun bat ezin izango da zigortu, ez zigorgarriak diren kausa batzuegatik:

- Delitugilea 18 urte baino beherako izatea
- 16 urteko baten jarduera zigorgarria izango da baino zigor gabe geratuko da; hau da, ez da pertsona hori kartzelaratuko baizik eta erreforma etxe batera eraman. Hauei segurtasun neurri bat aplikatzen zaie.

Delituaren kontzeptu soziologikoa Rafaél Garófalo, Enrico Ferri, Gabriel Tarde, Colanjanini eta Emilio Durkheim-ek garatu zuten.

Delito. Es la lesión de los sentimientos altruistas fundamentales de piedad y probidad en la medida media en que son poseídos por la comunidad y en la medida media en que son indispensables para la adaptación del individuo a la sociedad (Rafaél Garófalo, Enrico Ferri, Gabriel Tarde, Colanjanini eta Emilio Durkheim, Machicado, J.-k aipatua, 2010:8).

Nahiz eta sentimendu horiek gizakiarenak izan, ez dira bakarrak izango. Delituaren kontzeptu soziologikoak legeak delitu bezala kontsideratzen duela baztertzen du.

Delitu kontzeptuaren estrukturaren inguruan Machicado, J. (2010:9)-k, Muñoz Conde eta Garcia Aranek duten iritzia kontuan hartzen du. Izan ere, Muñoz Conde eta Garcia aranen arabera, dogmatika juridiko-penalak delituaren kontzeptuak bi perspektiba dituela ondorioztatzen du:

- 1- Delitua jarduerarengan baliogabeko epaiketa bat bezala aurkezten da
- 2- Delitua delitugilearengan egiten den epaiketa bat bezala aurkezten da

Lehenengo epaiketari antijuridikoa deituko diogu. Bigarrenari, errugabetasuna.

2.1.4 Zigor Kodea

Zigor Kodea egoera ezberdin hauek, kasu honetan, delituak ebazteko erabiltzen den tresna denez Martos Nuñez J. A. autoreak honen inguruko kontzeptu zabal bat ematen du (2001). Izan ere, zuzenbide penala, Estatuaren zigor ahalmena erregulatzen duten arau juridikoen multzoa da. Bertan, zigorrak, segurtasun arauak edo zuzenketak aurkituko ditugu ondorio bezala. Helburu bezala, elkarbizitza baketsu batean gizartearen ezinbesteko baloreak errespetatzea izango da.

Zigor Zuzenbideari buruz hitz egiten denean kontzeptua adierazpen ezberdinekin erabiltzen da; horregatik, klasifikazio bat egin dezakegu; alde batetik, Zigor Zuzenbide substantiboa eta bestetik, Zigor Zuzenbide adjektiboa edo zigor prozesala.

Lehenengoarekin Zigor Kodeari buruz ari gara; hau da, Estatuak ezartzen dituen arauen multzoei buruz, delituak eta zigorrak ezartzen dituztenak. Bigarrena aldiz, aurreko arauen multzoen aplikazioari buruz ari da (Martos Nuñez, J. A., 2001).

Zigor Kodea ezagutza juridikoa da zeinak sorkuntzarako, interpretaziorako eta exekuziorako printzipio batzuk sortzen dituen. Epailak haien erabakietan orientatzen ditu eta horrela Zuzenbide Estatu Konstituzionalaren progresua sustatzen da eta botere punitiboarekin bukatzen da.

Doktrinario batzuen definizioak aipatzen dira:

Conjunto de reglas jurídicas establecidas por el Estado, que asocian el crimen como hecho, a la pena como legítima consecuencia (Franz von Liszt, Martos Nuñez-ek aipatua, 2001:1).

Conjunto de normas y disposiciones jurídicas que regulan el ejercicio del poder sancionador y preventivo del Estado, estableciendo el concepto de delito como presupuesto de la acción estatal, así como la responsabilidad del sujeto activo, y asociando a la infracción de la norma una pena finalista o una medida aseguradora.- (Luis Jiménez de Asúa, Martos Nuñez-ek aipatua, 2001:1).

2.1.5 Biktimologia

Biktimologiaren definizio edo adierazpen ezberdinak eman izan dira urte ezberdinetan zehar baino helburu berdinerira iristeko sortuak izan dira. Manzanera, L. R. autoreak (1988) bere testuan autore ezberdinek biktimologiaren inguruan ematen dituzten zenbait definizio hartzen ditu kontuan. Alde batetik, Goldsteinen definizioa hartzen du; hau da, Kriminologiaren ikerketaren parte izango da, biktimologia. Biktima delituaren kausa izango balitz bezala eta honek delituaren burutzean izaten duen paper garrantzitsua kontuan hartzen du.

Jarraitzeko, biktimologia pertsonalitatearen ikerketa izango da eta bereziki garrantzia emango dio delituaren biktima izan den pertsonaren garapen emozional eta sozialari (Abrahams, Manzanera L. R.-ek aipatua, 1988:26). Azkenik, Fattah-en definizio aipatuko digu; hots, biktimologia delitu zuzenaren biktimaz arduratzen da eta biktimarekin zerikusia duten ezagutza biologiko, soziologiko, psikologiko eta kriminologikoak izendatzen ditu.

2.1.6 Biktima

Biktima, jardueraren kanpoko efektuak, nahita edo nahigabe, jasotzen dituen pertsona izango da. Honek bere integritate fisikoan, bizitzan edo ondasun juridikoetan jasoko ditu ondorioak (Hikal, 2011).

2.1.7 Biktimizazioa

Biktimizazioa orain dela gutxirarte ezagutu ez den kontzeptuetariko bat izan arren, garrantzia ematen saiatu da eta definizio zehatz bat eman zaio.

Kulturalki, biktimizazioa esperientzia indibidual, subjektibo eta erlatiboa da. Biktimizazioa hain da konplexua, faktore indibidual, sozial eta kulturalak kontuan hartzen dituela. Beste alde batetik, faktore hauek esperientziaren bizipenean eragina izango dute eta askotan esperientzia hori modulatu dute (Fattah, Andréu Fernández-ek aipatua, 2017:10).

Biktimizazioaren prozesuarekin jarraitzeko beharrezkoa da biktomogenoa kontuan hartzea. Edozein egoera, inguruabar, posizio edo ezaugarri izango da biktimogenoa; hau da, pertsona baten biktimizazioa ekarriko duela. Horietako edozein egoera, inguruabar, posizio edo ezaugarri faktore bezala ezagutzen dira, izaera endogeno edo exogenoa izango dutenak.

2.2 Biktimologia eta biktima

2.2.1 Biktima eta biktimologia historian zehar

Biktima eta biktimologia historian zehar korrante ezberdinak izan ditu; horietako batzuk, zuzenbide penal klasikoa eta zuzenbide tradizionala izan dira.

Biktima zuzenbide penal klasikoari dagokionez, 1764. urtean Cesar Bonesana, Beccariaren markesak, “Del delito y de la Pena” liburua idatzi zuen eta honek zuzenbide penala markatu zuen betirako. Eskola klasikoak, Beccariaren eskutik sortua, delituan eta zigorran zentratzen da (Bodero, E. R., 2001).

Eskola klasikoari delitugilearekin zerikusia zuena interesatzen zitzaion: hau da, delitugileak burututako jardueraren ondorioz jasotako zigorraren kantitatea eta kalitatea. Biktimari zegokionez, klasizismoan eta gaur egun isiltasunez gordetzen du.

Zuzenbide Penalari kriminala gutxi interesatzen bazaio, biktima askoz gutxiago. Rodriguez Manzanerak autoreak horrela laburtzen du:

«La víctima quedó marginada del drama penal, para ser tan sólo un testigo silencioso. La ley penal apenas la menciona, la literatura científica la ignora, y por lo general queda en el más completo desamparo.» (Bodero, E. R., 2001).

Biktimari buruz arduratzeak Estatuaren eta gizartearen erantzunkidetasuna onartzea ekarriko luke, krimenaren sortze eta produkzioaren erantzule bezala. Jakin daitekeen bezala, gizarteak bereziki onartuko ez lukeen egoera bat.

Biktima zuzenbide tradizionalan, XIX. mendean, Augusto Comte eta Herbert Spencer-ren filosofia positibistak zientzia erreboluzionatu zuen. Printzipioei dagokionez, Zuzenbide Penalean proposamen bat proposatu zuen; hau da, subjektibotasuna eta aprioristikotasuna alde batera uztea eta ekintzan eta esperimendazioan zentratzea.

«El grito de Ferri: ¡Abajo el silogismo! estremeció el viejo templo punitivo. La escuela positiva aplicó el método experimental y con él amplió de repente, de un modo desmesurado, el territorio que desde antiguo colonizaron los juristas» (Bodero, E. R., 2001).

Juan Bustos Ramirez-en arabera, bide kausalak izan zuen eragina Kriminologian eta horrek ekarri zuen biktima arreta gehien jartzea. Biktimologia Kriminologiaren barnean jaio zenez, biktimaren papera, biktimaren ezaugarri espezifikoak eta biktimaren eta autorearen arteko erlazioa jarduera deliktiboan aztertzea zuen helburu.

Azkenik, Eskubide Gizatiarren ezagutzarekin, delitugilean zentratu zen berriz ere ikerketa eta biktima guztiz ahaztu zen. Sistema penala delitugileetan zentratzea eskertzen da baino biktimarekin eragin berdina izango balute, askoz gehiago eskertuko litzateke (Bodero, E. R., 2001).

Bestalde biktima garai ezberdinetan ahaztearen ondorioak agertu izan dira. Bodero, E. R.,-ren esanetan (2001), Zuzenbide Penalaren eta Kriminologiaren aitzakiak asko dira delituaren biktimaren inguruan eta biktimak orokorrean. Biktimologoren bat saiatu da biktimaren ahaztearen ondorioak ulertzen. Beste batzuen arabera, biktiman kriminalean gehiago zentratu behar gara haiekin identifikatzeko.

Rodriguez Manzaneraren hitzetan: «Todos hemos deseado cometer algún delito: robar algo, lesionar al enemigo, poseer a la mujer del prójimo, evadir los impuestos, etc.» Partiendo de este supuesto, el autor mexicano concluye que: «existe una identificación (consciente o inconsciente) con el criminal, con aquel que se atreve a ejecutar lo que nosotros no osamos realizar» (Bodero, E. R., 2001).

Biktimaren ahaztearen ondorioak sistema politiko eta ekonomikoetan du oinarria, hauek indibidualtasuna gizartearen gainetik jartzen dutelako. Kriminologia tradizionalaren arabera, jarduera deliktiboa gizakiaren ekintza boluntarioa denez, estatuak eta gizarteak ez du erantzukizunik eta ez dio biktimari ezer zor.

Beste alde batetik aurrekoarekin jarraituz, biktimologiak beste zenbait korrante izango ditu. Biktimologia Zuzenbide Penalarekin erlazionatuta dago, hortaz aparte, Kriminologiarekin planteamendu ezberdinen garapenak partekatzen ditu. XIX. mendeko

Positibismo kriminologikoak Zuzenbide penala delitugilean zentratu zuen; aldiz, XX. mendeko Positibismo kriminologikoak biktiman jarri zuen atenzioa eta hortik tematika berri bat atera zen: biktimologia (Useche, 1995).

Hasiera batean, homo biktima osatzeko beharrezkoak ziren kausa biologikoak, antropologikoak eta sozialak agertu ziren biktimologia positibistan. Korrante honen barruan autore batzuk aurki ditzakegu; esaterako, Von Henting eta B. Mendelson, zientzia honen aitzindari bezala ezagutzen direnak.

Usechen arabera (1995), delitugilearen ikerketatik biktimaren ikerketara pasatzea zuen helburu korrante honek. Kausa ezberdinak ezartzeak biktimaren agerpena eragozten du, edo baita bere birgizarteratzea ere, azken finean azken helburua lortzen ez delako. Biktimaren erantzukizunaren printzipioaren sorkuntzarekin, honekin batera, delituen eskura geratzen dira biktimak. Premisa hauen arabera, “bikote kriminalari” buruz hitz egiten hasten da; biktimaren eta delitugilearen arteko erlazioa azaltzen duena. Biktimak delituen eskura egoteak, fenomeno kriminalaren kudeatzaile bihurtzen ditu.

Aurrerago, funtzionalismoarekin, jarduera kriminala helburu batzuen ondorio eta sistema sozial baten funtzionamendua dela onartzen da. Kausak alde batera utzita, izaera estrukturalekoa bihurtzen da eta beraz, jarrera kriminala ezin da bertan behera utzi. Etiketatzearen teoriaren arabera, botereak eta kontrol sistemak jarduera kriminalen definizioa sortzen dituztenak izango dira eta ez dira jarreraren berezko ezaugarriak izango.

Aurrerapen hauekin, beste biktimologia mota bat sortzen da zeinak biktimizazioaren prozesuan ezartzen duen atenzioa. Hortaz aparte, jarduera kriminalaren subjektu pasibo bezala, biktimaren babesgabetasun sentimendua eta efektiboa ikertzen da. Biktimak sistema penalarekin duen sentimendua eta alienazio efektiboa ikertzen du (Useche, 1995).

Artikulu honen helburua biktimologia positibistaren ezaugarriak planteatzea da biktimologia berriarekin kontrastatuz. Gainera, biktimologiaren eta abolizionismoaren arteko erlazioa iradokitzen da.

Azkenik, biktimologiaren historiarekin bukatzeko, egoera nola aldatu den azaltzea ezinbestekoa da; hau da, kriminalaren analisitik nola garatu edo aldatu den biktimaren analisira.

Hilkal autorearen arabera (2011), kriminologiako testu batzuetan (gehienetan ez bada) esaten da bikote kriminala aztertzen denean, gehien interesatzen duena delitugilea da. Delitugile batzuk biktimarioarenganako atrakzioa adierazten dute; bestetik beste batzuk, erruduntasun sentimendua adierazten dute.

Hala ere, biktimaren ikerketa zientifikoa kriminalaren ikerketa baino askoz gazteagoa dela esan daiteke. Kriminalak urteetan zehar zenbait azalpen izan ditu Demonologia eta Psikiatriaren aldetik.

Mendeak aurrera Joan zirela, Cesar Lombroso, Entico ferri eta Rafael Gardofaloren ezagutzarekin, kriminologia, fenomeno kriminalaren aspektu guztiak aztertzea ekarri zuen; krimena (ekintza), kriminala (inbiduoa), kriminalitatea (orokortasuna), baina ikerketak bereziki subjektu aktiboan jarri zuen arreta (Hilkal, 2011).

Denbora aurrera zihoala, kriminalaren paradigma biktimaren paradigmarantz pasatu zen; hau da, biktimaren ikerketan zentratzen da, bere arretan, ezaugarrietan, tipoetan, parte-hartzean, delituan barneratzearen arrazoia, etab. Analisi hau ikerketa kriminologikoak egin zuen eta bien garrantzia azpimarratzen zuen. Urteak aurrera joan zirela, Biktiminologia klasikoko testuak sortu ziren, ONGak eta Onuren programak bereziak ere (biktimizazioa inkestak bereziki).

2.2.2 Biktimologia motak

Biktimologia orokorra, biktimak orokorrean ikertu, hauen kausak eta biktimizazioaren efektuak aztertzen ditu baita pertsona partikularren erantzunak ere (Hikal, 2011).

Egoera asko daude non askotan, pertsona batzuk minduta ateratzen diren; adibidez, prozedimendu mediku baten ostean tratamendua jaso behar duela edo hildako bat ematen den kasuan familiarretan duen eragina. Beste alde batetik, Giza Eskubideak urratu zaizkien kideak ditugu, hauek kaltearen ordainketa bilatzen dute. Hauei ere tratamendu biktimologiko bat ezarri ahal zaie. Azkenik, hondamendi naturalak bizitzen dituztenak edo patologiarekin bat pairatzen dutenak ere izango ditugu.

Aurreko kontzeptuari jarraiki, biktimologia orokorrak tratamendua eta errehabilitazioa emango dio jarduera antisoziala jaso duen sujetu pasiboari. Hortaz aparte, familiarrei, istripuen biktimei, diskriminatuak izan direnei, kontaminazioa

jasaten dutenei lan istripuak jasaten dituztenei eta hondamendi naturalen biktimak direnei ere emango zaie tratamendu eta errehabilitazioa.

Hikal autorearen arabera (2011), Jarraian Biktimologia Kliniko, Kriminologiko, Forense, Penitentziario eta Filosofiko kontzeptuak azaltzen dira.

Biktimologia klinikoari dagokionez, jarduera antisoziala jasaten duten pertsonen ikerketa klinikoan, tratamenduan eta errehabilitazioan zentratzen da. Ez da bakarrik biktima zuzena kontuan hartzen baizik eta jarduera horrengatik kaltetuak izaten direnak; adibidez, familiarrak.

Biktimologia Kriminologikoa, biktimaren lesioak sendatzen saiatzen da; hau galdutako lasaitasuna eta bakea bueltatzen lortzen da. Hortaz aparte, kalte morala eta duintasuna konpontzen, izandako galerak konpentsatzen eta etorkizuneko biktimizazioa saihesten saiatzen da. Hondatutako edo suntsitutako subjektu pasiboak berreraikitzea izango du helburu.

Biktimologia Forensean, diziplinak, justizia organoa laguntzen du eta batera biktimak delituarekin duen erlazioa eta honen garapena ikertzen saiatzen dira. Biktimak iter criminis edota iter victimae prozesuaren parte hartzen baldin badu, biktima probokatzailea, imajinarioa, etab., den aztertzea garrantzitsua izango da.

Biktimologia Penitentziarioak, delitugileak aztertzen ditu; hain zuzen, prozesu luzean kartzelan egongo direnak edota kartzelan egotea aurreikusita dauden delitugileak. Kontuan hartu behar da, delitugileak ere biktimizazio etapa bat jasotzen dutela, bereziki kartzelako pertsonalaren aldetik. Polizia, kirol eza, elikadura, bizi kalitatea, besteen artean. Gainera, ezin ditugu ahaztu errugabeak izaten diren pertsonak eta ikerketa jasotzen dutenak autoritatearen partetik.

Azkenik, *Filosofia Biktimologikoari* dagokionez, Filosofia biktimologikoa, biktimologiarekin zerikusia duen inguruan pentsatzearen prozesuari dagokio. Fenomeno biktimala ulertzeko beharrezkoak diren ezagutzak barne ditu. Biktimologia ikertu eta ezagutzen du, historia, beste zientziekin erlazioa, kasu praktikoak, tratamendua, eboluzioa, zientifikoa, teknikak etab.

2.2.3 Biktima motak

Biktima motak azaltzeko ezin da ildo bakar bat kontuan hartu behar, gero eta ildo ezberdinen agerpenarekin delitu batean existitu ahalko diren biktimak ezagutu daitezke. Alde batetik, Hikal-ek (2011) biktima motak aipatzeko, Mendelshonen klasifikazioa hartzen du kontuan: errugabeak (jarduerarekin erlazorik ez dutenak), errudunak (jardueraren parte izan dira), zuhurtziagabakeriazkoak, boluntarioak (biktima izateko nahia agerian jartzen du), ezjakintsuak (biktimizazioa errazten dutenak), erasotzaileak, simulatzaileak (faltsuz akusatzen dutenak), imajinarioak (biktima kondizioa asmatzen dutenak).

Biktimologia positibistak biktimen inguruko klasifikazio bat osatzen du, jarrerak eta faktore biologikoak, sozialak, kulturalak, etab., ezarri nahian.

Klasifikazioa (Mendelshon, Hikal-ek aipatua, 2011):

- Biktima errugabea
- Biktima ezjakintasunez
- Biktima probokatzailea
- Biktima boluntarioa
- Biktima erasotzailea

1984. urtean klasifikazioa eguneratuta (Neuman, Hikal-ek aipatua, 2011):

- Biktima indibidualak
- Biktima familiarrak
- Biktima kolektiboak
- Komunitate soziala
- Biktima sozialak

Bestetik, Useche-k (1995) Shafer, Mensdelshon eta Henting-ek sujetu pasiboak jarduera deliktiboan izan ditzakeen paper ezberdinak planteatzen ditu.

Klasifikazio osatzeko galdera bat planteatzen du: Nor da jarduera deliktiboaren arduraduna eta noraino iristen da bere arduraduntasuna?

Hurrengoak (Shafer, Useche-k aipatua, 1995):

- Erlazio kriminala ez dutenak
- Biktima probokatzaileak
- Presazko biktima
- Biologikoki ahulak diren biktimak
- Sozialki ahulak diren biktimak
- Autobiktimak
- Biktima politikoak

Henting-en klasifikazioa faktore soziologikoen, biologikoen eta sozialen arabera oinarrituta dago. Honek “berezko biktimak” eta “gizarteak egindako biktimak” sailkatzen ditu. Autore honek 13 kategoria adierazten ditu: gazteak, emakumeak, zaharrak, inmigrateak, minoriak, ezgaitasun psikologikoren bat dutenak, deprimituak, axolagabeak, etab. (Useche, 1995).

Autore askok ideia zentral batetik estrukturatu dute biktimen sailkapena: biktimak ekintza kriminal guztietan paper garrantzitsu bat jokatzen du. Gainera, biktima faltsuen eta simulatuen existentzia planteatzen da.

Askatasun sexualaren kontrako delituak burutzen dituzten pertsonak emakumeak edo gizonak izan daitezke, baina biktimologo positibistek alde batera uzten dute. Jarduera baten egikaritza zailtasun fisikoarekin alderatzen da eta emakume bat, bere tipologiaren arabera, horrelako jarduerak burutzeko gai ez direla planteatzen den lehenengo ideia da.

Gazteek eta zaharrek paper protagonista bat jorratzen dute faktore hauetan. Kasu honetan, bizi kalitatearen edo bizitzen ari den etaparen arabera biktima izateko autoerantzukizuna planteatzen da.

Beste autore batzuen arabera, Carmen Caracavaren Llamas-en arabera (2011), beste irizpide batzuk hartzen dira biktimaren klasifikazioan eta Landrove Diaz-en planteatzen dituenak kontuan hartzen ditu:

- a) *Biktima ez parte-hartzaileak*. “Biktima idealak edo errugabeak” deiturikoak. Hauek ez dute inolako ekarpenik egiten jarrera deliktiboan, erlazioren bat izatekotan ez da garrantzitsua izango. Beraz, hemen biktima akzidentalak edo

ausazkoak izango ditugu eta bereizi gabeko biktimak, azken hauek ez dute delitugilearekin inolako binkulorik izango.

- b) *Biktima parte-hartzaileak*. Hauek boluntarioki edo ez paper garrantzitsua izango dute jarduera deliktiboan. Bertan bi azpikategoria izango ditugu; “biktima aldizkakoak”, ausaz biktimaren kondizioan eragiten dutenak; eta “biktima boluntarioak”, hauek biktima bihurtzen dira nahi dutelako. Adibidez, maitasunagatik hilketa-buruaz beste egiten duten pertsonak.
- c) *Biktima familiarrak*. Etxeko indarkeria jasaten duten biktimei dagokie. Izan ere, delitugilearen talde familiar berdinean parte hartzen dutenak. Klasifikazioa hemen hurrengoa da: umeak, zaharrak eta emakumeak.
- d) *Biktima kolektiboak*. Indibidualak izan beharrek biktimak handitzen dira. Pertsona juridikoak, kolektibo batzuk, komunitatea, Estatua, etab. Delitu hauek ondasun juridikoak lesionatu eta arriskuan jartzen ditu.
- e) *Biktima bereziki ahulak*. Subjektu batzuek dituzten ezaugarri sozial eta pertsonak batzuen arabera biktima lehenago bihurtzeko joera dute. Faktore hauek sozialak edo pertsonak izan daitezke. Lehenengoei dagokionez, urteak, sexuak, nazionalitatea, minoria etniko baten parte izatea edo inklinazio sexual baten parte izatea (homosexualitatea faktore arriskutsu bezala kontsideratzen dute). Agente sozialei dagokionez, bizi kalitatea, bizitza sozioekonomikoa, bizitza estilo eta lanbidea izan ditzakegu.
- f) *Biktima sinbolikoak*. Biktimizazioa talde espezifiko baten zentratzen da. Delituak egoera edo talde batzuetan ematen dira; izan ere, balore sistema batetan, partidu politiko batetan, ideologian, sekta erlijiosoan edo pertsona batek familian ordezkatzeko duen paperagatik.
- g) *Biktima faltsuak*. Mehatxu, probetxu edo atentzioa deitzeko intentzioarekin delitu bat gertatu dela salatzen dute. Kategoria honetan biktima simulatzaileak ditugu, hauek gaitasunarekin jarduten dute. Imajinarioei dagokionez, delitu baten objektuak izan direlaren susmoa dute eta argi geratzen oker jarduten dutela.

2.2.4 Biktima izateko faktoreak

Garai ezberdinetan biktima izateko faktoreak aztertu izan dira eta espezifiko batzuk ez direla existitzen defendatu izan da beti.

Hala ere, urteak pasatu ahala faktore edo ezaugarri konkretu batzuk hartu izan dira kontuan eta horien arabera biktima izateko ondorioak ekiditen saiatu dira.

Useche-ren esanetan (1995), biktimizazio eta biktimogenesis kontzeptuak eta hauen ezberdintasunak ezagutzea izan zen biktimologia positibistaren inguruan komentatu daitekeen beste ezaugarri bat.

Biktimogenesisia, gizaki batzuek biktima izateko duten joera dela esan daiteke. Delituaren biktima bihurtzeak, faktore biktimogenoak eta biktimizazio faktoreak sailkatzeko aukera ematen digu.

Manuel Horacio Nieves-en arabera, biktimizazio faktoreak biktima bihurtzeko eta biktimak sufritzeko sortzen diren elementuak izango dira. Biktimitate bezala hurrengoak ezagu ditzakegu; pertsonak dituen ezaugarri edo bereganatu dituen ezaugarri batzuen arabera defendatzen ez direnak, minaz ihes egiten ez dutenak eta beraien buruari eragiten dieten pertsonak (Useche, 1995).

Beste autore batzuentzako joera biktimogenoek bakarrik ez dute jarduera kriminalean parte hartzen, hortaz aparte biktimak rol probokatzaile bat duela, delitugileak jarduera kriminala burutzeak ekartzen duena.

Gugliermo Gulotta autoreak, berezko joerak eta eskuratutako joerak ezberdintzen ditu. Lehenengoari dagokionez, berez pertsonak dituen elementuak izan daitezke adibidez; sexua, bizioa, adimena, ezgaitasun fisiko edo psikiko bat, itsutasuna, etab. Eskuratutako joerei dagokionez, bizitzan zehar pertsonak garatzen dituenak izango dira adibidez, trastorno psikosozialak, jaio ondoren bereganatu dituen gaixotasunak, etab.

Nieves Mateus-en arabera, biktimizazio faktoreak hurrengoak dira (Useche, 1995):

- Faktore sozialak
 - o Egoera familiarra eta pertsonala
 - o Aurrekari pertsonalak
 - o Herentzia
 - o Komunikabideak
 - o Mozkorkeria
 - o Lanbidea

- Faktore patologikoak
 - o Depresio-melankolia
 - o Perbertsioa
 - o Masokismoa
 - o Tendentzia biktimalak
 - o Psikopatiak
 - o Alkohola
- Faktore biologikoak
 - o Urteak
 - o Sexua/generoa
 - o Osasun mentala
- Beste biktimizazio faktore batzuk
 - o Estatua
 - o Printzipio filosofikoak
 - o Ideologia erlijiosoak
 - o Emakume biktima
 - o Adingabeak

2.2.5 Biktimaren babesaren garrantzia

Delitua jasatea eta biktima izatearen ondorioak bereganatzea ezinbesteko babesa galdatzen du. Horretarako, biktimaren babesaren garrantziari buruz hitz egin behar da eta bertan emango diren neurriak ere aipatu beharko dira.

Prozesu penalaren konplexutasuna dela eta, bertan esku hartzen duten agente ezberdinek eta kaltetuak izaten diren faktore ezberdinek, kalte konponezinak sortu ditzake ez bakarrik prozesuan baizik eta parte hartzaileetan ere (Llamas Caracava, C., 2011).

Ikerketaren garapenarekin biktimari prozesuak nola eragiten dion jakitea ezinbestekoa da. Hortaz aparte, legistatuak gure ordenamenduan biktimaren status-a nola hobetu dezakeen jakingo da.

Biktimak Administrazioari aurre egin behar dio eta hau biktimak izango duen arazoetariko handienetarikoa izango da.

Delitua ematen denean biktimak, biktimizazio primarioaren eragina izango du ostean, Administrazioari aurre egiterakoan biktimizazio sekundarioaren eragina izango du.

Biktimizazio sekundarioa, biktimaren eta sistema juridiko penalaren arteko erlazioak uzten dituen ondorio psikologiko, sozial, juridiko eta ekonomikoak dira. Biktimak prozesu luze bat bizi izan beharko du eta bertan agente instituzional ezberdinekin topatuko da; gainera, hauek ez diote beti biktimak behar duen babes nahikoa edo ulermena jasoko. Hurrengo egoerak ondorio hauek sortzen ditu; esaterako, frustrazio sentimendua eta prozesu judizialarenganako konfiantza galtzea.

Noizbehinka biktimak bere eskubideen bortxaketa berriro esperimentatzen ditu, justizia sistemarekin izan duen kontaktua edo jaso duen atentzioa desegokia edo txarra izan delako. Psikologo batzuen arabera, biktimek biktimizazio tertziarioa jasaten dute, ondorioak testuinguru sozialetik eta delituak sortu duen publizitatetik datorrelako (Llamas Caracava, C., 2011).

2.3 Biktimizazioa eta desbiktimizazioa

2.3.1 Biktimizazio etapak edo tipoak

Biktimizazio eta desbiktimizazioaren ibilbidean etapa ezberdinak aurkitu ahal dira. Horien artean biktimizazio motak izango ditugu; esaterako, primarioa, sekundarioa eta tertziarioa. Desbiktimizazioa emateko ez dira zertan hiru egoerak bizi izan behar baino, gaur egun, biktima gehienak 3 egoera horiek bizitzen dituztela argi ikusi daiteke.

Moreno Herreraren arabera (2011) biktimizazio primarioa, agresio edo injustizia kriminalaren ondorioz sortzen dena izango da:

- Biktima-biktimarioaren arteko interakzioa; hau da, “bikote penala” eta beraien arteko botere erlazioak, biktimaren jarrera eta berrelikadura. Biktimizazio zikloak deitzen direnak.
- Biktimaren babesgabetasuna eta arrisku faktoreen identifikazio eta ebaluazioa. Bunearabilitate pertsonalei buruz ari gara: arrisku indibidualak, psikobiosozialak, abildade sozialen gabezia, ezberdintasun kulturala, analfabetismoa, elbarritasuna edo heldutasun eza.

Bulnerabilitate erlazionalei dagokionez, botere ezberdintasuna izango dugu. Azkenik bulnerabilitate kontextuala babesgabetasun testuinguru biktimogeno batengatik ematen da.

- Azken ikerketan biktimizazio karrera ikertzen da. Bizitza poli-biktimizatueta abusu eta injustizia egoerak pilatzen dira.

Arrieta, V. autoreak (2014:289), Rodríguez Manzanera autorearean azalpenean zentratzen da:

“La exposición de las víctimas al proceso de justicia penal a menudo aumenta el trauma que sufren y acrecienta el sentimiento de desamparo y frustración, así como de resentimiento porque no se les ha ofrecido protección o recursos adecuados”.

Biktimizazio sekundarioaren inguruan lehenengo definizio bat emateko landrove Diaz autorean zentratzen da. Izan ere, biktimizazio sekundarioa sistema juridiko penalaren eta biktimaren arteko erlazioarengatik sortzen dena da. Justizia administrazioarekin edo poliziaren kontaktua edukitzeak, biktimek askotan denbora galtze sentimendua izaten dute edo beraien dirua xahutzen delaren sentimendua. Beste biktima batzuek sistemaren burokratizazioarengatik ez ulertze sentimendua bizitzen dute, eta askotan, alde batera uzten dute. Kasu batzuetan bereziki eta delitu batzuekin erlazionatuz, biktimak akusatuak bezala kontsideratu ahal dira (Arrieta, V., 2014).

Bigarren definizio batekin jarraitzeko Tamarit autorearena hartzen du kontuan. Hau da, biktimizazioa sekundarioa biktimak delitu bat jasategatik prozesu penalean izango dituen koste pertsonalak izango dira. Kontzeptuak ondorio traumatizatzaileak onartzen ditu; itaunketa polizia edo judizialak, mediku-forensearen ikerketa edota ahozko epaiketaren irantzailearekin kontaktua. Azkenik ezin ditugu komunikabideek sortzen dituen ondorioak ahaztu (Arrieta, V., 2014).

Moreno Herreraren arabera (2011), biktimizazio sekundarioa gehitutako biktimizazioa izango da. Normalean, estigmatizatu, errudun eta baztertua izaten da instituzioen aldetik (polizia, operatzaile juridikoak, asistenteak) edo marko sozialean (komunikabideak, komunitatea, biktimaren ingurugiroa). Kasu honetan biktimak ezinbesteko bi faktore sufritzen ditu:

- Biktima instrumentalizatzen da, beste helburu batzuk lortzekotan erabiltzen delako.

- Bazterketa soziala eta erruduntasun mekanismoak ematen dira: biktimaren ahultasuna dela eta sufritzen du, bere errua izango da. Drogazaleak, kultura ezberdinekoak eta prostitutak besteen artean hasieratik kondenatuak eta estigmatizatuak izaten diren pertsonak dira, hauen patroien inguruk.

Biktimizazio tertziarioa hiru elementu ezberdinekin erlazionatu da:

- Zigortuaren biktimizazioa eta gehiegizko egoera punitiboaren objektua
- Zeharka sufritzen duena (telebistako argazkiekin edo delitu biolento baten lekukoa izanik)
- Biktimizazioan bere identitatea behin eta berriro eraikitzeagatik sufritzen duena. Hauekin lanean ibiltzen diren laguntzaileak desbiktimizazio horretan lan egin behar dute edota biktimaren birgizarteratzen sozialean. Prozesu laguntzaile honek erresilientzian lan egin behar du (gaitasun eta indar berritzailean) eta biktima babesgabetasun horretatik.

2.3.2 Biktimaren rola gaitztea

Delitu baten gertaeraren ostean, biktimak rol bat onartzen du gizartean. Rol horrekin gizarteko beste kideek hura ezagutzeko balio izango du. Askotan, ondorio negatiboak ekar ditzakeenez, rol horren gaitztea delituaren ondorengo egoerei aurre egiteko erraztasunak egongo dira.

Echeburua, E. eta Saez, M. S. C. autoreen arabera (2015), ongizate ekonomikoko gizarte batean biktimak gizakiaren ahultasuna bezala ikusten dira. Gainera, gizarte krudelaren muga guztiak islatzen dira. Gizarteko pertsona baten eguneroko bizitza modu malkartsuan eta zentzurik gabe apurtu daiteke. Betidanik, biktimei ez zaie jaramonik egin edo alde batera utzi dira. Horren arrazoia, agresoreen indarkeriaren inguruan dugun interesa eta lilurari dagokio.

Gizartea biktimekin bat egin behar du. Gaur egungo antolamendu sozialak arriskuz beteriko gizarte bat sortu du non askatasuna segurtasunaren aurretik doan. Egoera honek abantailak izango ditugu baino baita arriskuak ere. Horren ondorioz, talde soziala biktimak babestu ez dituzenez, biktimekin bat egiteko obligazioa izango du. Beraz, gizarte baten maila morala biktimei emandako tratua arabera neurtu daiteke.

Errukiak ez du besteen nahietara egokitzea soilik ekartzen, baizik eta gizarteko kideak subjektu moral bezala osatzen ditu. Biktimak errealitate baten parte dira, nahiz eta gizarteko kide askok beste batzuei bakarrik gertatzen zaiela pentsatzen duten. Hauen arabera, kalteak jasotzen ditu kalteak sortzen dituenak. Hau da, biktimak zeozer egin du berak hori jasan ahal izateko (Echeburua, E. eta Saez, M. S. C., 2015)

Indarkeriaren biktima izan diren pertsonen ezaugarri nagusia errugabetasuna da; izan ere, indarkeria sufritzearen bidegabeko pairatzea. Nahiz eta biktimak zigortutako jarduerak burutu, biktima bilakatzen duena jasan duen indarkeria irrazionala izango da. Gizartean indarkeriaren ondorioz kaltetuak izan diren biktimen agerikotasun sozialak, errekonozimendua eta kontsiderazio garrantzitsua ematen die.

Agerikotasun sozialaren aliatu nagusia komunikabideak dira, telebista bereziki. Baina, alde batetik izango dugu biktimaren presentzia soziala zeinak justizia jarduera bat erakutsiko duen. Bestetik, biktimen azalpen mediatikoa izango dugu, kasu batzuetan hauengatik burutua (komunikabideen erabilera faltua egiten bada). Honek askotan biktimen ospea desagertzea edota biktimak ez entzuteak ekartzen du. Hala ere biktimak, injustiziaren erreparazioarako baliagarriak dira.

Echeburua, E. eta Saez, M. S. C. esanetan (2015), biktimak lehenbailehen biktima izateari utzi behar diote. Biktima izatearen rola, kardiopatia bat izan duen pertsonak biktima izateari uzten dion bezala. Biktimak egoera iragankor bat bizitzen du eta rol iragankor bat bereganatzen du. Biktimaren identitateak dolua luzatzen du. Ez da biktima zeharo, pertsona baizik. Beraz, biktimaren egoera gutxi gora behera iraunkorra (erreparazio desegokiaren ideia, legeak ezartzen duena baino haratago joatean eskakizuna, mendeku nahia, arau legislatibo eta penaletan eragiteko exigentzia), biktimizazio prozesuarekin bat egiten du.

Egoera traumatiko baten erantzuna egokitzea izan daiteke (kaltea minimizatzeke nahia, jakinda bizitza ez dela aurreko egeorara bueltatuko) edota kaltegarria eta suntsikorra egoera traumatikoa bi izan duen pertsonarentzako.

Beraz, biktimak dituen zenbait sentimendu irrazionalekin akabatu behar da, etsaiaren eraiketarekin bezala. Biktimaren estatusa ezin da pertsona baten identitatearen parte izan.

Pertsona batentzako biktimaren identitatea eramateak, mina sortu dezake, pisutsua izan daiteke, beldurra izaten jarraitu dezake eta gorroto eta mendeku sentimenduan izan ditzake. Biktimak bizitzen duen estatusari dagokionez, errudun bat bilatuko zaio, erreparazio totala ez da lortuko eta horrek ez asetze iraunkor batera eramango ditu biktimak (Echeburua, E. eta Saez, M. S. C., 2015).

Biktima baten jarreran osasuntsua oroitzapena emozionalki modulatzeko datza, ez lurperatzean. Ahazte on bat gertatu ahal izateko, memoria ona izan behar dugu. Horrela bakarrik, egoera traumatiko bat bihurtu daiteke iragana. Hala ere, ezin da ahaztu oroitzapenak gauza bat direla eta egoera berriz bizitzea beste egoera bat.

Ondorioz, indarkeriazko delituak gizakiaren segurtasuna apurtzen eta kolokan jartzen du. Istripu natural baten ondorioz biktima izan diren pertsonak etsimendu sentimendua bereganatzen dute, beste gizaki baten ondorioz indarkeria delitu baten parte izan den pertsonaren kasuan, sentimendu hori ez da posible izango.

Echeburua, E. eta Saez, M. S. C. (2015) autoreen arabera biktimizazioak, biktima etapa hori derrigorrez ezabatzerantz behartu du: biktimak bizitzeko zituen baliabideak orain ez zaizkio balio. Helburua hurrengo fasera joatea da: helburu pertsonal berrien berreraiketa fasera.

Biktimek ezin dute eta ez dute iragana alde batera utzi behar baino ezin dira ezta bertan geratu behar. Kalte baten sufrimenduarekin bukatu behar da zaurik faltzuki ez itxiz. Ondorioz, biktimek bizitza berri bat bizi izatea da helburua eta ez aurreko bizitza horretan bizirik irauntzea. Beti etorkizunera begiratu behar da, horregatik bizirik irten direnei buruz hitz egitea okerra da.

2.3.3 Prebentzio biktimala

Prebentzio biktimala delitu guztietan ezinbestekoa den elementu bat izango da. Moreno Herreraren arabera (2011), ez da bakarrik biktimaren asistentzian zentratu behar baizik eta gizarte osoaren asistentzian. Horregatik, prebentzio biktimalaren zeregina ezinbestekoa da.

Prebentzio biktimal primarioa: sentsibilizazio estrategiak eta kontzientzia soziala gizarte osoari bideratuta. Ezinbestekoak dira baina hauen erabilera kontu handiz erabili behar da gizartean gizabidezko alarmerik ez sortzeko.

Prebentzio biktimal sekundarioa: zaugarritasun faktoreak izaten dituen pertsonen zuzenduta. Biktima hauek berriztu, informatu eta hortaz aparte aurre egiteko gaitasunak errazten zaizkie. Honen gehiegizko erabilerak biktima erantzule edo estigmatizatu bihurtu dezakegu.

Prebentzio biktimal tertziarioa: biktimizatua izan den pertsona batek berriz biktimizazio sufritzeko aukerak ditu. Ezaugarri berdinak mantentzen baldin badira, delitugileak biktima berdinean berrerortzeko aukerak ditu, ezaugarri horiek ezagutzen dituelako eta horiekin arrakasta izan duelako. Estrategia hau berbiktimizazioa ekiditen du; bertan, egoera pertsonalak berritzeko tresnak eskaintzen dira biktimarioak aldatuta burutzeko (Moreno, H, 2011).

2.4 Biktima-Biktimologia eta gizartea

2.4.1 Biktimologiak gizarteari eta gizarteak biktimologiari ematen dizkion ezagutzak

Biktima-biktimologiak gizartearekin duen zerikusia aztertzea ezinbestekoa da. Biktimologiak gizarteari eman dizkion ezagutzak bakarrik ez dira aztertu behar, hau da, gizarteak ere biktimaren eta biktimologiaren inguruko irudia eta iritzia aldatzen lagundu du. Beraz, bata besteari ematen dizkio ezagutzak aztertzea ondo legoke.

Malvido, L. eta De la Luz, M. autoreen esanetan (2012), Jeremias Bentham eta Raffaele Garofaloren agerpenarekin biktimarenganako interesa handitzen joan zen, hala ere, 1941. Urtean Hans Von Henting-ek “Remarks of the Interaction Perpetrator and Victim” artikuluekin “biktima” eta “delitugile” kontzeptuen inguruko hausnarketa bultzatu zuen.

Biktimologiaren Lehenengo Symposium-ak, biktima, biktimologia, delitugile eta hauen arteko erlazioaren arteko eztabaida ekarri zuen. Aurrerapen honek, Biktimologia Kriminologiatik aldentzea eta zientzia autonomoa bihurtzea ekarri zuen. Pixkanaka-pixkanaka, ikerketa propioa aurkitu eta objektu, metodo eta helmugak ezartzen hasi ziren.

Ikuspuntu zientifiko biktimologikoak erreakzio penalean dimentsioak berriztea ekarri du; horrela, biktima zuzenei eta ez zuenei kalteak konpontzeko mekanismo berriak barneratu dira.

Biktimologia, Kriminologiatik aldentuta, biktimari metodologia, kontzeptu, teknika eta harraminta gehien ematen dizkiona izango da. Biktimologiaren ekarpen berri hauek politika ezberdin bat diseinatu ahal izateko ezinbestekoa da (Malvido, L., & de la Luz, M., 2012).

Denboran zehar, gobernuek gaiaren inguruan arduratzen hasi ziren, ez bakarrik delituak ikertzeko, zigortzeko eta birgizarteratzeko, baizik eta biktimaren berme eta beharrei aurre egiteko, Justiziarekiko bide ezberdinak sortuz. Beste alde batetik, gaur egun gizartea askoz barneratuago du biktimaren kontzeptua eta mekanismo ezberdinetan parte hartu nahi du. Honek Estatuak segurtasuna eta justizia egokia ematea bermatzen du.

Gaur egun, gaiaren inguruan egin diren praktikei esker, printzipio estandar batzuk sortu dira “delituen biktimenzako justizia” bermatzen dutenak (Malvido, L., & de la Luz, M., 2012).

Kontzeptu berrien agerpenekin, Malvido, L. eta De la Luz, M. autoreen arabera (2012), biktimek sufritzen dituzten jardueren analisiarekin Justizia Biktimalki garatzea ekarri du. Honekin, kontzeptu eta ekarpen berriak agertu dira zeinak lan biktimologikoak bide berriak sortzen dituzten.

Herrialdeek edozein biktimak justizia egikaritzeko aukera izateko, bide biktimologiko orokorrak garatu behar dituzte. Ez da sexua, urteak, talde etnikoa, herritartasuna eta egoera juridikoa kontuan hartuko, edozeinek egikaritu ahalko du.

Aurrerago, zerbitzu ezberdinak espezializatzen joango dira; hau da, biktima bakoitzak behar dituen beharrei egokitu behar da. Nazio Batuen parte diren herrialde ezberdinek obligazio bat izango dute; izan ere, herrialde bakoitzak dituen araudi eta legeak biktimei egokituta egon behar da eta gainera, bertako profesional eta boluntarioak gaitasunez hornitu behar dira atentzio establezimenduek arreta egokia eman dezaten (Malvido, L., & de la Luz, M., 2012).

Adibidez, tratako biktima batentzako babesaren ezinbestekoa da azken finean delitua talde organizatu baten partetik ematen delako. Berak salatzerakoan zerbitzu batek bere eskubideen inguruan informazioa emango diola eta gainera behin-behineko alojamendu bat izango duela jakin behar du. Halaber, autoritateei komunikatuko zaie biktima honen egoeraz eta hauek biktima bere herrialdera bueltatzeko baimena eman beharko dute. Ez ematekotan, beti legeak esaten duenaren arabera, babesleku bat eman beharko zaio. Hortaz aparte, biktimak batek herrialde horretan dituen eskubide guztiak bermatuko zaizkio.

Beraz, adibide honekin biktima espezifiko batzuekin erabiltzen den zerbitzuaren konplexutasuna ikus dezakegu. Zerbitzu hauek “kalitate estandar” batzuk ez edukitzearen arrazoia bilatu behar dugu, hortaz aparte gobernuari kezkatu beharko dion egoera bat da. Gainera, gizarte bezala kalitatezko zerbitzuak edukitzea eskatu beharko genuke (Malvido, L., & de la Luz, M., 2012).

Biktima mota bakoitzarentzako arauak eta prozedimenduak ezagutzen dituen espezialistak behar ditugu, hauek beharrezko protokoloak sortu eta aurrera eramango dituzte. Beraz, ezinbestekoa izango da elkarlana zerbitzuek jardura egoki bat aurrera eraman dezaten eta ezinbestekoa izango da ere kontzeptu hauen sorkuntza (Malvido, L., & de la Luz, M., 2012):

ZUZENBIDE BIKTIMALA

Printzipio, balore, araudi, prozedimendu juridiko lokalen, nazionalen eta internazionalen multzoa da zeinak delituen biktimen nahiak kontrolatu, galdatu eta ahalbidetzen dituen. Ondorioz, zientzia honetara hurbildu behar gara; izan ere, zientzia honek jardura eta ekintza juridikoen igorle eta hartzaile bihurtzen ditu. Hau, estatuaren eta biktimaren arteko erlazioa delinearaz ditu.

ZUZENBIDE BIKTIMALAREN ZATI OROKORRA

Zuzenbide biktimalaren zati orokorra, printzipio eta arau juridikoen multzoa da eta honek, delituaren biktima eta boterearen abusuaren biktima denaren bermeak babesten ditu.

ZUZENBIDE BIKTIMALAREN ZATI BEREZIA

Zuzenbide biktimalaren zati berezia, arau juridiko, prozedimendu eta protokolo espezializatuen multzoa da eta honek, sufritu izan duten kaltearen arabera, biktima mota, talde edo komunitateari kalitatezko arreta ematen zaio.

JUSTIZIA BIKTIMALAREN KONSTENLAZIOA

Autore bakoitzak bere liburuan biktimologiak beste disziplina batzuekin erlazioa duela aipatzen du, bereziki “Zientzia Penalak” izena dutenekin. Arazoak konpontzearen eta baita zientzia guztien lan interdiziplinarraren beharrezkotasuna ere ezagutzera eramaten du.

Malvido, L. eta De la Luz, M. autoreen testuaren arabera (2012), Mariano Ruiz Funes-ek Zientzia Penalen Entziklopedia bat sortu zuen, honek zientzia ezberdinak hartzen zituen kontuan eta jarduera antisozialen eta arauen ikerketaz kargu egin zen. Eskema, autore ezberdinen arabera bete da eta hurrengo da:

- Lehenengo taldea: zientzia kriminologikoak: Kriminologia, Antropologia Kriminala, Biologia, Psikologia, Soziologia, Kriminalistika, Biktimologia eta Penologia.
- Bigarren taldea: zientzia hitoriko.filosofikoak: Historia, Filosofia eta Zientzia Penalak.
- Hirugarren taldea: zientzia juridikoak: Zuzenbide Penala, Zuzenbide Prozesal Penala, Zuzenbide Penal exekutiboa, Poliziaren Zuzenbidea eta Zuzenbide Biktimala.
- Laugarren taldea: zientzia medikoak: Medikuntza Forensea, Psikiatria Forensea, Metodologia eta Politika Kriminologikoa.

Biktimologiaren lehenengo ikerketa zientifikoek tipologia berriak eman zituzten; honek biktimen jarrera eta zaurgarritasuna aurkitzea ekarri zuen.

Tipologiak ikerketa zientifikoaren mailaren arabera garatzen dira, objektibo ezberdinekin. Biktimologiaren kasuan hauek dira onartzen dituzten herramintak (Malvido, L., & de la Luz, M., 2012):

- Biktimizazio fenomenoaren ikerketa
- Indibidualtasuna oinarritu delitugileak zigortuz

- Biktimentzako interbentzio estrategiak
- Talde biktimalen beharrak eta zaugarritasunak antzeman
- Programa biktimologiko bereziak estrukturatu
- Arrisku taulak egin
- Delituak sortu dituen ondorioen arabera tratamendu bereziko programak planeatu (estres post traumatikoa)
- Faktore biktimalen (arriskuzko) ikerketak burutu biktima taldeen arabera

Analisi eredu berriei dagokionez, 1960. urtean Estatu Batuetan ezarri ziren biktimizazio inkestak, Biktimologian ekoiztu diren harramintarik garrantzitsuenak dira. Horren ostera, mundu guztiak ezartzen eta erabiltzen da eta honek, kriminalitatearen berezko zifra eta zifra beltza estimatzen laguntzen digu (Malvido, L., & de la Luz, M., 2012). Kriminalitatearen eta Biktimizazioaren inguruko Inkesta Internazionalak estatistika ofizialek ematen dituzten erantzunen urritasunak gainditzen laguntzen du eta herrialdeekin konparatuz neurri ezberdinak atzeman daitezke.

Anna Alvazzi soziologak, ONU-ko UNICRI-ko langilea, Biktimizazioaren Inkesta Internazional bi (1992), hiru (1996) eta lau (2000) koordinatu eta zuzendu zituen.

Herrialde batzuetan, biktimak gero eta gehiago dira, bereziki Latinoamerikan. Hala eta guztiz ere, nahiz eta Biktimizazio Inkestak egon, estrategiak eta lehentasunak planteatzen dituen, ez dira beharrezkoak diren segurtasunaren eta justiziaren inguruko erabakiak hartzen.

Vienako bulegoak oinarritzko herramienta metodologiko bat sortu zuen, hau da, inkesta hauek erabiltzeko Biktimizazio eskuliburua. Eskuliburu honek, ildo metodoloikoak ematen dizkigu eta inkesten erantzunak ulertzeko balioko digu.

Herrialde ezberdinen arteko irizpideak, inkestak eta prozedimenduak erabiltzea ezinbestekoa izango da. 27 herrialdeetan jada inkestak aplikatzen dira eta bakoitzak ezberdintasunak izango ditu zeinak arazoak konparatzeko aukera emango duten.

Biktimologia zientzia bat izateaz aparte, mugimendu sozial bat bada ere. Mugimendu sozial bat dela esaten da, zientifiko eta irakasle askok biktimizazio zuzena edo zeharkakoa bizi izan zutelako. Bizipen hauek, hurrengo belaunaldiek ekarpenak ikusi ahal izateak ekarri zuten (Malvido, L., & de la Luz, M., 2012).

Historian zehar biktimologo asko egon direla argi dago baino bereziki Antonio Beristain irakaslearekin lan egin zuten batzuk aipatuko dira (Malvido, L., & de la Luz, M., 2012).

Irenek paper garrantzitsua izan zuen biktimaren inguruan ONUk eman zituen erabakien proposamenekin. Ireneren esperientziak Justiziaren eskuliburua osatzeko testuak eman zituen eta honek, Delituen Biktimetan eta ONUren Botere Abusuen parte diren pertsonetan Justiziaren Oinarrizko Printzipioak aplikatu ahal ziren.

Hilda Marchiori, irakasle argentinarrek Kriminologiaren ideiak eta kriminologiaren kontzeptua sartu zituen Mexikon, eta beranduago, delituen biktimetzako egindako arreta zentro bat eraiki zuen, biktima guztiak anparatzen zituenak.

Esther Kosovski, Biktimologian aditua, Brasilen delituen biktimak ziren emakumeentzako polizia estazio bat sortzen lagundu zuen. Gainera, Rio de Janeiroko “Septimo Symposium Internacional de Victomologia”-ren anfitrioi izan zen.

Danieli, ONG-aren “Alianza de Prevencion del Delito y Justicia Penal”-ren presidentia izan zen. ONU-k Botere Abusuen eta Delituen Biktima direnentzako sortu ziren Oinarrizko Printzipioen adierazpenarentzako beharrezkoa zen Justizia eskuliburua egin eta osatu zuten part-hartzaileetariko bat izan zen.

Seguraski, beste zenbait emakume eta gizon falta dira Antonio Beristainekin lan egin dutenak. Hala ere, hauek izango dira besteen artean bereziki Biktimologia garaikidearen historiaren lagundu izan dutenatarikoak.

2.4.2 Biktima izatearen ondorioak

Águila Gutiérrez, Y., Hernández Reyes, V. E., & Hernández Castro, V. H. autoreei dagokionez (2016/704-705), indarkeriak zeinu eta sintomak eremu ezberdinetan manifestatzen da. Efektuen eremuak: depresioa, suminkortasuna, antsietatea, beldurra, disforia (umore txarreko sentimendua, ahozko agresibitatea edo fisikoa).

Efektu psikologikoan: lo nahastea, anorexia, enuresia, bulimia, takikardia, disfuntzio menstrualak, gizonetan disfuntzio zutikorra, hoztasun eta inpotentzia. Eremu

kognositiboa: memorian asaldurak, amnesia, arreta gabezia, kontzientziaren asaldurak.
Eremu fisikoa: kolpeak, erredurak, makadurak, zauriak, hausturak, urradurak.

2.5 Politika sozialaren neurriak

Llamas, Carmen autorearen arabera (2011), politika sozial guztiak juridikoki egiten dira, maila normatibo eta instituzionalean. Hortaz, biktimentzako babesa eta asistentzia tresna politiko-sozialak bi zentzutan burutzen dira:

- Delitua onartzen den eta biktima errekonozitzen den erabaki judiziala eman ostean inplementatzen dira.
- Ordenamendu juridiko, estatal eta autonomikoan oinarritzen dira jarduteko.

Jarduera juridikoa burutu ahal izateko, biktimetan egingo den esku-hartze politiko-soziala hurrengo tresna batzuen arabera izango da: informazio eta orientatze soziala, arreta psikosoziala, laguntza sozial eta ekonomikoak eta bitartekaritza penala.

1. Informazio eta orientatze soziala

Llamas, Carmen autorearen arabera (2011), Arreta primarioaren zerbitzu soziala delituen biktima izan diren pertsonen laguntza eta babesa emango dien sistema publikoa da. Biktimaren kasuaz arduratzen dira edota protokoloaren arabera eta profesionalak eman duen balorazioaren arabera, instituzio espezifikoetara eramaten dira. Bien bitartean, biktimak dituzten eskubide eta beharrei buruz informatu eta orientatuko dira biktimentzako sortu izan diren zentro espezifiko batzuen bitartez.

Azken urteetan, delituen biktima izan diren pertsonentzat informazio eta aholkularitza ematen duten bulegoak sortu dira. 2006. Urtetik, 46 bulego aurki ditzakegu Espainian; bereziki Balentziako eta Bartzelonako Delituen Biktimentzako Bulego Arretak. Instituzioen lana era askotakoa da; izan ere, biktimak babestu edo anparatu eta laguntza ematen zaie. Bulego hauek bereziki etxeko indarkeria jasan duten pertsonen arreta berezia eskaintzen zaie. Oinarrizko jarduerari dagokionez, biktimak salatzerako orduan (biktimak prozesu judizialaren parte izanik) dituzten ezinbesteko eskubideei buruz aholkatzen zaie eta baita egon daitezkeen helegiteei buruz ere.

2. Arreta psikosoziala

Llamas, Carmen autorearen arabera (2011), arreta psikosozialaren lana laguntza personal, familiar eta komunitarioan datza. Pertsonen integritate emozionala osatzen eta baita sare sozialak ere. Gainera, psikoterapia indibidualaren bitartez esku-hartze asistentziala ematen da, talde psikoterapia eta familia terapia; delituen biktima izan diren pertsonen osasun fisiko, mental eta soziala errekuperatu nahian.

Arreta hau eskumen publikoetatik (nagusiki eremu autonomikoetatik) edo pribatuetatik (legeak onartutako asosiazioen aldetik) Zerbitzu Sozialek ematen dute. Urteetan sortu diren legeen bitartez, biktimengan emango den esku-hartze soziala bideratzeko oinarrizko protokolo bat sortu da. Elementu hauek bereziak izanik:

- a) Oinarrizko errektoreak: hurbiltasuna, berehalakotasuna, itxaropena, sinpletasuna, batasuna.
- b) Helburuak: arazoan identifikazioa, behar nagusien estaldura, errekurtsoen balorazioa, gaitasuna sozialen irakaskuntza eta sustapena, errealtate onarpena, sintomatologia grinatsuaren murrizketa.
- c) Lanak: balorazio eta diagnostikoa, informazioa, terapia psikosozial indibidualaren diseinua eta exekuzioa, komunikazioa eta laguntza.

Arreta psikosozialaren funtzio espezifikoei dagokionez (Llamas, C., 2011):

1. Arreta zuzena: balorazio edo orientatzen indibiduala, talde arreta, haurtzaroon izandako tratu txarren prebentzio programak, autolaguntza taldeak, gaitasunen berreraikitzen programak, kompetentziak eta errekurtsuak.
2. Komunitate dinamizazioa: ehun sozialaren sentsibilizazio eta berreraikitzea.
3. Ikerketa: prospekzioen burutzea, delituen kausa, ondorio indibidual eta sozialen ikasketa eta lan ikerketak.
4. Planifikazioa: ikerketaren kompetentzien estruktura lortzeko lanaren planifikazioa eta programazioa (gizarte hartzailea, helburuak, zerbitzuen sortzea, errekurtsuak, etab.)
5. Programen ebaluazioa: esku-hartze ikerketen eraginkortasuna eta efizientziaren analisia, erabakiak hartzeko eta jarduera profesionalaren hobekuntzak emateko.

3. Laguntza sozial eta ekonomikoak

Llamas, Carmen autorearen esanetan (2011), laguntza ekonomikoek ez dute delituaren biktima izan den pertsona baten behar guztiak asetzen. Laguntza sozialen artean, biktimari asistentzia, babesa eta izango dituen laguntza edo neurriei buruz informatzea izango da bereziki.

Horrelako egoerak ematen direla eta, oinarri material eta asistentziala dituzten laguntza sozialak garatu dira; hauek, Zerbitzu Sozialen administrazioetik lortu ahal izango dituzte. Prozesu honetan, biktimen onurarako egin diren jarduerak bereziki garrantzi soziala dutela azpimarratu da. Hortaz aparte, delituaren ondorioz babesa behar duten pertsona xumeengatik egiten diren jarduerak ere kontuan hartzen dira.

Legearen arabera, indarkeriazko biktima edo sexu askatasunaren kontrako delitu bat jasan izanagatik ezgaitasunean modu iragankor edo iraunkorrean geratzen diren biktimei laguntza ekonomiko bat emango zaie. Gainera familientzako, biktima zuzenak ez direnentzako ere laguntza ekonomikoak aurreikusten dira betiere delituaren ondorioz biktima zuzena hil baldin bada.

4. Bitartekaritza penala

Bitartekaritza penala ideologia berri batean kokatzen da; hau da, Justizia Berriztatuan. Ideologia honek, delituan inplikatuak egon diren “jabeak” kontsideratzen ditu, baita egoera konpontzeko trebeak ere (Llamas, C., 2011).

Bitartekaritza penala, zenbait kalte material eta moral konpontzeko sortutako hezkuntza sozialaren inguruko esku-hartze tresna da. Egoera honetan, biktimek izan ahal dituzten zailtasunak eta izango dituzten arazo psikosozialak gainditzen laguntzen da eta eskubideak dituztela ezagutarazi eta exekutatzeko laguntzen da. Delitugile-biktimaren gatazkan konponbide bat bilatzen saiatzen da bitartekaritza penala. Honek, kalte moralaren konponketa baimendu dezaken, erantzukizuna, delitugilearen birgizarteratzea eta ehun sozialaren berreraikitzea ere.

Llamas, Carmen autorearen arabera (2011), Espainian bitartekaritza penala garatzen Joan da, bereziki, adingabeen esku-hartzeetan.

Nahiz eta oraindik araututa ez egon, Madril-en, Katalunian eta Errioxan programa pilotu batzuk garatu dira zeinak helduetan praktikan jartzeko intentzioa egon den. Gaur egun, bitartekaritza penalaren jarduera gatazken konponketaren aldizkatze bezala, bi zentzutan ulertu daiteke:

1. Biktimaren konponketarako esku-hartze tresna bezala ezagutzen da. Hemen delituaren autore eta biktimaren arteko uztartzea emango da eta prozesu judizialak ekar ditzakeen ondorio negatiboak saihestuko dira.
2. Sentsibilizazio indibidualaren alternatiba bat bezala ezagutzen da zeinetan delitugileari bere delituak sortu dituen ondorioak eta erreakzioak erakusten zaizkion.

Ondorioz, bitartekaritza penala elkarrizketa, komunikazio eta negoziazio prozesu bat bezala definitu daiteke, doakoa, konfidentziala eta boluntarioa biktima eta delituaren artean. Egoera hau bitartekari inpartzial batek eramango du aurrera eta helburua akordio batera iristea izango da. Justizia tradizionalaren sistema aldizkako bat izango da; alde batetik, denbora eta esfortzua aurrezten du, eta bestetik, konponketa mekanismoetara hurbiltzen da gizartea, honekin “bake kultura” sortzen da. Alderdiak beti izango dute alderdi judiziala zabalik bitartekaritza penalarekin bukatu nahi baldin badute.

Bitartekaritza penalak hiru helburu planteatzen ditu esku-hartze sozial bezala (Llamas, C., 2011):

1. Biktimaren konponketa material eta morala, honek gatazkaren konponketan parte hartu dezake. Entzuteko, bakea eta lasaitasuna lortzeko aukera eta zuzenean edo zeharka izan dituen kalteen ordaina jasotzeko aukera izango du.
2. Justizia errekurtsoen sustatzea. Gatazkak konpontzeko metodo alternatiboak, eraginkor eta hurbilak, gizartea prozesu penaletan sartzen da, neurri judizialak optimizatzen dira eta justiziaren eremutik bake soziala suspertzen da. Konponketa alternatiboak Auzitegien arintzea dakar eta errekurtsu gizatiar eta fisikoen erabilera bultzatzen da; hau da, prozedimendu ekonomiko, eraginkor eta bizkorrago bat.
3. Bizikidetasun komunitarioa indartzen da. Gizartea autokonponketak erabiltzen dituen metodo alternatiboetara hurbiltzen da. Bestetik, justiziaren eta komunitatearen arteko interrelazioa, justizia hiritarrari hurbiltzen.

Bitartekaritzak prozesua baliozkotatzen duen ezaugarriak izateko aurretik baldintzatzaile batzuk existitu behar dira:

- Biak borondatez jardutea. Adingabea denean borondatea bere gurasoen edo arduradun legalaren onarpenarekin bat egin behar du.
- Delitugileak delituaren erantzukizuna onartu behar du
- Delituaren oinarrizko jardueretaz arduratu behar da, delitu larriak zein ez hain larriak direnak.

Gaur egun, genero indarkerian bitartekaritza penala erabiltzeko debatea sortu da. Hala ere, Lege Organikoaren 1/2004 44. artikulua araberan, alternatiba honek ez du leku bat genero indarkerian.

2.6 Biktima prozesuan

2.4.1. Biktima eta zuzenbide penala

Cardenas autorearen arabera (2012), zuzenbide prozesalaren joera berriek biktimak zuzenbide eta prozesu penalean protagonista bezala ezagutzea lortu dute. Honen aurrerapena Kriminologia Modernoari esker lortu du eta baita zientzia berriekin ere: biktimologia. Delitua estatuaren eta prozesatuaren arteko erlazio juridikoa dela bakarrik kontuan hartu gabe, biktima izango da kontuan hartuko duten beste subjektua, bereziki prozesu penalaren pertsonai garrantzitsua dena.

Delitu bat gertatzerakoan, delitu horren konponbidearen bidean, sistema akusatzaile berri honetan biktima ezinbesteko protagonista izango da. Kode prozesalean biktimak esku-hartzeko aukerak mugatuak ditu; hau da, informazioa eta probak emateko aukera. Sistema akusatzaile berri honetan, biktimaren eskubideak, gaitasunak eta parte-hartzea nolakoa izango den ezarri behar da.

2.4.2. Doako laguntza juridikoa

Eusko Jaurlaritzak¹ (2018), doako laguntza proposatzen du biktimiek prozesuan laguntza izan dezaten. Doako laguntzari buruz ari garenean, edozein pertsonak, auzitan

¹ <https://www.euskadi.eus/justicia-gratuita-en-que-consiste/web01-a2justic/es/>

ibiltzeko errekurtsorik ez duenak, justizia egikaritzeko izango duen doako aukera izango da, betiere legeak horrela adierazten baldin badu

Doako Asistentzia Juridikoa eskatzen duenak, Eusko Jaurlaritzak bere prozedimendu judizialarentzako diru-laguntza bat eskatzen egongo da. Diru-laguntza honek abokatua, prokuradorea, peritua, aldizkarien berriak, etab.

Azkenik, kontuan hartu beharko da doako Asistentzia Juridiko hau prozedimendu judizial konkretu batentzako eta ez beranduago sortu daitezkeen beste prozedimentuentzako.

Doako Asistentzia Juridikoaren onuraduna izateko baldintza ekonomiko eta juridiko batzuk bete behar ditu:

a) Ekonomikoak

- a. Eskatzailearen familiak (ezkontidea eta adingabeak) izango dituen diru-sarrerak ezingo dute Lanbidearteko Soldata Erdia baino gehiago izan.
- b. Gaitasun ekonomikoak ez dituelaren susmoa (etxea, autoa, inbertsioak, etab.)
- c. Bizitza baliabideak bermatu behar dira, azken finean lehen mailako gastuak direnei aurre egin behar zaielako (ezkontideraren soldata edo berea, laguntza publikoak, familia laguntzak, aurrezkiak, ekonomia murgildua, etab.)

b) Juridikoak

- a. Hasi berri dagoen prozedimendu judizial bat existitu behar da
- b. Abokatu edo prokuradore baten esku hartzea ezinbestekoa da.
- c. Prozedimendu judizialean interes familiarrak (ezkontidearen salaketa bestearen aurka, seme-alaba baten salaketa, etab.) existitzen baldin badira, prozedimendu judiziala aurrera eraman nahi duen pertsonaren baldintza ekonomiko indibidualak kontuan hartu daitezke.

Doako Asistentzia Juridikoa, Orientatze Zerbitzu Juridikoan eskatzen da, prozedimendua hasi nahi den lekuan izan behar da; hau da, nahiz eta beste leku batetan bizi, herri bateko leku baten inguruko prozedimendua hasi nahi badu, leku horretako Orientatze Zerbitzu Juridikoan egin beharko du.

Gure Euskal Autonomia Erkidegoan, Orientatze Zerbitzu Juridikoak Bilboko, Donostiako eta Gasteizko Justizia Jauregian aurki ditzakegu. Korreo eta Dekanotza Epaitegiaren bidez ere eskatu dezakegu.

Orientatze Zerbitzu Juridikoak behin-behineko informe eta erabaki bat ematen du. Behin-betiko bihurtzeko edo baliogabetzeko, Doako Asistentzia Juridikoaren batzordeak egin beharko du.

Behin-betiko erabakiarekin ados ez egotekotan, helegite bat tarteratu beharko da Prozedimendu judiziala emango den epaitegian edo Dekanotza Epaitegia prozedimendua hasi ez baldin bada.

2.4.3. Biktimaren eskubideak

Pertsona bat delituaren biktima bilakatzen denean, eskubide batzuk izango ditu eta beti bermatu beharko zaizkio. Legeek ezartzen dute zeintzuk izango diren biktimarekin emango diren prozesuak, hala ere, hauek izango dira bermatu beharreko eskubideak delitua gauzatzekoan.

Isa, F.G. autorearen arabera (2006), eragindako kaltearen konponketa emateko obligazio eskubide garrantzitsu bat bezala kontuan hartzen du. Esan genezake, zuzenbide internazionalako oinarritzko printzipioetariko bat dela. Izaera sekundarioa duen behar baten aurrean gaude; izaera primarioa estatuak duen konpromiso juridiko internazionalaren betetzea izango baita.

Estatuak konpromiso horiek betetzen ez dituenean bi betebeharrak sortzen dira; al de batetik, urratzearen etetea eta jarrera hori errepikatuko ez delaren bermea. Bestetik, sortutako kaltearen erreparazioaren betebeharra. Bi betebeharrak hauek Estatu Batuen zuzenbide internazionalaren batzordeak sortutako Artikuluen Proiektuan biltzen dira.

Jarraitzeko, Giza Eskubideei buruz 63.1. artikulua Hitzarmen amerikarrean agintzen duena kontuan hartu beharko litzateke; hau da:

“cuando decida que hubo violación de un derecho o libertad protegidos en esta Convención, la Corte dispondrá..., si ello fuera procedente, que se reparen las consecuencias de la medida o situación que ha configurado la vulneración de esos derechos y el pago de una justa indemnización a la parte lesionada” (Isa, F.G., 2006:17).

Giza Eskubideen Gorte Interamerikarraren arabera, artikulua honetan aipatutakoa Zuzenbide Internazionalaren oinarriko printzipioetariko bat da, jurisprudentziak aitortzen duen bezala.

Autore honek aipatzen duen beste oinarriko eskubideetariko bat kaltea konpontzeko obligazioa azpimarratzen du. 90ko hamarkadatik biktimen eskubideen bortxaketarako formulazio egoki bat bilatzen ari da. Erreparazioarako eskubidea, ez dago zuzenbide internazionalan guztiz aitortuta. Giza eskubideak, maila unibertsalak edo erregionalak atzematen dituen tresna internazionaletatik ematen da eskubide hau.

Hala eta guztiz ere, biktimaren giza eskubideak bortxatzean biktima babestuko duen legerik ez dugu aurkituko. Erreparazioarako eskubidea bi oinarriren arabera emango da; alde batetik, Estatuak errespetatzeko eta giza eskubide internazionalen arauak aplikatzearen onartzeari, eta bestetik, eskubideen bortxaketak ematen direnean biktimek izango duten konponbide eraginkorra (Isa, F.G., 2006).

Bestalde, errespetatzeko eta giza eskubideen arau internazional aplikatzeko eta errespetatzeko obligazioa izango dugu. Eskubide zibil eta politikoan Pakto Internazionalak hau aipatzen du bere 2.1. artikuluan:

“cada uno de los Estados partes en el presente Pacto se compromete a respetar y a garantizar a todos los individuos que se encuentren en su territorio y estén sujetos a su jurisdicción los derechos reconocidos en el presente Pacto...” (Isa, F.G., 2006)

Antzeko xedapenak, hau da, Giza Eskubideen Hitzarmenak (1950), Giza Eskubideen Hitzarmen Amerikarrak (1969) eta Tortura, Tratu txar, Zigor Krudel, anker edo Umiliagarriaren kontrako Hitzarmenak ere onartzen ditu.

2005. urteen onartutako Printzipio eta Ildoen arabera, errespetatzeko obligazioa eta Giza eskubideen arauak aplikatzea eta errespetatzearen obligazioak beste hauek barne hartzen ditu:

- Bortxaketak saihestu ditzakeen disposizio legegile, administratibo edo beste izaera bat eduki dezakeen edozein disposizio hartzen ditu.
- Bortxaketaren inguruko ikerketak eta kasu hauetan arduradunak izango direnen kontrako neurriak ezartzearen ardura.
- Giza eskubideak urratu zaizkion biktimak justizia eraginkor bat izateko bermea
- Biktimei errekurso eraginkorrak eta erreparazioa emateko aukera.

Beste oinarrizko printzipio bati dagokionez, errekurtsio eraginkor bat izateko eskubidea izango dugu. Printzipio hau eskubide zibil eta politikoen Pakto Internazionalaren 2.3. artikuluan aurki dezakegu:

“... toda persona cuyos derechos o libertades reconocidos en el presente Pacto hayan sido violados podrá interponer un recurso efectivo...” (Isa, F.G., 2006).

Antzeko xedapenak aurrekoan bezala, Giza Eskubideen Hitzarmenak (1950), Giza Eskubideen Hitzarmen Amerikarrak (1969) eta Tortura, Tratu txar, Zigor Krudel, anker edo Umiliagarriaren kontrako Hitzarmenak ere onartzen ditu.

Azkenik, egia, justizia eta erreparaziorako eskubidea izango dugu. Nahiz eta hiru eskubide hauek ezberdinak eta independenteak izan, gero eta gehiago elementu interrelazionatu bezala ezagutzen dira. Gainera, giza eskubideen bortxaketak eman diren prozesuetan presente egotea beharrezkoa da. Hiru eskubide hauen interrelazioa, prozesu zail eta gatazkatsu honetan modu egoki batean lagun dezake.

Egiarako eskubidea, gizarteak eta biktimak prozesu guztiaren egia jakiteko eskubidea izango da, justizia transakzioaren prozesuaren berezko elementu bat da. Biktima egia guztia ezagutzen duenean, justizia egikaritu denean eta bortxaketak sortu dizkion kalte guztiak konpondu direnean hasiko da barkamenaren prozesua. Egia ez da biktimaren inguru intimoan bakarrik eman behar, baizik eta ofizialki eta publikoki onartua izan behar den egoera bat da.

Errekonozimenduak, biktimak gizartera bueltatzen du eta beharrezkoak izango diren errekurtsio sozial eta kolektiboak lortuko ditu eta gainera, solidaritate eta autoetima baxuaren gaintzea ekarriko du. Egiak rol terapeutiko bat izatera pasatzen da eta erreparazioaren berezko eskubide baten osagaia bihurtzen da. Hauek 2005. urteen onartutako Printzipio eta Ildoetan aurki ditzakegu, printzipio hauek gogobetasuna onartzen dute erreparazio era bezala. 22. printzipioak, neurri hauek egiaztatzen ditu:

“la verificación de los hechos y la revelación pública y completa de la verdad; ... una declaración oficial o decisión judicial que restablezca la dignidad, la reputación y los derechos de la víctima y de las personas estrechamente vinculadas a ella; una disculpa pública que incluya el reconocimiento de los hechos y la aceptación de responsabilidades;...” (Isa, F.G., 2006:27)

2.4.4. Biktimen legeak eta estatutuak

Biktimak babesten dituen lege gutxi egon dira, hala ere, gaur egun, biktimak lagundu eta babesten dituen zenbait lege daude. Delitu ezberdinen arabera izango diren legeak egongo dira eta horietako batzuk aurrerago azaltzen dira.

Sexu askatasunaren delituen kontrako erregulazioa abenduaren 11ko 35/1995eko Legean aurki dezakegu. Honek, indarkeria delituan biktima eta sexu askatasunaren kontrako delituen biktima izan direnentzako laguntzak eta sorospena lortzen da. Hiru urte beranduago legea, 38/1998ko Legea bihurtzen da non biktimak laguntzen diren (1/2004 Lege Organikoa).

Delituen biktimen egoeraren inguruko kezka manifestazio normatiboak ekarri ditu erakunde internazionalen Hitzarmen zein Gomendioetan.

Europako Kontseiluaren, 1983ko azaroaren 24ko, indarkeria delituen biktimentzako ordainsariaren 116. Hitzarmena aipatzea garrantzitsua da. Hitzarmen hau 1988. Urtean sartu zen indarrean; hala ere, nahiz eta Espainiak oraindik ez duen Hitzarmena sinatu, lehenengo ordeneko erreferente juridiko bat bezala ikusten da materia honetan. Bestalde, Europako Kontseiluaren Ministeritza Batzordeak, 1985eko ekainaren 28ko Gomendia aurkituko dugu aurrekoarekin batera. Gomendio honek zuzenbide penalean zein prozesu penalean biktimaren posizioari buruz mintzatzen du.

Aurreko sexu askatasunaren kontrako delituen biktima izan diren legeekin bueltatuz, garrantzi handia hartzen du abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoak. Lege Organiko honek, Genero Indarkeriaren kontrako Babes Neurri Integralak bere gain hartzen ditu. Hortaz aparte, urtarrilaren 15eko 1/1996ko Lege Organikoa izango dugu zeinak Adingabeen Babes Juridikoa arautzen duen. Gainera, nahiz eta gaur egun oso espezifikoa ez izan, Terrorismoko Biktimentzako Errekonozimendu eta Babes Integralaren irailaren 2ko 29/2011 lege ere kontuan hartu behar da (Lege Dekretua 9/2018).

Azken urteetan, zuzenbide espainiarrean Genero indarkeriaren kontrako zenbait aurrerapen legislatibo eman dira. Horietakoen artean, irailaren 29ko 11/2003ko Lege Organikoa dago zeinak Gizarte Segurtasunaren inguruko Neuri Zehatzak eta Etxebizitza Indarkeria eta Atzeritarren Gizarteratze Soziala kontuan hartzen duen.

Azaroaren 25eko 15/2003 Lege Organikoa, aurreko beste lege organiko batzuen aldaketa izanda, Etxebizitza Indarkeriaren Biktima izan direntzako Babesa arautzen duena. Gainera, ezin dira alde batera utzi, Autonomia Erkidego bakoitzak onartuak dituen legeak.

Aurrekoarekin jarraituz, martxoaren 24ko 1/1995 Lege Dekretua kontuan hartu behar da honek genero indarkeria sufritu duten biktimen lan egoera kontuan hartzen duelako. Lan absentzia, mugikortasun geografikoa, lanpostu baten etetea eta kontratuaren iraungipena kontuan hartzen da. Honekin batera, kontuan hartuko dira indarkeriaren biktima izan diren funtzionario publikoak.

Genero indarkeriaren biktima izan diren pertsonen errekurso ekonomikoen gabezia eduki ez dezaten laguntza sozialak aurreikusten dira. Gainera, adina, aurretiko prestaketa espezifikoen falta eta hobetuko ez diren egoera sozialak ere kontuan hartuko dira. Guzti hau abenduaren 11ko 39/1995ko Legean aurreikusten da; hau da, Sexu Askatasunaren Kontra eta Indarkeria Delituen Biktimentzako Asistentzia eta Laguntza araua.

Prebentzio eta indarkeriaren erradikazio legeak neurri prozesalak hartu behar ditu bere gain. Horrelako adibide bezala, uztailaren 31ko 27/2003ko Legea dugu. Lege honek, emakumeentzako zein seme-alabentzako babes neurriak aurreikusten ditu baita izaera larriko neurri kautelarrak ere.

Legeekin jarraitzeko, apirilaren 27ko 4/2015eko Biktimaren Estatutua izango dugu. Biktimaren Estatutu hau Kontseiluaren martxoaren 15eko 2001/220/JAI Markoan aurki dezakegu. Bertan prozesu penalean biktimaren estatutuari dagokiona azaltzen digu eta prozesu penalean zenbait eskubide bermatzen dizkio biktimari, ordainsari eta babes eskubideak barne (Lege Organikoa 5/2015).

Espainiari dagokionez, biktimen eskubideen inguruko marko normatibo baten existentzia erakusten digu. Nahiz eta horietako eskubide batzuk prozesalak edo biktima partikular batzuei bakarrik zuzenduta egon, abenduaren 11ko 35/1995eko Legeak biktimak lagundu eta babesten ditu indarkeria delituetatik.

Azkenik, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak proposatzen duen babes ordenari buruz esaten duena aipatzen da. 2012. urteko urriaren 25ean, 2012/29/UE Zuzendaritza onartu zen.

Honek, eskubideen inguruko neurri minimo batzuk, laguntza eta babesa eskaintzen dute delituen biktima izan direnentzako. Aurretik onartuta zegoen 2001/220/JAI Markoa ordezkatzeko du (Parlamento Europeo 2018).

2.5. Genero indarkeria

2.5.1. Genero indarkeriaren kontzeptuari hurbilpena eta motak

Genero indarkeriaren biktimak, gaur egun, biktimizazioak eman ditzakeen ondorio guztiak bizitzen dituzten pertsonak izango dira. Egoera horiek aztertu ahal izateko, genero indarkeriaren kontzeptuari hurbilpen bat ematea beharrezkoa da. Espainiako Gobernuak (2019) bere informeetan argitzen duen bezala, genero indarkeria, ezberdintasuna, mendekotasuna eta gizonek emakumeengan duten botere erlazioa izan da eta gaur egun oraindik bada. Indarkeria hau sexuen arteko ezberdintasunean oinarritu eta burutzen da. Izan ere emakumeek, emakumeak izateagatik pairatzen duten indarkeria izango da; emakumeak edozein geruza sozialekoak izango dira, hezkuntza maila ezberdinekoak, kulturalak edo ekonomikoak. Genero indarkeria emango da emakume batek bere bikotearen edo bikote oiaren aldetik delitua jasotzen duenean. Autorearen helburu nagusia kalte egitea eta emakumerenganako kontrola guztiz lortzea izango da. Denbora luzean zehar era jarraituan ematen da, estrategia baten parte ziango balitz bezala.

Genero indarkeria motei dagokionez, alde batetik tratatu txar fisikoak izango ditugu. Emakumearengan ustekabez gertatu ez den jarduerak bat izango da zeinak lesioak edo gaixotasunak sortuko dituen (adina, larria, kanpokoak, barnekoak, agerikoak edo ikusiezina). Jarduerak (Chamorro, H. M., 2008):

- Bultzada
- Kolpeak
- Belarrondokoak
- Mozketak
- Ostikoak
- Bihurdurak
- Haginkadak
- Urradurak
- Alopezia iletik tira egiteagatik

Hala ere, emakumearengan detekzioa hurrengo manifestazioengatik jakingo dugu:

- Erredurak, hagin markak, apurketak, tinpanoan mina kolpe eta belarrondokoengatik
- Tentsioa, buruko mina eta lunbarretan mina
- Insomnioa eta nekea
- Depresioa

Erasotzailean ere manifestazio batzuk aurki ditzakegu:

- Alkoholaren eta drogen abusua
- Farmakoen, droga eta alkoholaren abusua
- Errendimendu baxua, lanaren absentsia edo lanaren galtzea
- Etxeko animalien tratu txar fisikoak garatzea
- Etxeko ondasun eta altxariengan tratu txarrak
- Hirugarren pertsonengan jarrera biolentoa izatea

Beste alde batetik, tratu txar psikikoak izango ditugu. Indarkeriazko jarduera bezala definitu ditzakegu, hitzezkoak zein ez hitzezkoak izango direnak. Indarkeria mota hau bakarrik eman daiteke baino batzuetan, fisiko eta sexualarekin aurkituko dugu. Jarduerak:

- Apalkuntzak/umilazioak
 - o Irainak
 - o Menderatze sexuala
 - o Kritika neurrigabeak
 - o Mehatxuak
 - o Jipoien berehalakoak, etab.

Egoera guzti hauek biktimaren autoestiman eragiten dute, beldurra eta antsietatea nagusituz, beranduago tratu txar fisikoetara eramango gaituena (Chamorro, H. M., 2008).

- *Biktimaren aldetik "kosifikazioa"*: agresoreak emakumea objektu bat izango balitz bezala erabiltzen du. Aspektu fisikoa edota itxura fisikoa aldatzeko eskatzen dio. Beraren osasuna manipulatzeko, berriskupen medikuetara joatea

eragozten dio. Azkenik, erlazio sozialak, intimitatea eta eremu propioak murrizten dizkio.

- *Oinarrizko asetzeen ezintasuna*: isolamendua. Nahiz eta etxebizitzako gastuetarako erabili, bide ekonomikoak eragozten dizkio. Erlazio sozial eta familiarren ezabatzea.
- *Erlazioaren erantzukizunaren ezarpena*: Erlazioak daraman bidearen erantzule bilakatzen du emakumea, bai emozionalki bai ekonomikoki.
- *Errealitatearen distortsioa erasotzailearen aldetik*: biktimarengan zalantzak eta nahasmenduak sortzen ditu. Objektuak ezkututzen ditu biktimarekin eztabaida sortzeko. Honela, emakumea “zoro” bezala uzten du.
- *Mespretxua*: biktima gutxien du garrantziazko kontuak kontsultatu gabe.

Azkenik, tratu txar fisikoa eta tratu txar psikologikoarekin eman daitekeen beste egoera bat, tratu txar sexuala izango da. Biktimaren sexu-askatasunaren kontra atentatzen duen jarduera izango da. Jarduerak:

- Jarduera sexual umiliagarriak
- Abortu edo ugalketara behartu
- Jarduera sexuarekin indarkeria
- Erasoa jarduera sexualaren bitartean
- Abusua eta irainak
- Prostituziora induzitu

2.5.2. Genero indarkeriaren kontzeptu juridiko eta errealitate soziala

Abreu, M. L. M. autorearen arabera (2006), “genero indarkeriaren” kontzeptua emakumeenganako tratu txarren errealitatearen onarpena bezain berria da. Aurreko menderarte testu internazionaletan, ez dira indarkeria mota honen inguruan informaziorik aurkitu. 90. Hamarkadatik aurrera, ekimen garrantzitsuei esker indarkeria mota honen lana sendotzen hasi zen.

Honek adierazpen garrantzitsu bat ekarri digu; hau da, emakumeenganako indarkeria eta tratu txarrek ez dute bologian oinarria baizik eta generoan. Teoria aldakor baten aurrean gaude zeinak erakusten digun sexua ez dela antagonismoaren arrazoa. Ez da eremu familiarretan edo bikote eremuan, gizonaren nagusitasun fisikoa emakumearen ahuleziaren kontra ematen den indarkeria indibiduala soilik baizik eta,

oinarri patriarkaleko estruktura sozialak sortzen dituen diskrimizio intenporalaren ondorioak izango dira. Generoaren osatzeak, kulturaren arabera, esango digu zeintzuk izango diren emakume baten eta gizon baten oinarritzko balore eta aukerak. Izan ere, genero izenarekin zeinu matxista duen ikasketa kultural baten emaitza. Beraz, orden sinboliko horrek gizonaren emakumearenganako botere erlazioa definituko duten osagaiak dira, genero indarkeriaren oinarria.

Emakumeenganako indarkeriaren azalpena kulturala da eta ez biologikoa, generoaren perpektiba azaltzen duena izango da. Orientazio ideologiko hau ez da gehiengoa. Horregatik, orden intuzionaleko zein nazionaleko arauketek bukatu nahi duten indarkeriaren deskribapena egiten dute. Adibidez, 1993ko abenduaren 29ko Emakumearen Indarkeriaren kontrako Estatu Batuen Deklarazioak arakutzen duena:

Constituye una manifestación de relaciones de poder históricamente desiguales entre el hombre y la mujer que han conducido a la dominación de la mujer y la discriminación en su contra por parte del hombre e impedido el adelanto pleno de la mujer, y que la violencia contra la mujer es uno de los mecanismos sociales fundamentales por los que se fuerza a la mujer a una situación de subordinación respecto del hombre (Abreu, M. L. M. autorearen arabera (2006:779)

Datu honek genero indarkeria identifikatzea errazten digu eta etxebizitza indarkeriaren definizioaz aldentzen gaitu. Hortaz aparte, aldarrikapen feministei zentzua ematen die, eta batzuetan, indarkeriaren kontrako babesa emakumeei modu aldebakarrekoan bideratzea lortzen dute.

Abreu, M. L. M. esanetan (2006) genero indarkeria ez da etxebizitza indarkeriaren berdina izango, lehenengoa emakumea seinalatzen du eta bestea familia. Erlazio afektibo eta sexualak arrisku faktoreak dira ez bakarrik erlazioaren izaeragatik, erlazioak dakarren intentsitateagatik eta pribatutasunagatik baizik eta genero rola garatzeko eremu bat delako. Emakumeari subjektibitate, zaintza eta autoritate maskulinoari mendekotasuna izatearen baloreak ezartzen dizkion rola.

Posizio hegemonikoak, aukera hauen jarraipena ahalbidetzen die gizonei, familian eta familiatik kanpo. Gainera, askotan berak duen balioa jakinarazten du eta indarkeriaren baliabidea erabiltzen. Hau ez da ingurumen agresibitate ezta bikote erlazioen gatazkaren manifestazio bat izango. Azkeneneko hau sozialki sinestu nahi dena baino oinarria gizonaren nagusitasun erlazioatuta dago.

Hala ere, ezin da indarkeriaren ezaugarri instrumentala alde batera utzi sumisio egoera bermatzen duelako. Hain zuzen ere, emakumea familiako kide dependienteetan alienatzen da, familiako kide ahulenak (umeak, zaharrak, ezgaitasun bat duena): hauek arrazoi juridikoengatik (tutela, guraso-ahala) edo naturalengatik (adina, ezgaitasuna) izango dira.

Arazoak konpontzeko emakumearen perspektiba debate sozial eta juridikoetan barneratuta egon behar dela esaten du. Ez dira familiaren ondasunak jokoan egongo direnak baizik eta emakumearen bizitza, integritatea, askatasuna eta duintasuna. Emakumea “bake familiarra” mantentzen duen rola bereganatzen zaionez, horrelako delituren bat ematen denean, nolabaiteko erantzukizuna izan duela pentsatzen da. Bikote erlazio edo erlazio familiarrean sortzen diren gatazkak edo indarkeriazko egoerak emakumean “errudun sentimenduak” manifestatuko dira osagai klasiko bezala.

Egoera hauetan, nukleo familiarra mantentzeko emakumea erabiltzen da estrategia bezala: mediazio penal batean zein tratamenduko terapia batean emakumea gatazka horren parte agertzen da baina ez biktima bezala. Egoera hauen konponbide bezala ikusten da emakumearen figura eta horren ondorioz, emakumeak ezintasunaren aurrean “errudun sentimenduak” bereganatzen ditu (Abreu, M. L. M. (2006).

Erantzun guzti hauek genero indarkeriak sortzen dituen ondorio maltzurak agerian uzten ditu. Gainera, arriskua gehitzen dute, beste indarkeria batzuen agerpena, larriak halaber, eta ez dira zertan bizitza familiarrean agertu behar.

Azkenik, nahiz eta zuzenbideak gero eta estrategia gehiago aurkitu, ezin da alde batera utzi berezko arazoa diskriminazioan, ezberdintasunean eta emakumearen bazterketan dagoela. Hau guztia, gaur egun dagoen genero eredu kulturalaren ondorioz existituko ez balitz bezala jarduten da.

2.5.3. Genero indarkeriaren biktima

Stock, B. S. autorearen arabera (2015) biktimen inguruko ikerketek erakutsi digute, generoa, klase soziala eta etnia, estigmaren eta bazterketaren iturriak direla. Gaur egun, emakume batzuk duten egoera biopsikosozialengatik genero indarkeria pairatzeko zaugarritasun handiagoa dute, eta bereziki tratatu txarrak jasotzeko.

Biktimizazioa pairatzeko lehenengo arrazoietan arrisku faktoreak izango ditugu. Diagnostikatzen diren lehenetariko faktoreak, maila sozio-kulturak baxua, errekurtsio gabezia, gizonarekiko dependentzia ekonomikoa, familian indarkeriaren aurrekariak egon izana, menderatze emozionala eta asimetria bikotean izango dira. Nolabaiteko buru-nahaste bat pairatzen duen emakumeak ere arriskua du bere bikotearen aldetik biktimizatua izateko.

Aldi berean, indarkeria jasotzeko arriskua duten besten zenbait kolektibo daude; hau da, emakume immigranteak, indigenak, landa inguruan bizi diren bertakoak eta ezgaitasun bat duten pertsonak. Talde sozial ezberdin hauen identifikazioa eta delituaren prebentziorako lanak erakusten digute ez dela emakume guztietan modu berdinean eta intentsitate berdinean ematen. Egoera hauek hobeto aztertu nahi baldin badira biktima taldeetan beste zenbait azpitalde existitzen direla ezin dugu ahaztu.

Fundación EDE (2017), Euskal Autonomia Erkidegoan egin zituen ikerketa batzuen erabera, emakume batzuk daude non indarkeriaren biktima izateko aukera handiagoa duten. Esaterako, etxebizitza bat izateko zailtasunak, errekurtsio ekonomikoen gabezia, adina, seme-alabak edukitzeak, sar sozialak izatea edo sare sozial negatiboen existentzia, ezgaitasun fisiko edo psikikoa, buru gaixotasuna, adikzioak, etab.

Gainera, faktore hauek elkarrekin ematen badira, emakumearen zaurgarritasuna handitzen da. Azken finean, bere independentzia eta autonomian eragina izango duten faktoreak dira. Ezgaitasun fisiko eta psikiko edo gaixotasunei buruz hitz egiten dugunean, indarkeria sufritzeko zaurgarritasun handiagoa dutela argi dago. Honek, erasotzaileak bere biktimarengan kontrol gehiago izatea ekartzen du.

Espainian egin diren ikerketa ezberdinek erakusten digute ez dela emakumea den figura bakar baten existentzia baizik eta beste zenbait subjektu daudela (biktima ideala). Balentziako Emakume Zentroan egindako ikerketa batzuen arabera, tratu txar fisikoak edo psikikoak pairatu dituzten emakumeen %52.1ak ikasketa primarioak zituen eta %47ak ordaindutako lana. Indarkeria pizten duten faktoreen artean %37.6arekin alkohola dugu, %14.1arekin ludopatia, %11.4arekin toxikoen erabilera eta %59arekin gizonen alterazio emozional eta konduktualek eraginda (Stock, B. S., 2015).

Beranduago, Lleidako Biktimentzako Arreta Bulegoan subjektu jakin baten existentzia eza diagnostikatu zuten. Emakumeen %60ak 25 eta 40 urte artean zituen,

%67.7^a espainiarra, %77ak ikasketa primarioak zituen eta %62ak ordaindutako lana. Andaluzian, emakumeek prozesuari aurre egiteko ezberdintasunak aurkitu zituen. Izan ere, maila altuko emakumeek erasotzailearekin baztertzeko aukera forma pribatuan burutzen zuten. Aldiz, etnia ijitoetako emakumeek, landa inguruko emakumeak edo atzerritarrek salatzekeo zailtasunak zituzten eta baita prozedimendu judizialean mantentzeko aukera ere.

Stock, B. S. esanetan (2015), arrisku faktoreetan eta kolektibo zaugarrietan arreta jartzen baldin bada, emakumea biktimizatua izateko aukera ezberdinak aurkitzeko aukera ematen digute. Halaber, ekonomikoki aberatsak diren eta maila kultural handia duten bikoteetan ezin da arriskuei buruz hitz egin; aldiz, langabezian dauden, bazterketa egoeran dauden edo drogak eta alhokolarekin arazoak dituzten bikoteetan, arrisku hauek aurkitu ahal dira. Kolektibo batzuen azterketa ikuspegi multidimentsional batetik ikertua izan behar da. Immigranteetara bueltatuz, ezberdintasun estrukturei garrantzia eman beharko litzaieke; atzerritarra izategatik duten ahultasun emozionala (estresa, beldurra, bakartasuna, maitatutako pertsonetatik aldentuta egotea, erresidentzia edo lana izateko obligazioa, hizkuntza ikasteko zailtasunak, etab.) eta kultura ezberdinen artean ematen den ahalduntzea.

Ondorioz, genero indarkeria arrisku faktoreak ez egonda ere eman daitekeen fenomeno bat izango da. Halaber, beste kasu batzuetan, ez da indarkeria ematen arriskuen existentzia egonda. Beraz, biktimentzako diseinatutako arreta emakumeetan zentratzea ezinbestekoa da eta beharrak asetzeko prest dauden profesionalak egotea ere beharrezkoa izango da.

Zergatik emakumeek sostengatzen dituzte tratu txarrak (Chamorro, H. M., 2008)?

Zenbait arrazoi izango dira emakumeek tratu txarrak eustera eramaten dituztenak. Horien artean, erasotzaileek emakumeak isolamenduan menderatzen dituztela izango da lehenengo arrazoi nagusia. Bigarrenik, emakumeek salatzekeo duten beldurratik; hau da, agiraka jasotzeko beldur. Hirugarrenik, gizonak bakarrik lan egiten duenez, emakumea gizonaren ekonomiaren menpe bizi da. Laugarrenik, seme-alabak edukitzeak emakumeak askatasunetik aldentzen ditu; bereziki, emakumea matxinatzeagatik beraren seme-alabengan izan dezakeen ondorioengatik. Bosgarrenik, epaiketa sozial eta familiarrari beldur izatea izango dugu. Seigarrenik, erasotzaile eta biktimaren arteko binkulua. Azkenik, errekurtsio sozialen gabezia.

2.5.4. Genero indarkeria eta biktimologia historian

Genero indarkeria, biktimologiaren aldetik laguntza behar izan duen fenomeno bat da; izan ere, biktimologiaren sorkuntzarekin biktimari garrantzia ematen hasi zaio eta genero indarkeria, bereziki babes horren bila lanean ari dira. Babesaren bidean, biktimologiak genero indarkeriak sortzen dituen ondorio negatiboak aurre egiteko baliabideak eskaini dizkio.

Stock, B. S. autorearen arabera (2015), Biktimologiak asko lagundu du genero indarkeriaren biktima izan diren emakumeen babes eta sustapenean. 80ko hamarkadako Biktimologiak aldaketa eta postura sozial batzuk faboratu zituen; esaterako, behar ekonomiko, sozial eta emozionalen inguruko itxaropenak. Biktimak bere lekua hartzen zuen bitartean, Zuzenbide Penala babesteko gaitasuna duen harraminta bezala existitzearen inguruko kritikak aurrera egin zuten. Egoera zurribulotsu honek biktimaren kontzeptuan aldaketa bat sortu zuen, 90eko hamarkadako Biktimologiak eraginda. Aldaketa hauek, genero indarkeriaren kausak eta ondorioak hobeto ulertzea ekarri digu, bereziki bikotearen edo bikote ohiaren kontrako tratu txarretan.

Artikuluak, Genero Indarkeriaren eta Biktimologiaren arteko elkarrizketa sakontzea garrantzia azaleratzen du. Jarraitzeko, ikuspegi integral batetik hasi behar dela nabarmentzen du, eremu ezberdinetik prebentzio estrategiari lehentasuna ematen diena. Honen inguruko analisiarekin bukatzen du esanez, gizonen inklusioa ezinbesteko elementu bat izango dela eraldaketa soziala gizartean emateko eta horren harira gizartean berdintasuna lortzeko.

Jarraitzeko, mugimendu feministak rol erabakigarri bat izan zuen emakumeak Zientzia Kriminalaren eremuan leku bat izatearen esleipenean. Planteamendu feministek emakumeen eskubideen alde, bereziki genero indarkeria sufritzen zuten emakumeen alde lan egiten zuten aurrerapen eragile garrantzitsua izan ziren (Stock, B. S., 2015).

Planteamenduak, Justizia Sistemaren aldetik emakumeek jasotzen zuten arreta askoz handiagoa eta askoz hobea izatea bilatzen zuen. Biktimologian adituak ziren herrialde batzuk, adibidez, Ingalaterra, Estatu Batuak eta Kanada, asistentziara bideratutako zerbitzuak lanean jartzen zituzten. Honela, justiziak emakumeari ematen zion arreta eta osasun langileek eskaintzen zizkien laguntzetaz aparte, diziplina anitzeko

ezaugarriak zituzten lanak ematen ziren. Lan hauek entitate publiko edota pribatuek garatzen zituzten.

Errealitatearen konplexutasuna eta Biktimologia-feminismo-Zuzenbide penalaren arteko aliantza zentzu bikoitzeko bide batetik pasatzen da. Alde batetik, emakumeek bizitzen duten indarkeriaren errealitateak jarduera ezberdinak ekarri ditu; hauek, biktimizazio prozesuan ematen diren arazo psikologikoak, sozialak, juridikoak zein ekonomikoak konpontzen saiatzen dira. Beste alde batetik, biktimizazioa estrategia politiko bat bezala ezagutu da Zuzenbidean emakumearen diskurtsoari sinesgarritasuna emateko. Insituzioak eta gizartea biktimizazio femeninoari aurre egiteko prest ez zeudela argudiatzen zuten.

Nahiz eta zuzenbideak delituak ekiditeko instrumentu bezala ezin erabili, argi uzten dio gizarterari zeintzuk diren onartzen ez diren jarduerak eta zeintzuk izango diren zigortuak. Zuzenbide Penalaren inexistentzia desegokia kontsideratzen, bertan “indartsuagoaren legea” eta esku-hartze estatalaren gabezia indartzen da. Diskurtso biktimologikoetan Zuzenbide penala beti harkor erakutsi da, aliatu bezala delituaren kontrola eta gatazka sozialak konpontzeko. Bereziki, Zuzenbide penalak biktimak babesten ditu bere ahultasunaren, errespetagarritasunaren eta errugabetasunaren aurrean. Ondorioz, aktibismo legislatiboari esker, emakumearen pertzepzioa gizartean aldatu eta genero identitate bat izatera eraman du.

Botere transformatzailearen legeak hiru mailatan argudiatzen dira: lege sexista, maskulinoa eta generoa da. Lege sexistaren arabera, emakumea epaitzen du jarduera desgokiengatik (promiskuitatea) edo kaltea eragin duen edo gizonak probokatzen (sexu abusua) dituen emakumea dela esaten da. Lege ordena berrinterpretatu behar da eta hizkuntzan genero neutroa ezarri behar da. Legea, maskulinoa denez, Zuzenbideak ematen dituen neutralitate, berdintasun eta objektibitate baloreak guztiz maskulinoak dira. Ikerketa enpiriko batek erakutsi digu, Zuzenbidearen legislatzaile eta operadore ia guztiak gizonak direla eta pentsamolde maskulino batetik epaitzen dute.

Baina, maskulinoa edo sexista izanik, Zuzenbideak banaketa binarioa erreproduzitzen du eta existitzen diren berezitasunak eta ezberdintasunak iluntzen saiatzen da. Zapalketa arazo kulturak eta aurreko orden legalaren arazoa da. Kritika hauen aurrean, legea generoa delaren ideiak lekua hartzen du. Emakumearen eta

pratiarkatuaren arteko ikerketak, ikusgai egin den arazo bat barneratu da: legeak dira generoaren ideia sortzen dutenak.

Diskurtso feministak, ikuspegi patriarkal baten emakumeak nola hautematen duen errealitatea eta mundua jakitea eraiki du. Honek “bitkima ideala”-ren estereotipoa sortuz: emakue ahula, errugabea, pasiboa, zaurgarria, babesgabea, etab. Emakume hau errealitatean parte hartzen duten emakume guztiak ez ditu irudikatzen. Sistema judizialaera iristen diren emakumeak dualismo bat dira: agresiboak eta ahulak, desatsegina eta estimagarria, hots, ez bertutetsu edo txarra. Halaber, emakumeen biktimitzaioan Zuzenbide Penalaren fokuratzeak, emantzipatzeko emakumeak gizonaren beharra duela ikusten da eta azken finean horren menpe bizi da.

Emakumeak zentro espezializatuetan laguntza bilatzen hasi dira baita etxe-babesetan ere. Izan ere, Estatuaren zerbitzuen zain egon dira baino inork ez die beraien estruktura sozialetan aldaketarik bermatzen. Are gehiago, emakumeak laguntzen dituen kolektiboak, ordainsari-politikak aktibatzen dituen subkulturalak bezala ezagutu dira. Feministei, adibidez, “enpresaburu moral atipikoak” bezala definitzen dira, balore konbentzionalak aupadatzeagatik. Hauek, kanpaina ezberdinekin jarduera berrien penalizazioa eskatzen dute, esaterako emakumeek bikotearen edo bikote ohiaren aldetik jasaten dituzten tratu txarrak.

Emakumearen ahulduntzea arreta zerbitzuek ematen dizkien laguntzetatik dator, justiziak erabakitzen duena kontuan hartu gabe auzitegietara joaten diren emakumeentzako laguntza, babesa, aholkularitza eta euskarriak estrukturatuz (babes ordenak, justizia penalaren funtzionamenduaren inguruko informazioa etab.). Justizia Penalaren erlazio neurrigabekoari konponbide ametakoa balio du, batzuetan, emakumearen aurka joan daiteke eta emakumea egoera arriskutsu batean jarri dezake, oraindik larriago batean. Gainera, biktimen testigantzak poliziek, epaileek edo abokatuak ematen dituzten testigantzekin bat egiten ez duenean, hauen esperientziak gutxietsi eta adeitasuna galtzen dute.

Stock, B. S. autorearen esanetan (2015), Biktimologia, Zuzenbide Penalaren eta postulatu feministen aliantzek, Zuzenbide Penalaren tradizionala fidagarria ez den aliatu bat dela diote. Horregatik, emakumeen beharrak eta itxaropenak bere baitan dituen Zuzenbide Penal berri bat berreraiki behar da. Zuzenbideak, arreta, kooperazioa, sormena eta pluralitatea izan behar du. Horretarako, biktimari edo agresoreari laguntzen

dion pentsamendu binario gainditu behar da eta eskubideak bermatzen dituen ideia askoz komunitarioagoa den batera jo behar dugu.

Justizia beraz, baloreen, prozedimenduen eta zigorren kontzeptualizazioa ezartzen duen objektua izango da. Biktimaren interesak eta agresorearen ondorioak, errehabilitazioa eta erreparazioa, bateragarri egitea ezinbestekoa da.

Zuzenbidearen berreraikitzeak genero indarkeriarekin aurka egiteko lege integralen beharra nahiago da. Adibidez, Espainiako 1/2004ko Lege Organikoa, Genero Indarkeriaren kontrako Babes Neurri Integralak. Aldi berean, indarkeria iraunazten duten jarduera, arau eta praktikak hobeto aprobetxatu ahal izateko estrategia berrien alde jokatu da.

Zentzu zabalean, indarkeria ematen den testuinguruaren eta indibiduen arteko interkazioa ikerketzearen beharrezkotasuna azpimarratzen da, sistema ezberdinetan jardunda – mikro, meso, makro eta exosistema. Indarkeria faboratzen duten arrisku faktoreen konfrontazioek, indarkeria bermatzen duten mekanismo sozialen aldaketa iradokitzen da. Instantzia ofizial batzuek marko ekologikoa erabiltzen dute, hortaz, kontrol sozial informaleko eta kontrol sozial formaleko estrategien arteko nahastea pizten da erlazio estuen arteko indarkeriari aurre egiteko.

Ondorioz, nahiz eta Biktimologiaren, Zuzenbide penalaren eta feminismoaren artean adostasun eta desadostasunak egon, biktimentzako babes neurrien defentsek biktimak leku bat edukitzea lortu dute. Baina, genero indarkeriaren biktimen eskubideen babes eta sustapenean jarraitu ahal izateko, konformismo akritikoarekin bukatu behar da. Arreta integrala teoria sendoetan oinarritu behar da eta baita ebidentzia zientifikoetan ere (Stock, B. S., 2015).

2.5.5. Genero indarkeriaren prebentzioa

Genero indarkeriaren biktimak direnentzako babesa behar dela ezinbestekoa da. Hala ere, guzti hau prebenitzeko hezkuntza eremuan programa batzuk ezartzeak fenomeno deliktibo honekin bukatzea edo behintzat gutxitzea ekarri dezake.

Gomez, A. H. (2007) autorearen arabera, genero indarkeriari buruz hitz egiteak fenomeno arazotsu honen eta garrantzia gehien duen prebentzio eta esku-hartzea galdatzen du. Ereku familiarrean, komunitarioan, banakakoan eta baita hezkuntza

eremuan ere. Ezkongai harremanetan ematen den problematika, eta gaur egun gero eta lehenago ematen dena, ez da salbuespena. Adin ezberdineko harremanen azterketan, denak hitzezko abusu edo abusu emozionalekin hasten dira eta agresio sexualekin edo erailketekin bukatuz. Nerabezaroan sortzen dituen ondorio larriak dira zeinak osasun fisiko eta mentalean eragiten duten. Genero indarkeria beraz, ez da zertan ezkontzaren ostean emango, bereziki ezkongai harremanean edo elkarrekin bizitzera joaten direnean hasten dira.

Bigarren hezkuntzan batzuk dira genero indarkeria prebenitzeko programak. Ezagunenetakoa *Skills for Violence Free Relationship* izango da, hau Estatu Batuetan garatu zen. Beranduago Touch With Teen programa eman zen, hau 8 saiotan ematen da. Bertan ikasleek erlazio osasuntsuen eta jazarpen sexualari buruzko informazio gehiago erakusten dute.

Building Relationships in Greater Harmony Together, jarrera aldaketa eta laguntzaren bilaketan zentratzen da. 5 saiotan banatzen da eta ebaluazioek bikoteen arteko indarkeria jarrerak gutxitzen direla erakusten du. Hortaz aparte, bikoteen arteko indarkeriaren ezagutzak eta laguntza handitzen dira. *Safe Dates*, urte bat beranduago agertu zen programa bat da. Honek hezkuntza arloan antzerkizko jarduera batzuk barne hartzen ditu. Jarduera hauek burutzeak, bikoteen erlazioetan abusu psikologiko, fisiko eta sexualak gutxitzen zituela aurkitu zen. Programa hau, luzera emaitzak ebaluatu dituen bakarra da. Lau urte pasa ondoren, indarkeriazko erlazioak zeudelaren maila baxua aurkitu zuten.

Azkenik, *Expect Respect: Promoting Safe and Healthy Relationships for All Youth* izango dugu. Honek 12 saio izango ditu non eztabaita taldeak, jokuak, role play-ak eta idazketa kreatiboak aurkituko ditugun. Ebaluazioak, jazarpen sexuala eta indarkeria egoera batean esku-hartzeko ezagutzak handitu direla erakusten digu. Genero Indarkeriaren prebentzioa hezkuntza igualitario batekin hasten da.

Hezkuntzan, ikasleak hezitu eta informatu behar dira, jakin dezaten indarkeria ez dela normala izango, errespetua ezinbestekoa dela eta bien arteko balorazio positiboa ezinbestekoa dela maitasuna eman ahal izateko. Agresioak burutzen dituzten gizonak gaixoak ez direla baino sendatu daitezkeen gizonak erakusten da. Eta inoiz ez, nahiz eta maitasuna erditik egon, ezin dela indarkeria fisikoa edota hitzezko informazioa onartu.

2.5.6. Genero indarkeriaren babesa

Espainiako Gobernuaren² arabera (2019), genero indarkeriaren babesa eta prozedimendua ahalbidetzen duten eremu ezberdinak egongo dira. Entitate edo asoziazio espezifikoetaz aparte Espainiako Gobernuak genero indarkeria sufritzen duten emakumeentzako jarduera eta koordinazioa ahalbidetzen du.

Genero indarkeria kasuetan, emakumeengan ematen diren indarkeria ezberdinentzako planteatzen diren jarduera eta neurriak, Genero Indarkeriaren Eskuordetze Gobernuak izango da arduraduna eta jarduera hauek bultzatu, koordinatu eta kolaboratuko ditu.

Eskuordetzean izango dituen funtzioen artean hauek ditugu:

- Genero indarkeriaren biktima hildakoen inguruko portaera: jarraipena, berrikustea eta koordinazioa kasu bakoitzean; datuen eguneratzea “ikerketa prozesuan dauden kasuetan”
- Genero indarkeriaren egoera bakoitzaren jarraipen pertsonalizatu eta laguntza bere lurraldean.
- Estatuaren Administrazio Orokorrak ematen dituen errekurtsio eta zerbitzuen jarraipen eta koordinazioa emakumearen lurraldean:
 - o Estatuako Poliziarekin kontaktua, Instituzio Penitentiarioekin, Enpleguaren Zerbitzu Publikoekin, Delituaren Biktima izan diren emakumeentzako Asistentzia Bulegoekin, Atzerritar Bulegoekin, etab.
 - o Organo judicial eta Ministeritza Fiskalaren koordinazioa
 - o Administrazio autonomikoekin kolaborazioa

Estatuaren Administrazio Orokorraren, Autonomia Erkidegoen eta Entitate Lokal ezberdinen arabera genero indarkeriaren biktima izan den emakume baten errekurtsioak, zerbitzu pertsonalizatuak eta eskubideak hauek dira:

Estatuaren arabera funtzio ezberdinak izango ditugu. Lehenengoari dagokionez, 016 zerbitzua egongo da informazioa eta laguntza juridikoa ematen duena. Doakoa izango da deitzen duten emakumeentzako, konfidentziasuna bermatuko da eta ezaugarri

² <https://violenciagenero.igualdad.gob.es/informacionUtil/guia/home.htm>

pertsonaleko datuak ez dira hartuki ezta grabatuko ere. Eguneko 24 orduak eta urteko 365 egunak funtzionatzen du. Entzumenezko ezgaitasuna edo mutua den pertsonarentzako prestatuta dago eta 53 hizkuntzatan arreta ematen da. 016 zerbitzuak 112 autonomiei genero indarkeriarekin zerikusia duten larrialdi egoerak desbideratzen dizkie.

Bigarrenari dagokionez, ATENPRO izeneko zerbitzua izango dugu; hau, genero indarkeriaren biktimentzako arreta eta babes gailua da. Honek, distantzia luze batean emakumeek berehalako arreta jasotzea lortzen du. Erantzun azkar bat eskaintzen du, 24 ordu eta 365 egun funtzionatzen du dagoen lekuan dagoela. Biktinek zerbitzu hau agresorearekin bizi ez direnean, genero indarkeriaren biktimentzako programa espezifikoa eta zerbitzu sozialetan eskatzen dutenean edukitzeko eta erabiltzeko aukera izango dute.

Hirugarrenari dagokionez, jarraipen telematikoko gailuak izango ditugu zeinak jarraipen sistemaren zerbitzuak, neurri eta debeku zigorrak betetzen diren jakitea ahalbidetzen duen. Beraz, zerbitzu honen helburu nagusia, genero indarkeria sufritzen duten emakumeen segurtasuna eta babesa bermatzea izango da nagusiki. Neurrien edota debeku zigorren inguruko gorabeheren informazio eguneratua eta iraunkorra ematen du. Jarraipen sistemak bi elementu bere gain hartzen ditu: biktima eta erabiltzaileentzako gailuen taldeak, eta kontrol zentroak gailuen lan instalazioak, mantenu-lan eta desinstalazioetaz arduratzen dena (alarmak, alertak, etab.).

Laugarrenari dagokionez, abenduaren 28ko 1/2004ko Lege Organikoa, Genero Indarkeriaren kontrako Neurrien Babes Integrala. Gobernua eta Autonomia Erkidegoak, Berdintasun sektorean akordio komun bat diseinatu dute. Genero indarkeriak ematen dituen egoerak akreditatzen dituen oinarriko prozedimenduak ahalbidetzen ditu. Bi dokumentu onartu ziren:

- 1/2004ko Lege Organikoaren 21. eta 22. artikuluen arabera, genero indarkeriaren biktima direla akreditatzeko gaitasuna duten biktimentzako zerbitzu sozialen, zerbitzu espezilatuak edo harrera zerbitzuak eskaintzen dira (lan eskubidearen segurtasun sozial eta errenta aktiboa). Lege Organikoak bikotearen edo bikote ohiaren aldetik jasandako genero indarkeriaren biktima izan diren emakume guztientzako eskubide batzuk bermatu eta eskaintzen ditu.

Ez da egoera administratiboa kontuan hartuko ezta atzerriko herrialdea, adina edo ezgaitasuna.

- 2/1986ko Lege Organikoaren arabera, poliziek eskubide eta askatasuna babesteko betekizuna izango dute. Gainera, segurtasun publikoa bermatu behar dute, lurralde nazionalen beraien funtzioak garatuz. Polizia taldeak: Polizia Nazionala probintzien kapitaletan, muga munizipaletan eta nukleo urbanoetan. Guardi zibila geratzen den lurralde nazionalen eta itsa lurraldean.

Autonomia Erkidegoei dagokionez, bi funtzio nagusi izango ditugu. Alde batetik, errekurso anbulatorioen eta errekurso asistentzialen, eta bestetik, Polizia taldeak. Lehenengoari dagokionez, genero indarkeriaren biktima guztiak, nazionalitatea edo egoera administratiboa kontuan hartu gabe, asistentzia sozial integrala jasotzeko eskubidea izango dute. Autonomia Erkidegoek errekurso anbulatorio eta asistentzialez osatutako Sare bat izango dute (informaziozko zerbitzu espezializatuak, aholkularitza eta esku-hartzea, larrialdi pisuak, egonaldi luzeko pisuak eta tutoretzapeko pisuak) genero indarkeria sufritu duten emakume eta baita seme eta alabentzako ere.

Bigarrenari dagokionez, polizia taldeak izango ditugu. Ertzaintza (Euskal Herria), Mossos d'esquadra (Katalunia) eta Nafarroako Polizia Forala (Polizia Autonomiko bezala osatuta, Polizia Judizial bezala jarduteko eskuduntzarekin).

Azkenik entitate lokalak izango ditugu; hauek, errekurso anbulatorioak eta errekurso asistentziak ahalbidetzen ditu. Honi dagokionez, entitate lokalek larrialdi egoeretan arreta gailu, informazio zentro, esku-hartze psikologiko eta arreta eta luzerako edo motzerako eman daitezkeen larrialdi egoerentzako pisu bezala funtzionatu dezakete. Bigarrenari dagokionez, polizia lokala izango ditugu polizia talde bezala. Segurtasun publikoa udalerrri osoan bermatzen saiatuko dira. Gaur egun, 404 Polizia Lokalek Estatuko Polizia taldeekin elkarlanean ibiltzen dira.

BESTE ENTITATE ESPEZIFIKO BATZUEN LANA

Genero indarkeriaren prozedimendua eta babesaren instituzio ezberdinek burutzen dute. Horien artean, diputazioa izango dugu. Genero indarkeriaren babesaren inguruko informazioa lortzeko, hasteko, Arabako Diputazioaren Zerbitzu Sozialean oinarritu naiz besteen artean.

ARABAKO DIPUTAZIOA

Arabako Diputazioaren Zerbitzu Sozialak (d.g.)³, arreta eta behar sozialak bermatzen, marjinazioa eta ezberdintasuna soziala ekiditen eta ezabatzen, integrazioa soziala eta kolektibo eta pertsona sozialen garapen librea faboratzen saiatzen da. Zerbitzu sozialak, gizartearen eta sistema publikoaren arteko lehen kontaktu gunea izango da. Bertan, gizarte langintzako langile bat aurkituko dugu zeinak beste instituzio batzuekin koordinatuko den:

- Beraren eskubide sozialen inguruko informazioa eskatzen duen pertsona aholkatzen du
- Pertsona eta familien behar sozialak baloratzen ditu
- Errekurtso sozialen inguruko informazioa ematen du
- Eman diren arazo eta beharren aurrean aukera egokiei buruz orientatzen du
- Arreta pertsonalizatutako zereginak lantzen ditu, beharrak, lehentasunak eta errekurtso posibleak kontuan harturik.
- Errekurtso espezializatuetaz baliatzeko erraztasunak ematen ditu baita babes sozialarekin zerikusia duten beste errekurtso batzuk: seguritate soziala, langabezia, osasun etxebizitza, hezkuntza eta formazioa.
- Plan indibidualen jarraipena burutzen du bakoitzaren behar eta errekurtsoak kontuan harturik.
- Kooperazio soziala eta asoziazionismoa bermatzen du
- Arrisku faktoreak ekiditea lortzen duten programak ematen ditu.

Bestalde, horrelako egoera baten aurkitzen diren emakumeek, beraien beharrak asetzeko intentzioarekin, genero indarkeria sufritu duten emakumeentzako harrera etxeak sortu izan dira. Harrera etxe hauek emakumeak babesgabetasunean geratzen direnean erabiltzen dira, irteera bat emateko aukerarekin. Administrazio lokal eta foralek, genero indarkeria edota etxebizitza indarkeria sufritu duten emakumeen babes beharrak zaintzeko intentzioarekin aldizkako ostatuak bermatu dira.

Harrera etxeak

Ongizate Sozialaren Instituto Foralak bi etxebizitza ditu. Bertan berehalako arreta behar duten emakumeak eta dependentzia egoeran aurkitzen diren emakumeak

³ <https://web.araba.eus/es/servicios-sociales/servicios#violenciacontralasmujeres>

egongo dira. Izan ere, etxebizitzan tratu txarrak jasateagatik, larrialdi egoeraren ondorioz etxebizitzarik alde egin behar duten emakumeek.

Zubi etxea

Zubi etxea, emakumeak babestuko ditu baino epe ertainera; honek helburu bezala nahiz eta etxebizitza indarkeria edota genero indarkeria sufritu duen emakume bat izan, emakumeak autonomia lortzea bilatzen da. Emakumearen integrazio soziala, normalizazioa, intimitatea eta pribatutasuna.

Etxe hau erabiliko duten emakumeak aurretik harrera etxe batean edo etxe partekatu batean bizi izan diren emakumeak aurkituko ditugu. Denbora tarte honetan ezin izango dira beraien etxebizitzan sartu.

Errekurtso hauek jasotzen dituzten pertsonak, dependentzian bizi diren eta tratu txarrak jasateagatik etxebizitza bat behar duten emakumeentzako bideratuta dago. Bertan etxebizitza programa bat ahalbidetuko zaio eta harrera etxeetako emakumeen akonpainamenduaren programa ere eskainiko zaio.

Arabako Diputazioaren Zerbitzu Sozialak, lege batzuen arabera jarduten du; izan ere, alde batetik, otsailaren 18ko 4/2005 Lege Organikoaren arabera Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako. Bestetik, irailaren 11ko 148/2997 Dekretua, etxebizitzan tratu txarrak jasan dituzten emakume biktimen errekurtsoak bere gain hartzen ditu.

Asistentzia juridikoaren zerbitzua, Araban genero indarkeria sufritu duten emakume biktimei ematen zaien doako zerbitzu bat izango da, ezaugarri preprozesala duena eta orientazio juridiko inbidualizatua emango duena. Zerbitzua Vitoria-Gasteizen, Laudion eta amurrion ematen da, eta zerbitzuak kanpoko zerbitzu publikoen kontratazioaren bidez kudeatzen da.

Eskaera formari dagokionez, etxebizitzako emakume biktimak 945151015 zenbakira deitu beharko du aurretiko zita eskatzeko. Bertan alde batetik arreta psikologiakoren zerbitzua izango dugu, eta bestetik, tratu txarren biktima izan diren emakumeen, dependentzian dauden, adingabeen zaintza zerbitzua. Genero indarkeria pairatu duen emakume biktimaren babesa eta errekupeazioa lortzeko hainbat neurri eta errekurtso jarri dira martxan. Honek asistentzia oso eta integratu bate matea lortuko du eta biktimaren beharrak modu egokian asetuko dira.

Azkenik, Arabako Foru Aldundiaren Zerbitzu Sozialen Departamentuaren, Laudioko Udaletxearen eta Arabako emakume ruralen Sarearen lankidetzaz hitzarmena izango dugu.

Programa honen helburu nagusia, tratatu txarrak jasan dituzten emakume dependienteen karga ekonomiko, sozial eta psikologikoekin bukatzea edo behintzat gutxitzea izango da.

“HAIZE BERRIA” ERAKUNDEA. GENERO INDARKERIAREN EMAKUME BIKTIMAK

“Haize berria” erakundea (2019)⁴, genero indarkeriaren emakume biktimak laguntzen ditu. Helburu nagusia, beste kolektibo batzuk laguntzea izango da. Jardueri dagokionez hurrengoak ditugu:

- Genero indarkeriaren biktimak lagundu eta babestu baita gizartea arazo hauen inguruan sentsibilizatu ere
- Genero indarkeria sufritu duten emakumeentzako jarduerak garatzen dituzten kolektibo ezberdinekin kolaboratu eta kooperatzen dute.
- Jarduera publikoetan parte hartu eta burutu
- Genero indarkeriaren biktima izan diren emakumeen interesak defendatuz foro politiko, sozial eta ekonomikoetan parte hartu.

“MUJERES BIZIRIK” ERAKUNDEA. GENERO INDARKERIAREN EMAKUME BIKTIMAK

“Mujeres Bizirik” erakundea (2015)⁵ genero indarkeriaren biktima izan diren emakumeak laguntzeko sortua izan da. Erakunde honek helburu batzuk izango ditu, jarraian azalduko direnak:

- Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatu, indarkeria sexistaren prebentzio eta kentzearen bitartez
- Gizarte igualitario eta justu baten lagundu

⁴ <https://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/-/asociacion/asociacion-haize-berria-mujeres-victimas-de-violencia-de-genero/>

⁵ <http://mujeresbizirik.blogspot.com/>

- Gizarte parte-hartzea eta emakumeen ahulduntzea sustatu, bereziki indarkeria sexistaren biktima izan direnenak
- Indarkeria sexistaren biktima izan diren beste batzuentzako laguntza eta aholkularitza eremuak sortzea
- Emakumeentzako erreferentea bihurtu baita instituzio eta gizarte guztiarentzako ere.

Helburu guzti horiek lortu ahal izateko, jarduera ezberdinak planteatzen dira erakundearen barruan:

- Sentsibilizazio sozial eta hedapen kanpainak
- Indarkeriaren biktimentzako laguntza eta aholkularitza
- Formakuntza eta sentsibilizazio jarduerak
- Erakundearekin zerikusia duten edozein jarduera koherente.

“ALMA” ERAKUNDEA

“Alma” erakundea (2014)⁶, 500 pertsona inguru osatzen duten erakunde independente eta globala da. Beste zenbait akordio ditu entitate publiko zein pribatuekin eta elkarrekin genero indarkeria sufritzen duten milioika emakume defendatu eta laguntzen dira.

Gizartean beharrezkotzat ikusten den erakundea da, genero indarkeria sufritzen duten emakume eta seme-alabak babesteko izango dena. Gaur egun, segurtasun sistemetaz baliatzen diren emakumeak salaketa tarteratu edo erasotzailearekin bizi ez diren emakumeek bakarrik eska dezakete. Honek, egoera hau sufritzen duten beste emakume askok horrelako baliabiderik ez izatea ekartzen du.

“Alma” erakundea, gizarte zaugarri guztiari lagundu nahi dio, eta horregatik, beste organismo ofizialekin, enpresa eta entitateekin lan egiten du laguntza gailu bat garatu ahal izateko. Gailu honekin, biktimak edozein momentutan eta edozein baldintzatan laguntza eskatzeko erraztasuna izango du. Hortaz aparte, gizartean Genero Indarkeriaren problematikaren inguruko elkarrizketak eta ekitaldiak eskaintzen dituzte eremu nazional guztian zehar.

⁶ <https://www.asociacion-alma.es/>

Helburu nagusienetarikoa, gizartea kontzientziaztea izango da. Erakundeak kanpaina eta proiektu berrien eraiketarekin benetako prebentzio eta kontzientziazioa lortu nahi du.

2.5.7. Genero indarkeriaren babesaren garrantzia

Stock, B. S. autorearen arabera (2015), 80ko hamarkadan, Lenore Walker-rek psikologia sozialaren egindako ikerketei esker, bikotearen barnean indarkeriaren ideia bere lekua hartzen hasi zen. Tratu txarren dinamika aztertuz, hiru berezko fase aurki ditzakegu; tentsioa, leherketa eta barkamena. Hiru fase hauek elkarrekin indarkeriaren zikloa osatzen dute. Honekin batera kasu batzuetan, gizonaren indarkeria emakumearengan boterea eta kontrola jardutearekin zerikusia du.

Delituaren ostean agertzen diren nahaste ohikoenak estres postraumatikoarekin dute zerikusia; 90ko hamarkadan izendapen propioa izan zuen; emakume hondatuaren sindromea. Sindrome honek erreakzio psikologiko zein fisikoak izango ditu eta delitua jasan ondoren emakumeak emango dituen erantzun eta pertzepzioak izango dira.

Biktimek delituaren autoreekin afektibitate erlazio bat dutenez, askotan emakumeak errudun sentitzen dira eta indarkeria gertaerak beraren jarreraren ondorio direla pentsatzen du. Gertaera hauek dependentzia emozionala errazten dute eta askotan biktimak aldatzen direnean indarkeria desagertuko delaren sinesmena dugu. Ahultasun psikologikoari dagokionez, inseguritatea, erabakiak hartzeko zailtasunak, lan errendimenduaren eta kontzentrazioaren baxutzea eta beraren irudiaren ideia eta sentimendu negatiboak izango ditugu. Egoera honek, estres kronikoaren katalizatzailea, emakumeen osasunean eragiten du eta ondorio negatiboak ekartzen ditu; buruko mina, arazo gastroestinalak, eta neke kronikoa. Honek lasaigarri, analgesiko eta antsiolitikoen dependentziara eramaten gaitu baita automedikaziora ere. Indarkeriaren zikloaren eta emakume hondatuaren arteko tesiak eztabaida sortu eta oraindik sortzen ditu. Alde enpirikoan, indarkeria afektibitate erlazioaren parte direla defendatzen dute, indarkeria ez da momentu espezifikotik hasi eta bukatzen.

Alde teorikoan, feminista eta biktomologo batzuk “feminismo anti-victimidad” kontzeptua defendatzen zuten; hau da, emakumearen egoera sindrome bezala hartzean, emakumea apaltzen eta iraintzen dela esaten da.

Gaur egungo ekarpen interdiziplinar eta biopsikosozialek indarkeria fenomenoaren ikuspegi psikologikoa eta biktimen ber-kontzeptualizazio ekarri dute. Indarkeria psikologikoa, sistema baten sortzean eta sendotzean datza; hau da, islamenduarekin, kontrolarekin, debekuarekin eta emakumearen balioa gutxitzearekin zerikusia du. Giro honek beste zenbait jarduera sortzen ditu, garrasiak, irainak, mehatxuak, hondamen giroak, mespretxuak, apalkuntzak ematen dira behin eta berriro eta “bikotearen bizitzeko modua” bihurtzen dira.

Laguntza profesionala ezinbestekoa da emakumearentzat zein bikotearen seme-alabentzako. Laguntza familiarra, soziala, psikologikoa eta juridikoa eta baita autonomia ekonomikoa ere. Hauek, epaiketaren momentuan zein epaiketaren ostean eman behar dira emakumeak erabaki propioak har ditzan.

Bestalde, biktimologian emandako aurrerakuntzek, genero indarkeria sufritu duten emakumeen arreta eta errendimenduaren hobetzea ekarri du. Gainera, biktimologiak kontu hauek ekarri ditu (Stock, B. S., 2015):

- a) Indarkeriaren ziklo ez da beti egongo. Baina, behin agertzen denean geldiaraztea zaila da. Izan ere, bikotea edo bikote ohia “errusiar erruleta emozional” batean murgilduta egongo balitz bezala da.
- b) Genero indarkeriaren ondorioak oso ezberdinak dira. Hala ere, errepikatzen direnak: mehatxu sententzia bere bizitzari eta segurtasun pertsonalari, islamendu soziala, errudun sentimendua, auto-estima baxua eta bizitza osasuntsuaren galtzea.
- c) Biktima ez da bakarrik emakumeak egiten duen salaketari bakarrik erreferentzia egin behar. Biktima, delituarengatik zuzenean edo zeharka mina jasan duen pertsona izan daiteke. Definizioan, gertaera traumatikoaren edo delituaren ondorio negatiboak jasaten dituen edozein pertsona kontuan hartuko da.
- d) Indarkeriari aurre egiteko ezinbestekoa izango da laguntza profesionala, ez da bakarrik prozesu judizialean zentratzen. Itxaropena da bereziki lantzen dena, bereziki emakumeek galtzen duten lehenengo sentimendua delako. Indarkeriarekin bukatzeko banatzea ez da beharrezko konponbidea izango eta profesionalek ez dute helburu garrantzitsu bezala izango biktimei laguntzeko.

Ondorioz, prebentzioa eta zigorra ezartzen duten lege integralen beharra ezinbestekoa da. Hortaz, arauak eszenatoki konkretu baten arabera eginak egon behar dira, horrela, indarkeria ematen denean, zigorra ezarriko da.

3. MARKO ENPIRIKOA

3.1. Sarrera

Alde praktikoarekin hasi aurretik atal honetan zer azertu nahi dudana azaltzea ondo legoke. Batetik, Emakumearen Erakunde zerbitzuak ematen dituen estatistikak ulertu eta horien inguruan azalpena bat emango dut. Bestetik, Haize Berria erakundearen zentratutako, genero indarkeriaren biktima izan diren emakume batzuekin elkarrizketak izan eta beraiek izan dituzten esperientzien inguruan mintzatuko dut.

Gaur egun, emakume hauek izaten dituzten esperientzietan zentratzea garrantzitsua iruditzen zait; bereziki, prozedimendu judizialak, legeak zein gizarteak egoera honi aurre egiten nola lagundu dion jakin nahiko nukeelako. Hortaz aparte, ez-babesgabatasunaren erantzunaren aurrean nolabaiteko ondorio batzuetara iristea izango da helburua. Ondorioz, emakume hauen laguntzaren beharrezkotasunaren adierazpena izango da.

3.2. Estatistikak

Emakumearen Erakundeak, Osasun, Gizarte Zerbitzuen eta Berdintasun Ministeriori atxikita dagoen erakunde autonomoak (Espainiako Gobernuak)⁷, genero indarkeria sufritu duten edo kasu hauetan sufritu zuten emakumeen eta gizonen arteko estatistikak ematen dizkigu.

Ikusi daitekeenez (1. irudia), 2018. urtetik 2020. urte arte genero indarkeriaren sufritu duten biktima hilkorren kantitatea handitu da. 2020. Urteko datuak apirilaren 6ra arte bakarrik izango ditugu baino argi ikusten da urteko 4 hilabeteetan %77,8arekin

⁷ <http://www.inmujer.gob.es/MujerCifras/Violencia/VictimiasMortalesVG.htm>

2019. urteko %72,7a gainditzen duela. Beraz, urtean zehar aurreko zenbakiak gaindituko dituelaren pronostikoa izango dugu.

Bikote eta bikote ohia edo apurketa fasean zeuden emakumeen analisiari dagokionez, gehiengoak bikotearengandik jasan zuten. Bestalde hiru urte hauek ikertuz, genero indarkeria sufritu zuten biktima hilkorren ehuneko handi bat bere bikotearen bizi zen. Ondorioz, genero indarkeria gehien ematen den gunea, etxean edo bikotearekin elkarbizitzan izango da, delitua elkarrekin bizitzeagatik ematen da gehien.

| | 2020 | 2019 | 2018 |
|----------------------------------|-----------|-----------|-----------|
| Apirilaren 6a | | | |
| ERLAZIOA | 18 | 55 | 51 |
| Bikotea | 14 | 40 | 34 |
| Bikote ohia edo apurketa fasea | 4 | 15 | 17 |
| Bikote % | 77,8 | 72,7 | 66,7 |
| Bikote ohia edo apurketa fasea % | 22,2 | 27,3 | 33,3 |
| ELKARBIZITZA | 18 | 55 | 51 |
| Bai | 14 | 36 | 32 |
| Ez | 1 | 12 | 16 |
| Ez dakigu | 3 | 7 | 3 |
| Bai % | 77,8 | 65,5 | 62,7 |
| Ez % | 5,6 | 21,8 | 31,4 |
| Ez dakigu % | 16,7 | 12,7 | 5,9 |

1. Irudia: Genero Indarkeriaren biktima hilkorak erasotzailearen eta biktimaren arabera (Espainiako Gobernua)

Biktimaren babesaren garrantzia azpimarratu ahal izateko (2.irudia) beste zenbait ezaugarri kontuan hartu behar dira, adibidez, salaketak eman diren edo ez genero indarkeria sufritu duten emakumeen aldetik edo beste baten aldetik.

| 2020 | 2019 | 2018 |
|------|------|------|
|------|------|------|

6-abr.

| Denuncia previa/continuación del proceso | TOTAL | % | TOTAL | % | TOTAL | % |
|--|-----------|--------------|-----------|--------------|-----------|--------------|
| TOTAL | 18 | 100,0 | 55 | 100,0 | 51 | 100,0 |
| Con una o más denuncias previas | 2 | 11,1 | 11 | 20,0 | 15 | 29,4 |
| Interpuesta por la víctima | 1 | 50,0 | 9 | 81,8 | 14 | 93,3 |
| Interpuesta por otros | 1 | 50,0 | 2 | 18,2 | 1 | 6,7 |
| Sin denuncias previas | 16 | 88,9 | 44 | 80,0 | 36 | 70,6 |
| Total casos con denuncia previa | 2 | 100,0 | 11 | 100,0 | 15 | 100,0 |
| Continuación del proceso | 0 | 0,0 | 7 | 63,6 | 10 | 66,7 |
| No continuación del proceso/retiraron denuncia | 2 | 100,0 | 2 | 18,2 | 5 | 33,3 |
| No consta | 0 | 0,0 | 2 | 18,2 | 0 | 0,0 |

2. Irudia: Genero Indarkeriaren biktima hilkorak erasotzailearen eta biktimaren arabera (Espainiako Gobernuak)

Bigarren irudia aztertzen baldin badugu, ezaugarri batzuk asko deitzen dute atentzioa; esaterako 2018 urte eta 2019 urteetan eman diren salakatea kantitatea eta baita salaketa kantitate eza.

Genero indarkeria sufritu duten eta kasu honetan hil ziren %20-%30ak bakarrik salatu zuten. %70-80ak ez du salatzen eta bereziki hor jarri behar zaio atentzioa. Gainera, salatzen duten %80-%90ak emakumeak berak salatzen du baino beti dago %6 eta %18an kokatzen diren emakumeak, hau da, berarengatik salatzen duten beste pertsonak. Taula hauen inguruko hausnarketa bat egiteko bi alderdi aztertu behar dira edo behintzat bertan arreta jarri beharko dugu.

Alde batetik, garrantzia eman beharko genieke salaketa burutu zuten emakumeei. Izan ere, nahiz eta salaketa bat tarteratu genero indarkeriaren hildakoak bihurtzen dira. Arazoa babesgabetasunean jarri beharko genuke. Nola liteke, salaketa bat jarri arren pertsona bat hilda bukatzea?. Hala ere, ez da emakume bat bakarrik, bi urte hauetan, 11 eta 15 artean dira.

Beste alde batetik, salaketak ez jartzeari garrantzia eman behar diogu. Delitu bat burutu, kasu honetan genero indarkeriaren biktima izan, tratu apalesgarri eta txarrak jasan eta salatzea ez nahi. Seguraski, aurreko aipamenarekin zerikusia izango du; hau da, salatu arren emakumeak hiltzen badira, salatzeak ez ditu emakumeak behar bezala babestuko. Legearekiko ez babesgabetasun horretan lan egin beharko litzateke.

Tratu apalesgarri eta txarrak sufritu izan zituzten emakumeen estatistikak alde batera utzi gabe, tratu hauek jasaten dituzten emakumeen adina aztertzea interesgarria iruditzen zait.

| | | 2020 | 2019 | 2018 |
|---------------|-----------------|---------|------|------|
| | | 28-may. | | |
| VÍCTIMA | TOTAL | 19 | 55 | 51 |
| | 15 años o menos | 0 | 0 | 0 |
| | de 16 a 17 años | 0 | 1 | 0 |
| | de 18 a 20 años | 0 | 0 | 1 |
| | de 21 a 30 años | 2 | 10 | 7 |
| | de 31 a 40 años | 4 | 10 | 14 |
| | de 41 a 50 años | 5 | 22 | 17 |
| | de 51 a 60 años | 1 | 7 | 5 |
| | de 61 a 70 años | 3 | 2 | 3 |
| | de 71 a 84 años | 4 | 1 | 3 |
| 85 años o más | 0 | 2 | 1 | |

3. Irudia: Genero Indarkeriaren biktima hilkorak erasotzailearen eta biktimaren arabera (Espainiako Gobernua)

Biktima gehienak 41 eta 50 urte artean kokatzen dira (3. Irudia); bigarrenik, 31 eta 40 urteko emakumeak dira. Biktimen adinari erreparatzea garrantzitsua iruditzen zait, gehienbat pertsona horiek duten bizimoduagatik aztertzea beharrezko ikusten dut. Normalean, 15 urte baino gutxiago eta 30 urte arte artean kokatzen diren emakumeak errekurtsio gehiagoz baliatzen direla esan dezakegu. Izan ere, errekurtsio familiarrez baliatzea urte tarte horretan askoz errazagoa da familiako kideak gure ondoan izango ditugulako. Hortaz aparte, errekurtsio sozial gehiago ere edukiko ditugu, adibidez, lagunak, lan kideak, etab.

Ondorioz, instituzioen eta erakundeen aldetik laguntza gehien jaso behar dituzten emakumeak izango dira. Honek ez du esan nahi aurrekoak behar ez dutenik, baizik eta adin tarte horretan kokatzen direnak, babesgabetasun egoeran bizitzen direlarik, laguntza gehiago eskaini behar zaiela.

3.3. Genero indarkeria sufritzen duten emakumeen egoera bitartean eta “post delito”

Genero indarkeria sufritzen duten emakumeak, iluntasunean eta isolamenduan dauden emakumeak dira. Genero indarkeriaren kontzeptuak esaten duen bezala, bikotearen edo bikote ohiaren aldetik indarkeria jasaten duena izango da. Indarkeria fisikoa, psikikoa edo sexuala izan daiteke eta neraberazoran lehenengo harreman

ezkongaeiekin hasten da. Urteetan zehar bizitza “normal” baten bila, biek maitasuna ikasitako baloreen eta hezkuntzaren arabera hezten da.

Maitasunaren inguruko sinesmenak txikitatik ikasi dira. Izan ere, gizonak emakumeari horrela ez janzteko eskatzearen detailea, aurpegia ez margotzeko eskaera, lagunekin edo familiakoekin ez joateko eskaera. Elementu guzti hauek dependentziarekin zerikusia dute. Dependentsia pertsona batekin maitasunezko erlazio bat hasten denean garatzen den ezaugarri nagusienetariko bat da. Dependentsia hasten den momentuan, gure identitatea eta benetazko maitasuna galtzen da, fantasia bat bilakatuz.

Indarkeria, hitzezko edo emoziozko indarkeriarekin hasten da, bikotearen parte izaten den elementu baten sinesmenaz. Indarkeria, indarkeria fisikoarekin beti alderatu da; hain zuzen, fisikoa ematen ez den heinean indarkeriarik edo deliturik ez dagoelaren ideia. Hitzezko nahiz emoziozko indarkeriak eman, psikologikoak kontsideratzen direnak, hasierako ziklo biolentoaren lehenengoetariko elementuak dira. Hitzezko eta emoziozko indarkeria bikote baten parte dela ikasten dugu, noizbehinka bikoteak izango dituen egoerak direla.

Indarkeriaren zikloari buruz ari naizenean, genero indarkerian bereziki ematen den prozedura bat da. Izan ere, gizonak maitasun askoz emakumea maitatzen eta zaintzen du. Hurrengo egunean indarkeria psikologikoaren edo emoziozko indarkeriarekin hasten da. Emakumea errudun sentiarazita gizonari barkamena eskatzen dio dena konpondu nahian. Hurrengo egunean, indarkeria fisikoa bilakatzen da eta emakumea kolpatu edo zauritu egiten da. Indarkeria fisikoa eman ostean emakumeari barkamena eskatzen dio eta hortik aurrera emango diren egunak, erlazioko lehenengo hilabeteak izango balira bezala bizitzen da. Ondorioz, biziozko borobil baten barnean garatzen da erlazioa.

Jarraitzeko aurretik esan bezala, indarkeria hori gero eta gehiago garatu daiteke. Edozein faktore izan daiteke eragilea baino argi dago, erasotzaileak patroi batez osatuta dagoela. Hau da, biktimek bizi izan duten edo bizitzen ari diren egoeraren arabera (estatu soziala, ekonomikoa, etab), biktima izateko aukera handiagoa izango dute. Erasotzaileetan aldiz, ez da zertan estatus soziala edo ekonomikoa kontuan hartu behar ez delako indarkeria hori sortzearen arrazoia oinarria. Gizonen indarkeria jasandako hezkuntzagatik gehienbat izaten den ondorioa da.

Biktimari berriz erreparatuz, ziklo biolentoa hasten den momentutik aurrera emakumea guztiz eraldatzen da. Gehienbat gizonak, emakumeak gutxiesten, autoestima ezabatzen eta erlazio sozialetatik eta familiarretatik aldentzen dituzte. Honen arrazoia, besteek esan eta egingo dutenaren defentsa mekanismo bat bezala ezagutzen da. Egoera askotan, guztietan ez esateagatik, emakumeak errudun sentitzen dira.

Erruduntasun hori ulertzeko, izandako hezkuntzan jarriko nuke begirada. Emakume izateagatik eta emakumearen rola bereganatzeagatik, izateko eta jokatzeko modu bat esleitu zaio betidanik emakumeari. Izan ere, etxeko andrea izan behar dela, seme-alabak zaindu behar dituela, liluragarria izan behar dela, besteen artean. Horren harira, horrelako egoera batean, egoera familiarra hautsi delaren arrazoia emakumea bera dela pentsatzen du. Erruduntasun sentimendu hori ematen denean, egoera hobetzen saiatzen beste aukerarik ez dagoelaren ideia edukita. Beste zenbait erlazioetatik aldentzen denez, ez dute beste pertsona batzuekin egoera hori komentatzeko aukera eta isolamenduan mantentzen dira.

Familia lotura ez apurtzeko eta askotan, seme-alabak ez iraintzeko emakumea “egindakoa” berreraikitzen da, behin eta berriro. Momentu bat iristen da non emakumeak gehiago ezin duen baino errekurtsio gabeziak ez du emakumea egoera horretatik ateratzen. Batzuetan, lagunak mantendu dituztenen laguntzarekin lortzen da; beste batzuetan, seme-alaba nagusiak direnean, etab.

Aurrekoari erreparatuz, seme-alabak edukitzearen zailtasuna azpimarratu nahiko nuke. Izan ere, seme-alaba txikiak dituztenean eta prozedimendu judizial edo salaketa bati hasiera ematen seme-alabek jasan dezaketen agirakaren beldur dira. Alde batetik, aitaren aldetik aldentzean umeetan sor daitezkeen ondorioak, eta bestetik, emakumeak laguntza behar izatekotan, umeak beraren aldetik aldentzen direla.

Egoera latz horrekin bukatu delaren ideia hasten denean, prozedimendu judiziala hasten da. Prozedimendu judiziala ez da zertan salaketa bat izan behar, seme-alabekin zerikusia izango duten prozesuak izan daitezke. Genero indarkeria delituak ematen diren kantitate guztietatik emakume gehienak ez dute salatzen. Ez salatzearen arrazoia, beldurra da. Hala ere, beste egoera batzuk daude non prozedimendu judiziala hasten den gizonaren aurka, genero indarkeriaren delitu batengatik.

Baina, prozedimendu judiziala egun batetik bestera konpontzen dituen harraminta bat dela uste dugu. Prozedimendu judizialak oso astiro doaz, beste zenbait delituetan bezala baino kasu honetan bereziki aipatzea interesgarria iruditzen zait, pertsona baten eskubide eta bizitza arriskuan dagoelako. Pertsona horretaz aparte, seme-alabak ere arriskuan egon daitezke.

Denbora guzti hori ematen den bitartean, gizonak urruneko ordena izaten dute, bigilantziako gailuak, behin behineko espetxe zigorrak, besteen artean. Seguraski, behin behineko espetxeak ematen direnean emakumeak askoz lasaiago suertatzen direla esan daiteke. Hala eta guztiz ere, gailuak edo ordenak dituzten gizonak, zeintzuk kontrolatzen dituzte? Kontrolatu balituzte ez ziratekeen emakume asko hilko urtero. Nahiz eta gailuak eta ordenak kontrolatzen dituzten pertsonak egon, emakumearengana iristen den momentuan zerbait hautsi egin delaren ideia dago.

Aurreko neurriei dagokionez, gizonak espetxean dituzten emakumeen egoera azpimarratu nahi dut. Euskal Autonomia Erkidegoko eta seguraski mundu osoko emakume gehienak ziurgabetasun egoeran bizi dira. Gizonak espetxean egonda, beraien zigor kantitatea betetzen, irteerazko baimenak izateko aukerak dituzte. Gizonak dituzten aukeren ondorioz, emakumeak ezin dute hitz egin eta are gutxiagoa aurpegia eman. Aurpegia ez emateaz aparte, gizonak dituzten irteera bakoitzean emakumeek bizkartzain baten babesa izango dute. Bizkartzain baten lana laguntza izugarritzko profesio bat bezala ikus daiteke. Hala ere, non geratzen dira emakumearen ezinbesteko eskubideak? Askatasuna, independentzia, autonomia, etab.

Prozesuak sententzia irmo bat ematen duen momentuan emakumea bizitza askatasunez bizi dezakeela pentsatzen da. Askotan horrelako egoerak eman daitezke baino Espainian ezagutzen diren emakume gehienak sufrimenduan jarraitzen dute. Sufrimendu horrekin bukatzeko asosizazio edota erakundeen laguntza bilatzen dute. Erakundeek legalki aholkatu, atentzio psikologikoa, errekurtsoak eta birgizarteratze elementuak eskaintzea ezinbestekoa da. Emakume guztiek, modu batean edo bestean, atentzio psikologikoa behar izan dute. Atentzio psikologikoaren jardueretan terapia indibidualak edo taldekakoak izan dituzte. Terapia hauek denbora luzeko jarduerak dira, urteak iraun dezaketenak.

Esku-hartze talde hauek, emakumeak gizartean, kasu honetan gizonetan, berriz sinestea sorrarazten du. Terapia hauek ez dira denbora gutxiko esku-hartzeak izango,

baizik eta emakumeak guztiz erreparazioa lortu dutenean bukatuko da. Gehienak, bizitzari aurre egiteko baliabideak edo beraien burua aurre egiteko ez ikusi, terapia utzi eta beste emakume asko laguntzen saiatzen dira.

Emakumeen sufrimenduari buruz hitz egiteko eta behar duten laguntza azpimarratzeko Fernandez Diaz, M.C.-ek ematen duen Frida Kahlo-ren esaldi bat kotnuan hartuko nuke:

“Amurallar el propio sufrimiento es arriesgarse a que te devore desde el interior”
(Fernandez Diaz, M.C., Frida Kahlo aipatua, 2007-2008)

Esaldi honekin, sufrimendua gorde eta lurperatzen duten emakume eta biktimei zuzentzen da. Izan ere, sufrimendu hori ezkutatzen dutenek, kanpora irtetzeko edota nahikoa esateko erabakia oztopatzen du. Beraz, sufrimendu horretatik irtetzeko profesionalak behar dira, baita gizarteko kideen parte-hartzea ere.

Genero indarkeriaren bitarteko egoera eta “post delitu”-arekin bukatzeko, delituaren aurreko prebentzio jarduerak ematen ari direla argi dago. Hala ere, prebentzio eta interbentzioarekin ez da nahikoa izango. Genero indarkeria gure gizartean mantenduko den delitu bat da eta ematen den bitartean gizartearen eta bereziki emakumeen zaintza ezinbestekoa da. Horregatik, sententzia edo banaketa bat eman ostean emakumeen inguruko jarraipena eta hobekuntza eman behar da. Ezin dira emakumeak bakarrik utzi.

4. Ondorioak

Gradu Amaierako Lan honen bitartez, biktimen eta bereziki genero indarkeria sufritzen duten egoera landu nahi izan dut. Izan ere, biktima hauek babesgabetasun egoera bizi izan dutenez, honen aurrean ohartaraztea eta erantzun bat ematea eskatzen da gizarte bezala. Kriminologia ikasten ari naizenez, ezinbestekoa izango da prebentzio, interbentzio, jarraipen eta hobekuntza baten alde lan egitea. Beraz emakumeei, genero indarkerian, ez zaie behar duten garrantzia ematen.

Lan honi esker, mundu osoko biktimen egoera nola aldatu den ulertu dut. Kriminologiari eta bereziki biktimologiari esker, biktimak irabazi duen lekua eta hartu duen indarra. Genero indarkeriaren biktimek delituaren bitartean eta “post delitu” bizi izan dituzten egoera ezberdinak ulertzeko Haize Berria erakundearekin kontaktuan jarri naiz; emakumeen babesgabetasuna ulertzeko.

Horrez gain, genero indarkeriaren biktimek bi egoera sufritzen dituzte. Alde batetik, delituaren bitartean jasaten duten babesgabetasuna; hau da, delituari konponbidea jartzeko ezgaitasunik ez izatea. Bestetik, delituaren berri ematen denean, erasotzailea zigortzen denean, emakumeen ezegonkortasun nabaria. Azken hauek, babesgabetasunean jarraitzen dute.

Bestalde, gizarteak duen eginkizunaz ohartu naiz; izan ere, biktimentzako gizarteko beste kideek duten garrantzia. Emakume asko, babesgabetasunaren oinarri, errekurtso sozial zein familiarrik gabe bizi dira. Errekurtso horiek izateak emakumeak laguntzen ditu. Esaterako, seme-alaba nagusiak izateak emakumea hortik ateratzea lortu dezake edota lagun baten lagunak duen kontaktu baten bidez biktimaren bizitza guztiz aldatu daiteke. Presentziaz aparte, entzute aktibo baten beharra dago. Errekurtso guzti hauek eman ahal izateko profesional kualifikatuen beharraz ohartu naiz; kriminologo, psikologo, birgizarteratze profesionala, etab.

Hortaz aparte, profesional kualifikatu hauen formakuntza berritu behar denaren sentrazioa daukat. Prozedimendu judiziala aurrera eramaten duen pertsonetatik, laguntza eskaini, terapia eman, bizkartzain modura jarduten duena edo beraren ondoan denbora igaroko duen pertsonararte profesionaltasuna behar da.

Hobekuntza proposamen bezala, gehien sumatu dudak gabezia da genero indarkeriaren biktima izan diren emakumeen jarraipena eta babesa. Hala ere, aurreko esku-hartzea ere aipatzea interesgarria iruditzen zait, prebentzio esku-hartzea delako eta delitu hauek ekidin ahal dituelako. Emakumeen jarraipena, delitu ostean eta erasotzailearen aldetik alden du den momentuan, egoera horrek dakarren ondorio guztien aurre egiteko baliabideak mantentzea.

Jarraitzeko, genero indarkerian laguntza ematen duten erakundeen informazioa lortzeko baita biktimekin elkarrizketak burutzeko zailtasunak izan ditudala aitortu beharra daukat. Haize Berria elkarteari esker fundatzaile baten bizitzaren inguruan informazioa jaso dut; hau da, bikote erlazioaren hasieratik bukerararte sufritutako indarkeriaren berri izan dut. Fundatzaile bezala beste emakume batzuei ahotsa eta aurpegia jartzen die eta horren ondorioz, emakume hauen egoera ere jakin izan dut.

Gainera, emakumearen ausardiaren ondorioz bere egoera detaile guztiekin jakitea lortu dut. Hala ere, beste emakumeen egoera detaile guztiekin jakin izan ez arren,

babesgabetasunean bizitzen direla jakiteko informazio nahiko bereganatu dut. Emakume hauek gizonak espetxean jarraitzen dutelako ezin dute informazioa eman ezta bizitza lasaitasunez bizi.

Bukatzeko, Gradu Amaierako lana esfortzu asko ekartzen duen lana dela esan beharra daukat; nahiz eta zer aztertu nahi duzun argi eduki, lanean zehar zailtasun eta zalantza askorekin aurkitzen zara. Zailtasun eta zalantza horien presentziak lana beste modu batean planteatzea dakar. Genero Indarkeriaren gaia gaur egungo deliturik mediatikoena dela esan daiteke eta emakumeek sufritzen dituzten bitarteko eta ondorengo egoeraren garrantzia azpimarratzea interesgarria iruditzen zitzaidan. Hala ere, nire helburuak lanean zehar garatu ditudala eta Kriminologiako Graduak eskaini dizkidan kontzeptuak lana bideratzeko baliagarriak izan zaizkidala uste dut.

5. Dekalogo

Genero indarkeria sufritu duten emakumeentzako babesa eskasa dela argi dago. Nahiz eta laguntza eman, askotan ez dira beharrezkoak diren elementu guztiak ematen. Biktimaren babesean eta biktimaren rola gainditzen lagunduko duten erakunde ezberdinek zein legeek elementu hauek eduki behar lituzkete:

1. Formazioa eta sentsibilizazioa

Ilustre Colegio Oficial de Médicos (d.g.)-en arabera, formazio eta sentsibilizazioa bi eremuetan eman daiteke; alde batetik, adingabeen eremuan eta bestetik, helduen eremuan. Adingabeen eremuari dagokionez, ikastolan umeak gaur egungo fenomenoaren inguruko informazioaz hornitu behar da. Informazioz hornitzeaz aparte, ematen diren egoerak eta beraiek bizitzen dituzten egoeren analisia ere ezinbestekoa da. Honek, adingabeetan ematen diren indarkeria jarduerak detektatu daitezke, eta gainera, etorkizuneko zenbait erasotzaile ekiditea ere ekarri dezake. Aurretik aipatu ditudan, eta beste herrialde batzuetan, aplikatzen diren programak bultzatzea alternatiba bat izan daiteke indarkeria ekiditeko.

Bestalde, helduak informazioaz hornitzea eta hezkuntzan eragitea zailagoa dela esan daiteke. Helduen bizitzan ematen diren egoerak detektatzeko ematen da gehienbat informazioa. Hala ere detekzioaz aparte, besteengan hezkuntza modu egokian bideratzea ekarriko du, etorkizuneko erasotzaileak murriztuz.

Gaur egun, genero indarkeriaren zein berdintasunaren aldeko elkarrizketa asko daudela badakigu baino jendea parte hartzera animatu behar da. Gainera, gero eta jende gehiagorengana iristen baldin bada, genero indarkeriazko jarrera bat lehenago detektatzeko aukera izango dugu.

2. Detektatzeko mekanismoak

Gaur egun, genero indarkeria detektatzeko zenbait mekanismo daude. Espainiako Gobernuaren⁸ arabera (2019), komunikabideetan, unibertsitateetan, teknologia berrietan, besteen artean aurki ditzakegu. Behin detekzioa eman dela, emakumearen osasuna eta segurtasuna kontuan harturik, fenomeno deliktiboa abordatzen saiatu behar da.

Bestalde, komunikabideak edo teknologia berriak eskura ez dituztenentzako konponbide bat bilatu behar da. Konponbideetariko bat, gizartearen kontzientziazio sozial handiagoa izan daiteke. Gizarteko kideen laguntza, isolamenduan bizi diren emakumeen babesa bermatzeko.

3. Babesa

Delituaren osteko ondorioak emakumeen eragin negatiboak sortzen ditu eta momentu horretatik aurrera, gizartearentzako eta zuzenbidearentzako biktima bihurtuko da. Berriz ez gertatzeko, beharrezko izango da emakumearen babesa erakunde eta instituzioen aldetik. Hau da, delitu eta delitugilearen aldetik urrunduko duena.

Nahiz eta kontuan ez hartu, gizarteko beste kolektibo batzuek edo errekurtsio sozialek ematen duten laguntza ere ezinbestekoa izan daiteke indarkeriazko egoera batean.

4. Atentzio psikologikoa

Gertakari traumatiko baten ostean, edozeinek beharko luke atentzio psikologikoa. Delitu batek pertsona batengan duen inpaktua gatazkatsua izan daiteke pertsona berarentzat. Kasu batzuetan bakarrik egoera horri aurre egiteko gaitasuna izango ez

⁸ <https://violenciagenero.igualdad.gob.es/informacionUtil/guia/home.htm>

duenez, ezinbestekoa izango da atentzio psikologiko-terapeutikoa emango dion profesional baten laguntza.

5. Erresilientzia

Erresilientzia gertakari traumatiko baten eraginez sortu diren ondorio negatiboetara aurre egiteko gaitasuna dela esan dezakegu. Emakumeak erresilientziaz hornitu behar dira beraiek erreparazio oso lortu dezaten.

6. Aholkularitza

Behin delitua gertatu denean, ez dakigu zein baliabide izango ditugun gure eskura. Horretarako aholkularitza departamentuak, figura profesionalez osatuta egon behar direnak, emakumeari ondoen etorriko zaion irtenbideak aholkatuko dizkio. Biktima egoera salatzerara bideratu behar da.

7. Baliabide eta errekurso pertsonalak eman

Instituzio eta erakundeek emakume hauei laguntza eskaintzen dizkiela argi dago baino emakumeak baliabidez eta errekurso pertsonalez hornitu beharko ditugu bizitzan aurrera jarraitzeko eta horrelako egoera berri batean emakumeak zer egin dezaketen jakin ahal izateko. Errekurso pertsonalak, gaitasun eta ezagutzaz osatuta daude zeinak emakumeak ongizatea lortzera bideratuko dituzten (Ilustre Colegio Oficial de Médicos, d.g.).

8. Birgizarteratzea

Behin gertakari deliktiboa emanda, emakume gehienak beldurriak bihurtzen dira eta askotan oso ezegonkorrak gizaratearekiko. Berriz gizaratean sinesteak eta jendearen konfiantza lortzeko birgizarteratzea beharrezkoa da. Horretarako, gizarateko beste zenbait kolektibo eta kideren laguntza behar da.

9. Jarraipena eta hobekuntzak

Jarraipena eta hobekuntzak elementu garrantzitsuenetarikoak dira, hau da, behin baliabide nahikoak eman direlaren ideiarekin ez da nahikoa izango. Emakume horren garapenean arduratu behar gara eta horretarako profesional espezifiko batzuen jarraipena behar da. Gizartea aldatzen doan heinean, emandako baliabideak eraldatu edo hobetu beharko ditugu kasu bakoitzari ondoen moldatzeko.

6. Eranskinak

Genero indarkeria sufritu duen Haize Berria erakundearekin elkarrizketa eta fundatzaile eta biktima izan den emakume baten elkarrizketa sakona

Genero indarkeria sufritu duten emakumeen asoziazioa Haize Berria deitzen da. Haize berria, biktima izan ziren emakume batzuegatik sortu da. Egoera latza dela eta, asoziazio horren parte diren emakume guztiek ezin dute aurpegia eman eta lasai askoz egoerari buruz hitz egin. Fundazio honetan emakume bat dago zeinak elkarrizketa zein telebistara joateko figura izango den. Hitz egin ezin duten emakumeen ahotsa da. Beste emakume batzuekin zuzenean ez hitz egiteak babesgabetasunaren oinarrian datza. Izan ere, asoziazio horren parte diren bi emakume, gizonak espetxean daudelarik, ezin dute inolako elkarrizketarik burutu. Beraz, esan daiteke guztiz isolamenduan eta iluntasunean bizi diren emakumeak direla. Gainera, beldurrez osaturiko emakumeak direla esan daiteke.

Isildutako emakume guztiei ahotsa jartzen dien emakumea Manoli du izena. Manoli 56 urteko emakume bat da zeina biktima izan zen 23 urtetan zehar. Emakumeak, 19 urte zituen lehen aldiz genero indarkeria sufritzen hasi zenean. Indarkeri fisiko eta psikologikoa jasan zuen. 23 urteetan zehar, gizonak Manoli bere ingurukoetatik eta familiarik aldendu zuen, auto-estima gero eta gehiago ezabatuz. Bera urte horietan bakarrik sentitu zen. Hasiera batean, 19 urteko emakumearen ezjakintasuna azpimarratzea ezinbestekoa. 19 urterekin ez zen kontziente egoeraz, erlazioaren parte izan zezakeela pentsatzen zuen.

Beranduago, seme-alabak zituenez ez zen kapaza izan egoera horrekin bukatzeko, beraz, ahal zen moduan edo gizonarentzako egokien zen egoeran aurre egin zion. Beraren ustez, bere seme nagusia egon izan ez balitz, bera ez litzateke gaur egun hemen egongo, horregatik garrantzitsua da aipatzea beste errekurtso familiar batzuk izateak egoerari aurre egiten lagun dezakeela. Instituzioen inguruan ez zuen ideiarik eta berak aipatzen zuen bezala, emakumeak etxean isolaturik babesgabetasunean sentitzen dira eta askotan erakunde edo instituzioen lana hobetzea eta indartzea eskatzen duen emakumea da. Denbora aurrea joan zenean, bere seme txikia aitaren eskuetan zegoela ikusita, beste semearekin aitarengandik aldentzea erabaki zuen. Hortik aurrera, laguntza bilatzen hasi

zen. Ezjakintasunean ofiziozko abokatu batengana jo zuen, bat ordaintzeko aukera ez zuelako, eta beraren ondorioz, abian jarri zuen prozedimendu judiziala.

Beldurrez beteta zegoelarik, emakumeak ez zuen inoiz salaketaarik ipini. Abian jarri ziren sententziak gizona aita moduan elikagarrien errenta ez pasatzeagatik izan zituen behin eta berriro. Manoli dagoen lekuan egotearen arrazoia salaketaarik ez jarri izana da. Prozedimendua abian zegoen bitartean gizona etxean egoten jarraitu zuen 5 hilabetetan zehar. 5 hilabete pasa ondoren, etxetik joatea lortu zuen. Hala ere, nahiz eta etxetik joan, Manoli etxera iristen zen bakoitzean zerbait faltatzen zitzaiola konturatu zen. Errentak, identifikazio paperak, etxebizitzako paperak, bereziki ezinbestekoak zirenak emakumeak laguntzak eskatu ahal izateko.

Hilabete batzuk pasa ondoren Manoli bere bikote ohiarekin topatu zen ustekabeen. Momentu hori berak deseroso eta ahaztezin bezala gogoratzen du. Prozedimendu judiziala abian egonda, bere etxean ez sartzearen eskakizuna egin ostean bikote ohia bere aurrean agertu eta ez zion begirada momentu bat ere ez kendu. Laguntza eskatu nahi ez zuelaren beldurrarekin, lagunak proposatu zion laguntzari uko egin zion. Hala ere, hortik aurrera Manolik, bere lagun baten laguntzarekin, Ertzaintzako gizon batengana hurbildu zen laguntza eske. Ertzaintzako kideak terapia batera joatea eskaini zion eta baietza emanez, 18 hilabete pasa zituen. Terapiarekin hasi zenean bere bizitza aldatzen hasi zela jakin zuen, hala ere, terapiara iritsi zen egunerarte denbora asko pasa zen.

Terapiatik irten zela, Eusko Jaurlaritzak hitzaldi batzuk ikastegietan ematea eskatu zion. Beraren baietza abian jarri zen. Denborarekin konturatu zen asoziazio baten beharra zegoela. Asoziazio honek genero indarkeria sufritzen hasi ziren emakumeak lagundu eta delituaren eta prozedimendu judizialaren bitartean zeuden emakumeak lagundu nahi zituen. Babesgabetasun horretan dauden emakumeak salatzerantz animatuz.

Erakundea emakume biktimei askatasuna eta laguntza emateko sortu zen. Hortaz aparte, lan prebentibo moduan jarduten dute zenbait ikastegietan. Bertan, elkarrizketak ematen dituzten emakume goiztiarren egoerak jakiteko eta bereziki, egoera hauen berri emateko. Hain urrun egoera hauek kokatzen ez direlaren ideia sartzen die buruan. Horrelako egoera bat detektatzen duten momentuan plan bat jartzen dute abian eta behar dutenentzako asesoramendua ematen zaie.

Ondorioz, Manolik emakumeen ezjakintasuna azpimarratzen zidan, baita askoren babesgabetasuna ere. Hortaz aparte, gaur egun dauden baliabideak (iragarpenak, interneteko plataformak, 016 zenbakia) oso garrantzitsuak direla esan zidan. Berak horrelako aukerak existitzen ez zirelaren ideiarekin delitua edota egoera latzari aurre egin behar izan zion.

Azkenik, bera izan zuen eta duen indarraz arro dago baino badaki bere asoziazioa osatzen duten beste emakume askok ez dutela zorte hori eduki. Horregatik, bikote ohiak kalean dituzten emakumeen, edo espetxean irteera baimenekin dauden bikote ohietatik emakumeak gehiago babestu behar direla pentsatzen du eta bere asoziazioa prebenitzeko harramintak izateaz aparte, esku-hartzeko harramintak ere dituela kontatzen du.

Zerbait hobetu beharko balu, emakumeen babesa eta delitugileen gehiegizko kontrolaz aparte, fundazio edo asoziazio gehiagoren existentzia behar dela esaten du baita gizartearen parte hartzea ere. Beraren ustez, txikitatik hezkuntzan txertatu behar den fenomeno bat da eta erlazio osasuntsuak izaten ikasi behar dugula azpimarratzen du. Beraz hau ematen baldin bada, zenbait fenomeno deliktiboarekin bukatuko genuke.

Prozedimendua bideratzeko lege eta akordioak

II Acuerdo Interinstitucional para la mejora en la atención a las mujeres víctimas de violencia en el espacio doméstico y de agresiones sexuales, firmado a nivel de la CAE en 2009.

12/2008 Zerbitzu Sozialen Legea era 185/2015 Dekretua. Azken honek Foru Aldundiak eman behar dituen errekurtso sozialak ezartzen ditu.

Tratu txarrak detektatzeko testa (Espainiako Gobernua, d.g.)⁹:

Hurrengo esaldietako bati baietza ematen badiozu tratu txarrak jasaten ari zara:

- Gutxiesten zaitu, ergel edo gauzaez sentiarazten zaitu
- Zure sinesmenetaz (erlijioso, politiko, pertsonalak) barre egiten du, kritikatzten zaitu edo irrigarri uzten zaitu
- Familia kideak, lagunak edo auzokideak kritikatu eta deskalifikatzen ditu edo hauekin erlazionatzen zarenean jelskor jarri edo borroka sortzen du

⁹ <https://violenciagenero.igualdad.gob.es/informacionUtil/comoDetectarla/home.htm>

- Dirua, janzteko modua, deiak, irakurketak, erlazioak eta zure denbora kontrolatzen du
- Alde batera uzten zaitu, isiltasunarekin zigortzen zaitu edo axolagabe erakusten da
- Oihukatu, iraindu edo zu edo zure seme-alabak mehatxatzen ditu
- Ezagunen edo seme-alaben aurrean ezeztatu edo umiliatzen zaitu
- Agindu edo egin behar duzuna berak erabakitzen du
- Errudun sentiarazten zaitu: zu guztiaren erruduna zara
- Beraren keinu eta begiradak beldurtzen zaitu
- Zuretzako garrantzitsuak diren objektuak apurtzen ditu
- Zure lana ez du baloratzen, dena gaizki egiten duzula eta traketsa zarela esaten dizu
- Erlazio sexualak edukitzera behartzen zaitu edo beste zenbait praktika burutzera behartzen zaitu

7. Erreferentzia bibliografikoak

- Abreu, M. L. M. (2006). La violencia de género: Entre el concepto jurídico y la realidad social. *Revista electrónica de ciencia penal y criminología*, 8(2), 1-13.
- Andréu Fernández, A. (2017). Víctima y desvictimización (Tesis doctoral).
- Águila Gutiérrez, Y., Hernández Reyes, V. E., eta Hernández Castro, V. H. (2016). Las consecuencias de la violencia de género para la salud y formación de los adolescentes. *Revista Médica Electrónica*, 38(5), 697-710.
- Arabako Foru Aldundia (d.g). *Genero Indarkeriaren Biktimak*. Vitoria-Gasteiz (Araba): Arabako Foru Aldundiaren Argitalpen Zerbitzua. <https://web.araba.eus/es/servicios-sociales/servicios#violenciacontralasmujeres>
- Arrieta, V. (2014). Diversos escenarios judiciales y su impacto en la victimización secundaria. *Eguzkilore: Cuaderno del Instituto Vasco de Criminología*, (28), 287-320.
- Blair Trujillo, E. (2009). Aproximación teórica al concepto de violencia: avatares de una definición. *Política y cultura*, (32), 9-33.
- Bodero, E. R. (2001). Orígenes y fundamentos principales de la Victimología. *Iuris Dicitio*, 2(3), 1-10.
- Cardenas, A. E. (2011). La Victimologia como estudio. Redescubrimiento de la víctima para el proceso penal. *Revistas Prolegómenos- Derechos y valores*, 27-42.
- Chamorro, H. M. (2008). *Manual de protección a víctimas de violencia de género*. Editorial Club Universitario, 1-7.
- Echeburúa, E., eta Sáez, M. S. C. (2015). De ser víctimas a dejar de serlo: un largo proceso. *Revista de Victimología/Journal of Victimology*, (1), 83-96.
- Espainiako Gobernuak. (d.g). *Primeros Signos de Maltrato*. Madril (Espainia): Espainiako Gobernuaren Argitalpen Zerbitzua Nagusia. <https://violenciagenero.igualdad.gob.es/informacionUtil/comoDetectarla/home.htm>
- (2019). *Guía del Sistema de Acción y Coordinación en casos de Violencia de Género en España*. Madril (Espainia): Espainiako Gobernuaren Argitalpen Zerbitzua Nagusia. <https://violenciagenero.igualdad.gob.es/informacionUtil/guia/home.htm>

- Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua. *Doako Justizia Laguntza Zerbitzua*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua. <https://www.euskadi.eus/justicia-gratuita-en-que-consiste/web01-a2justic/es/>
- (2019). *Haize Berria erakundea. Genero indarkeriaren emakume biktimak*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua. <https://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/-/asociacion/asociacion-haize-berria-mujeres-victimas-de-violencia-de-genero/>
- Fernandez Diaz, M.C. (2007). La «escritura» surrealista de Frida Kahlo. *Estudios Románicos*, 16(2), 420-421
- Fundación EDE (2017). *Análisis e interpretación de datos estadísticos sobre violencia contra las mujeres en CAPV*. Vitoria-Gasteiz (Araba): Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua Nagusia. https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia_evaluacion_informes/es_def/adjuntos/analisis_interpretacion_datos_violencia_mujeres_capv_2016_ps2017_cas.pdf
- Hikal, W. (2011). El presente y futuro de la victimología: Ciencia, Filosofía y prevención. *Revista de Criminología e Ciências Penitenciárias*, 1(1), 1-13.
- Ilustre Colegio Oficial de Médicos (d.g.). Decálogo contra la Violencia de Género, Decálogo de Badajoz. <https://www.combadajoz.com/imagenes/cargaweb/files/DECALOGO%20CONTRA%20LA%20VIOLENCIA%20DE%20GENERO%20IcomBA.pdf>
- Isa, F. G. (2006). El derecho de las víctimas a la reparación por violaciones graves y sistemáticas de los derechos humanos. *El derecho a la memoria*, 12-31.
- Parlamento Europeo (2018). *Informe sobre la aplicación de la Directiva 2012/20/UE por la que se establecen normas mínimas sobre los derechos, el apoyo y la protección de las víctimas de delitos*. Europako Legebiltzarraren Zerbitzu Nagusia. Errekuperatuta: https://www.europarl.europa.eu/doceo/document/A-8-2018-0168_ES.html
- Ley Organica 1/2004, de 28 de diciembre. Boletín Oficial del Estado, núm 313. Título 1. Título 5. (2004)
- Ley Organica 5/2015, de 27 de abril. Boletín Oficial del Estado, núm 101. Páginas 36569 a 35598 (2015)
- Llamas, C. C. (2011). Política Social y asistencia a las víctimas de delitos en España: del reconocimiento legal a la protección social. *Contribuciones a las ciencias sociales*, (2011-03).
- Machicado, J. (2010). Concepto de delito. *Apuntes jurídicos*, 1-9.

- Malvido, L., & de la Luz, M. (2012). ¿Qué aporta el conocimiento victimológico a la sociedad?; Y la sociedad al conocimiento victimológico?. *Eguzkilore: Cuaderno del Instituto Vasco de Criminología*, (26), 87-106.
- Manzanera, L. R. (1988). Victimología: estudio de la víctima. *Revista Electrónica de Ciencia Penal y Criminología*, 16(r2), 1-32.
- Martos Nuñez, J. A. (2001). Derecho penal. *Civitas*.
- Mata Gomez, G. (2014). *Asociación contra la violencia de género. Asociación Alma*. Badajoz (España). <https://www.asociacion-alma.es/>
- Mujeres Bizirik (2015). Bizirik somos (Blog baten mezua). <http://mujeresbizirik.blogspot.com/>
- Porrúa Moreno Herrera, M. (2011). La víctima y los procesos de victimización. *Voces contra la trata de mujeres* (11). Sevilla (España). <http://voces.proyectoesperanza.org/la-victima-y-los-procesos-de-victimizacion/>
- Real Decreto-ley 9/2018, de 3 de agosto. Boletín Oficial del Estado, núm 188. Artículo único (2018).
- Solís Villegas, J. M., León Coello, N. O. eta Almeida Barzola, F. (2014-2015). Criminología y victimología: fenómeno de acción y reacción social, moral y psicológica. *Criminología y sociedad*, 3(4), 203-235.
- Stock, B. S. (2015). Victimología y violencia de género: diálogos en favor de un abordaje no reduccionista de la violencia. *Revista de Victimología/Journal of Victimology*, (1), 151-176.
- Useche, P. M. (1995). Victimología y víctima, una perspectiva crítica. *Revistas Universidad Nacional*, (5) 135-137

8. Txosten exekutiboa

Delitu bat ematen den ostean, biktimak jasan izango dituen edo bizi izango dituen egoerei buruz hitz egiten da. Marko enpirikoari dagokionez, hasierako kontzeptu batzuk ematen dira, gaian integratzen gaituztenak. Jarraitzeko, biktimologia historian eta horrek ekarritako biktima kontzeptuaren ideari buruz hitz egiten da.

Aurretik esan bezala, biktimaren babesaren garrantziari buruz hitz egiteko lan osoan zehar agertuko diren kontzeptu batzuei buruzko aurkezpena egiten da. Hau da, kriminologia, biktimologia, biktima, zigor kodea, biktimizazioa, indarkeria eta delituari buruz. Kriminologiaren existentziarekin eta honek eman zituen ezagutza berriekin biktimologiaren garrantzia gizartean agertuko da. Zigor Kodeak, urteetan zehar zigortu dituen delituen inguruan eta gure gizartean indarkeria zer den ezartzen saiatu da. Ondorio guztien eraginez, biktimaren biktimizazio eta desbiktimizazioaz hitz egiten da.

Kriminologiaren ezagutzak biktimologiaren existentzia ekarri duelarik, biktimaren agerpena ematen da. Biktima eta biktimologiak historian zehar korrante ezberdinak izan ditu; horietako batzuk, zuzenbide penal klasikoa eta zuzenbide tradizionala izan dira. Lehenengo horretan delituaren eta zigorraren garrantzia agertzen da bakarrik eta biktima iluntasunean eta isiltasunez gordetzen zen. Zuzenbide penalarikriminala gutxi interesatzen zitzaion, biktima beraz, ez zuen inolako garrantzirik.

Bestalde, urteak aurrea joan ahala, eskubide gizatiarren existentziarekin biktimak indarra hartu eta biktimak ahaztearen ondorioak ulertzen hasi ziren. Delitugilearen ikerketatik biktimaren ikerketara pasatzea izan zuen helburu bezala. Kriminalaren analisitik nola garatu edo aldatu den biktimaren analisisira

Biktimologia motei dagokionez, biktimologia klinikoa, kriminologikoa, forensea, penitentziarioa eta filosofia biktimologikoa izango ditugu. Biktima motei buruz hitz egiteko ezin da ildo bakar bat kontuan hartu; horregatik, autore ezberdinek proposatutako motak ematen dira. Ildo bakar batetik denboran zehar eraldatzen edo handitzen joan direnak izango dira.

Biktimologikoa positibistaren aldetik biktimak, biktima errugabeak, ezjakintasunekoak, probokatzailea, boluntarioak edo erasotzaileak izan daitezke. Bestalde, biktimak indibidualak, familiarrak, kolektiboak, komunitatea sozialekoak edo

sozialak izango ditugu. Azken batek, biktimen erantzukizuna planteatzen zuen; hau da, erlazio kriminala ez dutenak, probokatzaileak, presazkoak, biologikoki ahulak direna, sozialki ahulak direnak, autobiktima eta biktima politikoak.

Biktima izateko faktorei dagokionez, faktore sozialak, patologikoak, biologikoak eta beste biktimizazio faktore batzuk egongo dira. Faktore guzti hauek egoera batzuk izango diren zeinak pertsona batzuk biktima bihurtuko diren. Biktima izateko faktoreekin alderatuz, biktimaren babesaren garrantzia aztertzen da. Izan ere, biktima primarioa izanda biktimak sekundarioa edo tertziarioa ez garatzeko ezinbesteko elementuak.

Delitu baten gertakariaren ostean biktimak biktimizazio eta desbiktimizazio etapak bizi izan ditu. Aurretik esan bezala biktimizazio primarioari dagokionez, “bikote penalarren” arteko erlazioa egongo da. Bertan, biktimaren babesgabetasunaren eta arrisku faktoreen identifikazioa eta ebaluazioa ematen da. Biktimak bi faktore sufritzen ditu; alde batetik, biktima instrumentalizatzen dela eta bestetik, bazterketa soziala eta erruduntasun mekanismoak pairatzen dituela. Azkenik, biktima tertziarioari dagokionez, biktimaren gehiegizko egoera punitiboa azpimarratzen da. Hortaz aparte, identitatea behin eta berriro eraikitzeagatik sufritzen dituzten ondorioak biktimizazio tertziarioaren parte izango dira.

Biktimaren rola gaitzea, delituaren gertakariak eta ondorio negatiboak pertsonan beran sortu dituen eraginak alde batera uzteko balio du. Biktimak, biktima izateari utzi behar dio, hala ez bada, dolua luzatzen du. Bere identitate nagusia ez da biktima, pertsona baizik. Beraz, egoera traumatiko baten egokitzeari deituko diogu rola gaitzea.

Biktimaren rola gaitzea eman ahal ez izateko ezinbestekotzat hartzen da prebentzio biktimala; hau da, biktimetaz aparte gizarte osoan eman beharko den asistentzia izango da.

Biktima, biktimologia eta gizartearen kasuan, biktimologiak kriminologiaren aldetik aldentzeak eta metodologia, kontzeptu, teknika eta harrimintak ematen dizkio biktimari. Antzinan, gobernuak zen delituak zigortzeaz, ikertzeak eta birgizarteratzeaz arduratzen zena, denbora aurrera joan ahala, gizarteak kasu horietan parte hartu izan nahi du. Zerbitzu ezberdinen espezializazioan, biktima bakoitzak behar dituen beharrei

egokitu da. Nazio Batuen parte diren herrialde ezberdinek obligazio bat izango dute; izan ere, herrialde bakoitzak dituen araudi eta legeak biktimei egokituta egon behar da eta gainera, bertako profesional eta boluntarioak gaitasunez hornitu behar dira atentzio establezimenduek arreta egokia eman dezaten. Biktima mota bakoitzarentzako arauak eta prozedimenduak ezagutzen dituen espezialistak behar ditugu, hauek beharrezko protokoloak sortu eta aurrera eramango dituzte. Izan ere, zuzenbide biktimala, zuzenbide biktimalaren zati orokorra, zuzenbide biktimalaren zati berezia eta justizia biktimalaren konstelazioa.

Jarraitzeko, biktima izatearen ondorioak, pertsonak berak indarkeriak zeinu eta sintomak eremu ezberdinetan manifestatzen dituenean izango da. Efektuaren eremuak depresioa, suminkortasuna, antsietatea, beldurra edo disforia izan daitezke. Efektu psikologikoan, lo nahastea, anorexia, enuresia, bulimia, takikardia, disfuntzio menstruala, gizonetan disfuntzio zutikorra, hoztasun eta inpotentzia. Eremu kognositiboan, memorian asaldurak, amnesia, arreta gabezia, kontzientziaren asaldurak. Azkenik, eremu fisikoan, kolpeak, erredurak, makadura, zauriak, hausturak eta urradurak izango ditugu.

Biktimekin ematen diren politika sozialen neurriak ezberdinak dira. Jarduera juridikoa burutu ahal izateko, biktimetan egingo den esku-hartze politiko-soziala hurrengo tresna batzuen arabera izango da: informazio eta orientatze soziala, arreta psikosoziala, laguntza sozial eta ekonomikoak eta bitartekaritza penala. Lehendabizi, informazio eta orientatze sozialari dagokionez, pertsonen laguntza eta babesa emango dien sistema publikoa da. Biktima, eskubide eta beharrei buruz informatu eta orientatzen da.

Bigarrenik, arreta psikosoziala, laguntza pertsonal, familiar eta komunitarioan datza. Pertsonaren integritate emozionala eta sare soziala osatzen saiatzen da. Arreta eskumen publikoetatik ematen da eta elementu batzuk izango dituzte oinarriztat. Oinarrizko errektoreei dagokionez, hurbiltasuna, berehalakotasuna, itxaropena eta sinpletasuna emango da. Helburuei dagokionez, arazoaren identifikazioa, behar nagusien estaldura, errekurtsoen balorazioa, gaitasuna sozialen irakaskuntza eta sustapena, errealitate onarpena, sintomatologia grinatsuen murrizketa. Azkenik, burutuko dituzten lanei dagokionez, balorazio eta diagnostikoa, informazioa, terapia psikosozial indibidualaren diseinua eta exekuzioa, komunikazioa eta laguntza izango dira. Arreta psikosozialaren

funtzioak 5 izango dira: arreta zuzena, komunitatea dinamizazioa, ikerketa, planifikazioa eta programen ebaluazioa.

Hirugarrenik laguntza sozial eta ekonomikoak emango dira. Argi dago, laguntza ekonomikoek ez dutela delituaren biktima izan den pertsona baten behar guztiak asetzen. Horretarako, biktimari asistentzia, babesak eta laguntza emango zaio bakoitzaren egoerari egokitu. Laugarrenik eta azkenik, bitartekaritza penala ideologia berri bat dela esan daiteke. Zenbait kalte material eta moral konpontzeko sortutako hezkuntza sozialaren inguruko esku-hartze tresna da. Beraz bi modalitate bezala ezagutzen da; hau da, biktimaren konponketarako esku-hartze tresna eta sentsibilizazio indibidualaren alternatiba bezala.

Marko teorikoaren atalarekin bukatzeko, biktima prozesuan aztertzen da. Biktima zuzenbide eta prozesu penalean protagonista bezala ezagutzea lortu da. Biktima prozesuan lagundu ahal izateko doako laguntza juridikoa sortu zen. Doako laguntza, edozein pertsonak errekurri dezake; ibiltzeko errekurtsorik ez dutenak adibidez, justizia egikartzeko aukera bezala. Onuraduna izateko baldintza batzuk bete behar ditu; esaterako, ekonomikoak eta juridikoak. Ekonomikoa gaitasun ekonomikoari buruz arituko da eta juridikoa, beste prozedimendu judizial bati buruz ari da.

Bestalde, prozesuan biktimak zenbait eskubide izango ditu; horien artean, bortxaketak saihestu ditzakeen disposizio legegile, administratibo edo beste izaera bat eduki dezakeen edozein disposizio, bortxaketaren inguruko ikerketak eta kasu hauetan arduradunak izango diren kontrako neurriak ezartzearen ardura, Giza Eskubideak urratu zaizkion biktimak justizia eraginkor bat izateko bermea eta biktimei errekurtso eraginkorrak eta erreparazioa emateko aukera. Eskubideak bermatu eta babesak modu egokian egikaritu ahal izateko, biktimen lege eta estatutu batzuk izango dituzte.

Marko teorikoaren bigarren atalarekin jarraitzeko Genero Indarkeria dago. Genero indarkeriaren biktimak, gaur egun, biktimizazioak eman ditzakeen ondorio guztiak bizitzen dituzten pertsonak izango dira. Genero indarkeria, ezberdintasuna, mendekotasuna eta gizonek emakumeengan duten botere erlazioa izan da eta gaur egun oraindik bada. Indarkeria hau sexuen arteko ezberdintasunean oinarritu eta burutzen da. Izan ere emakumeek, emakumeak izateagatik pairatzen duten indarkeria izango da; emakumeak edozein geruza sozialekoak izango dira, hezkuntza maila ezberdinekoak,

kulturalak edo ekonomikoak. Genero indarkeria emango da emakume batek bere bikotearen edo bikote oiaren aldetik delitua jasotzen duenean.

Genero indarkeria motei dagokionez, tratu txar fisiko, psikiko eta sexualak izango ditugu. Indarkeria mota horiek detektatzeko askotan, emakumearengan manifestazioak aurkitzen ditugu (erredurak, insomnio, depresioa). Beste kasu batzuetan erasotzailea aurkituko dira (alkohola eta drogen abusua, hirugarrenengan indarkeria, lanaren absentsia edo lanaren galtzea).

Fenomeno deliktibo honen kontzeptua emakumeenganako tratu txarren errealitatearen onarpena bezain berria da. Aurreko menderarte testu internazionaltan, ez dira indarkeria mota honen inguruan informaziorik aurkitu. 90. hamarkadatik aurrera, ekimen garrantzitsuei esker indarkeria mota honen lana sendotzen hasi zen. Genero indarkeriaren arrazoia ez da biologian oinarritzen, kultura eremuan edo estruktura sozialetan aurki dezakegu. Beraz, orden sinboliko horrek gizonaren emakumearenganako botere erlazioa definituko duten osagaiak dira, genero indarkeriaren oinarria.

Genero indarkeriaren biktimei buruz hitz egiten denean, ikerketek erakutsi dute, genero, klase soziala, etnia, estigma eta bazterketaren iturriak direla. Gaur egun, emakume batzuk duten egoera biopsikosozialengatik genero indarkeria pairatzeko zaugarritasuin handiagoa dute, eta bereziki tratu txarrak jasotzeko.

Diagnostikatzen diren lehenetariko faktoreak, maila sozio-kulturak baxua, errekurso gabezia, gizonarekiko dependentzia ekonomikoa, familian indarkeriaren aurrekariak egon izana, menderatze emozionala eta asimetria bikotean izango dira. Aldi berean, indarkeria jasotzeko arriskua duten besten zenbait kolektibo daude; hau da, emakume immigranteak, indigenak, landa inguruan bizi diren bertakoak eta ezgaitasun bat duten pertsonak. Hala ere, genero indarkeria arrisku faktoreak ez egonda ere eman daitekeen fenomeno da, kasu batzuetan, ez da indarkeria ematen arriskuen existentzia egonda. Beraz, arrisku faktoreak indarkeria piztu dezaketen baliabideak dira.

Fenomeno deliktiboaren prebentzio emateko, esku-hartzea galdatzen du. Ere mu familiarrean, komunitarioan, banakakoan eta baita hezkuntza eremuan ere. Ezkongai harremanetan ematen den problematika, eta gaur egun gero eta lehenago ematen dena. Urteetan zehar prebentziozko programak erabili dira herrialde batzuetan. Horietako

batzuk hauek dira: Skills for Violence Free Relationship, Building Relationships in Greater Harmony Together eta Expect Respect: Promoting Safe and Healthy Relationships for All Youth. Guzti hauek ikasleetan eragina izan dute. Gure kasuan, Genero Indarkeriaren Eskuordetze Gobernu da funtzio batzuen bidez jarduerak bultzatu, koordinatu eta kolaboratuko dituenak, baita jardueren arduraduna ere.

Funtzio horiek ezberdinak izango dira; esaterako, lehendabizikoa telefono zenbakiaren zerbitzua izango da, informazioa eta laguntza juridikoa ematen duena. Bigarrena, ATENPRO izeneko zerbitzua, genero indarkeriaren biktimentzako arreta eta babes gailua. Hirugarrena, jarraipen telematikako gailuak izango dira, zigorrak betetzen diren ahalbidetzen dutenak. Laugarrena eta azkena, abenduaren 28ko 1/2004ko Lege Organikoa izango dugu. Hortaz aparte, Autonomia Erkidego bakoitzak bere funtzioak izango ditu.

Gobernu eta Autonomia Erkidegoetako instituzioez aparte, beste entitate batzuen lana izango dugu; adibidez, Arabako Diputazioa, Haize Berria erakundea, Mujeres Bizirik erakundea eta Alma erakundea. Guzti hauek emakumeak delituaren bitartean eta “post delitu” babesteko eta laguntzeko sortu dira. Horietako batzuk prebentzioan ere lan egiten dute.

Lanaren helburu nagusietarikoa genero indarkeriaren biktimen babesa izango da. Biktimologian emandako aurrerakuntzek, genero indarkeria sufritu duten emakumeen arreta eta errendimenduaren hobetzea ekarri du. Gainera, biktimologiak kontu hauek ekarri ditu:

- a) Indarkeriaren ziklo ez da beti egongo
- b) Genero indarkeriaren ondorioak oso ezberdinak dira
- c) Biktima ez da bakarrik emakumeak egiten duen salaketari bakarrik erreferentzia egin behar
- d) Indarkeriari aurre egiteko ezinbestekoa izango da laguntza profesionala, ez da bakarrik prozesu judizialean zentratzen

Marko enpirikoa, genero indarkeriaren ikuspuntutik biktimaren garrantziaren alde praktikoa da. Zati honetan estatistiketaz aparte, Haize Berriako fundatzaile baten elkarrizketa eta beste emakume askoren bizipenak islatzen dira.

2020. urteko datuak apirilaren 6ra arte bakarrik izango ditugu baino argi ikusten da urteko 4 hilabeteetan %77,8arekin 2019. urteko %72,7a gainditzen duela, genero indarkeria sufritu duten biktimen ehunekoa. Garrantzia da salaketak eman diren kasuetan. Izan ere, salaketak egon arren urte batean 15 emakume gutxienez hiltzen dira salaketa egin arren. Adinari dagokionez, gehienbat 41 eta 50 urte artean kokatzen diren emakumeak izango dira.

Azkenik, genero indarkeria sufritzen duten emakumeen egoera bitartean eta “post delitu” aztertu da.

Genero indarkeria sufritzen duten emakumeak, iluntasunean eta isolamenduan dauden emakumeak dira. Genero indarkeriaren kontzeptuak esaten duen bezala, bikotearen edo bikote ohiaren aldetik indarkeria jasaten duena izango da. Indarkeria fisikoa, psikikoa edo sexuala izan daiteke eta neraberazoran lehenengo harreman ezkongaiekin hasten da. Urteetan zehar bizitza “normal” baten bila, biek maitasuna ikasitako baloreen eta hezkuntzaren arabera hezten da.

Indarkeria, hitzezko edo emoziozko indarkeriarekin hasten da, bikotearen parte izaten den elementu baten sinesmenaz. Indarkeria, indarkeria fisikoarekin beti alderatu da; hain zuzen, fisikoa ematen ez den heinean indarkeriarik edo deliturik ez dagoelaren ideia.

Indarkeriaren zikloari buruz ari naizenean, genero indarkerian bereziki ematen den prozedura bat da. Aurretik esan bezala, indarkeria hori gero eta gehiago garatu daiteke. Edozein faktore izan daiteke eragilea baino argi dago, erasotzaileak patroiz batez osatuta dagoela. Hau da, biktimen bizi izan duten edo bizitzen ari diren egoeraren arabera (estatu soziala, ekonomikoa, etab), biktima izateko aukera handiagoa izango dute. Erasotzaileetan aldiz, ez da zertan estatus soziala edo ekonomikoa kontuan hartu behar.

Biktimari berriz erreparatuz, ziklo biolentoa hasten den momentutik aurrera emakumea guztiz eraldatzen da. Gehienbat gizonek, emakumeak gutxiesten, auto-estima ezabatzen eta erlazio sozialetatik eta familiarretatik aldentzen dituzte. Honen arrazoia, besteek esan eta egingo dutenaren defentsa mekanismo bat bezala ezagutzen da. Egoera askotan, guztietan ez esateagatik, emakumeak errudun sentitzen dira.

Erruduntasun hori ulertzeko, izandako hezkuntzan jarriko nuke begirada. Emakume izateagatik eta emakumearen rola bereganatzeagatik, izateko eta jokatzeko modu bat

esleitu zaio betidanik emakumeari. Izan ere, etxeko andrea izan behar dela, seme-alabak zaindu behar dituela, liluragarria izan behar dela, besteen artean.

Familia lotura ez apurtzeko eta askotan, seme-alabak ez iraintzeko emakumea “egindakoa” berreraikitzen da, behin eta berriro. Momentu bat iristen da non emakumeak gehiago ezin duen baino errekurso gabeziak ez du emakumea egoera horretatik ateratzen. Batzuetan, lagunak mantendu dituztenen laguntzarekin lortzen da; beste batzuetan, seme-alaba nagusiak direnean, etab.

Egoera latz horrekin bukatu delaren ideia hasten denean, prozedimendu judiziala hasten da. Prozedimendu judiziala ez da zertan salaketa bat izan behar, seme-alabekin zerikusia izango duten prozesuak izan daitezke. Genero indarkeria delituak ematen diren kantitate guztietatik emakume gehienak ez dute salatzen. Ez salatzearen arrazoa, beldurra da.

Gizonak espetxean dituzten emakumeen egoera azpimarratzen da. Euskal Autonomia Erkidegoko eta seguraski mundu osoko emakume gehienak ziurgabetasun egoeran bizi dira. Gizonak espetxean egonda, beraien zigor kantitatea betetzen, irteerazko baimenak izateko aukerak dituzte. Gizonak dituzten aukeren ondorioz, emakumeak ezin dute hitz egin eta are gutxiagoa aurpegia eman. Aurpegia ez emateaz aparte, gizonak dituzten irteera bakoitzean emakumeek bizkartzain baten babesa izango dute. Bizkartzain baten lana laguntza izugarritzko profesio bat bezala ikus daiteke. Hala ere, non geratzen dira emakumearen ezinbesteko eskubideak? Askatasuna, independentzia, autonomia, etab.

Sufrimenduarekin bukatzeko asoziazio edota erakundeen laguntza bilatzen dute. Erakundeek legalki aholkatu, atentzio psikologikoa, errekursoak eta birgizarteratze elementuak eskaintzea ezinbestekoa da. Emakume guztiek, modu batean edo bestean, atentzio psikologikoa behar izan dute. Atentzio psikologikoaren jardueretan terapia indibidualak edo taldekakoak izan dituzte. Terapia hauek denbora luzeko jarduerak dira, urteak iraun dezaketenak.

Prozesuak sententzia irmo bat ematen duen momentuan emakumea bizitza askatasunez bizi dezakeela pentsatzen da. Erakundeek legalki aholkatu, atentzio psikologikoa, errekursoak eta birgizarteratze elementuak eskaintzea ezinbestekoa da.

Emakume guztiek, modu batean edo bestean, atentzio psikologikoa behar izan dute. Atentzio psikologikoaren jardueretan terapia indibidualak edo taldekakoak izan dituzte.

Esku-hartze talde hauek, emakumeak gizartean, kasu honetan gizonetan, berriz sinestea sorrarazten du. Terapia hauek ez dira denbora gutxiko esku-hartzeak izango, baizik eta emakumeak guztiz erreparazioa lortu dutenean bukatuko da. Gehienak, bizitzari aurre egiteko baliabideak edo beraien burua aurre egiteko ez ikusi, terapia utzi eta beste emakume asko laguntzen saiatzen dira.

Ondorioz, prebentzio eta interbentzioarekin ez da nahikoa izango. Genero indarkeria gure gizartean mantenduko den delitu bat da eta ematen den bitartean gizartearen eta bereziki emakumeen zaintza ezinbestekoa da. Horregatik, sententzia edo banaketa bat eman ostean emakumeen inguruko jarraipena eta hobekuntza eman behar da.

Bukatzeko, genero indarkeriaren biktimek bi egoera sufritzen dituzte. Alde batetik, delituaren bitartean jasaten duten babesgabetasuna; hau da, delituari konponbidea jartzeko ezgaitasunik ez izatea. Bestetik, delituaren berri ematen denean, erasotzailea zigortzen denean, emakumeen ezegonkortasun nabaria. Azken hauek, babesgabetasunean jarraitzen dute.

Prozedimendu judiziala aurrera eramaten duen pertsonetatik, laguntza eskaini, terapia eman, bizkartzain modura jarduten duena edo beraren ondoan denbora igaroko duen pertsonararte profesionaltasuna behar da. Hortaz, bizitzari aurre egiten bakarrik uzten diren emakumeen babesa oso garrantzitsua da, emakumeak bizirik eta askatasunez bizi behar direlako.

Biktimaren babesa efektiboa izateko, dekalogo bat proposatzen dut. Bertan, emakumearen ezinbesteko erreparazioa eta laguntza bermatzeko, beharrezkoak diren elementuak dira.

Genero indarkeria sufritu duten emakumeentzako babesa eskasa dela argi dago. Nahiz eta laguntza eman, askotan ez dira beharrezkoak diren elementu guztiak ematen. Biktimaren babesean eta biktimaren rola gainditzen lagunduko duten erakunde ezberdinek zein legeek elementu hauek eduki behar lituzkete.

Formazio eta sensibilizazioari dagokionez, bi eremuetan eman daiteke; alde batetik, adingabeen eremuan eta bestetik, helduen eremuan. Adingabeen eremuari

dagokionez, ikastolan umeak gaur egungo fenomenoaren inguruko informazioaz hornitu behar da. Informazioz hornitzeaz aparte, ematen diren egoerak eta beraiek bizitzen dituzten egoeren analisia ere ezinbestekoa da. Bestalde, adingabeak informazioaz hornitzea eta hezkuntzan eragitea zailagoa dela esan daiteke.

Informazio gero eta jende gehiagorengana iristen baldin bada, genero indarkeriazko jarrera bat lehenago detektatzeko aukera izango dugu.

Detektatzeko mekanismoei dagokionez, gaur egun, genero indarkeria detektatzeko zenbait mekanismo daude. Komunikabideetan, unibertsitateetan, teknologia berrietan, besteen artean aurki ditzakegu. Bestalde, komunikabideak edo teknologia berriak eskura ez dituztenentzako konponbide bat bilatu behar da. Konponbideetariko bat, gizartearen kontzientziazio sozial handiagoa izan daiteke.

Babesari dagokionez, beharrezko izango da emakumearen babesa erakunde eta instituzioen aldetik. Atentzio psikologikoa, gertakari traumatiko baten ostean, edozeinek beharko luke atentzio psikologikoa. Honekin batera, erresilientziaren lana azpimarratzen da. Aholkularitza, figura profesionalez osatuta egon behar direnak, emakumeari ondoen etorriko zaion irtenbideak aholkatuko dizkio.

Emakume guztiak baliabide eta errekurso pertsonalez hornitu behar dira; esaterako, gaitasun eta ezagutzaz emakumeak ongizatea lortzen laguntzeko. Birgizarteratzea, emakumearen babesa mantendu eta bakardadearekin bukatzeko behar den elementua da. Gizarteko beste zenbait kolektibo eta kideren laguntza behar da.

Azkenik, jarraipen eta hobekuntzari dagokionez, emakume horren garapenean arduratu behar gara eta horretarako profesional espezifiko batzuen jarraipena behar da. Gizartea aldatzen doan heinean, emandako baliabideak eraldatu edo hobetu beharko ditugu kasu bakoitzari ondoen moldatzeko.